



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

IV. Legegintzaldia

Iruñean, 1998ko ekainaren 15ean

43 ZK.

---

### **A U R K I B I D E A**

A SAILA:

**Foru Lege Proiektuak:**

—Nafarroako Administrazio Publikoen kontratuei buruzko Foru Lege proiektua. Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontu Batzordeak onetsitako irizpena (2. or.).

---

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

## **Nafarroako Administrazio Publikoen kontratuei buruzko Foru Lege proiektua**

### *EKONOMIA, OGASUN ETA AURREKONTU BATZORDEAK ONETSITAKO IRIZPENA*

Biltzarreko Erregelamenduko 136.6 artikuluan ezarritakoa betez, Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontu Batzordeak Nafarroako Administrazio Publikoen kontratuei Foru Lege proiektuari buruz eman duen Irizpena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Proiektu hori 1998ko urtarrilaren 23ko 9 zk.ko Biltzarreko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Irizpen horri buruz, Osoko Bilkuran, emendakin hauek eta boto partikular hauek defendatzen ahal-ko dira:

– 74, 75, 77, 80, 261, 263, 267, 268, 353, 371, 372, 385 eta 386 zenbakikoak, «Askotariko» Parlamentari Taldeko Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak aurkeztuak.

– 151, 162, 187, 197, 211, 228, 274, 360, 369, 377 eta 378, «Nafarroako Demokraten Elkargunea» Parlamentari Taldeak aurkeztuak.

Emendakin horiek 1998ko maiatzaren 25eko 36 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren.

Iruñean, 1998ko ekainaren 2an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **Nafarroako Administrazio Publikoen kontratuei buruzko Foru Lege proiektua**

Zioen Azalpena

-1-

#### **Foru Legearen lege-aurrekariak, haren eskumena eta justifikazioa**

Nafarroan kontratuei buruzko legedia 1986koa da. Foru Komunitateko Administrazioaren Kontratuei buruzko azaroaren 14ko 13/1986 Foru Legeak 1982ko Kontratazioari buruzko Arau Orokorra

ordeztu zuen eta luzaz Foru Komunitateko Administrazioaren kontratazioaren esparru egokitako balio izan du.

13/1986 Foru Legea Nafarroako legedia Estatuko esparrura egokitzen saiatu zen. Esparru hori Estatuko Kontratuei buruzko Legea aldatu zuen maiatzaren 2ko 931/1986 Errege Dekretu Legegelearen bidez aldatua izan zen, Europako Ekonomi Elkartearen zuzentarauetara doitzearren.

Estatuko legedia 1965 urtekoa da eta Estatuko Kontratuei buruzko Legearen testu artikuluduna onetsi zuen apirilaren 8ko 923/1965 Dekretuak osatzen zuen.

Gero, Estatua beste arau batzuk emanez joan zen, apirilaren 8ko 923/1965 Dekretua garatu eta osatzen zutenak eta Europako Elkarrekin ezarriko eginbeharretara egokitzen zutenak, hala nola, Estatuko Kontratazioari buruzko Erregelamendu Orokorra onesten duen azaroaren 25eko 3410/1975 Dekretua; Europako Ekonomi Elkartearen zuzentarauetara egokitzeko Estatuko Kontratuei buruzko Legea aldatzen duen maiatzaren 2ko 931/1986 Errege Dekretu Legegilea; 931/1986 Errege Dekretua egokitzeko Kontratazioari buruzko Erregelamendu Orokorra aldatzen duen azaroaren 28ko 2528/1986 Errege Dekretua, besteak beste.

Nafarroan, bestetik, 13/1986 Foru Legean aztertzen ziren gai zehatz batzuk garatzen zituzten arauak aldarrikatu ziren. Hori horrela, arautu ziren Administrazio Kontratazioarako Batzordearen sorrera (maiatzaren 4ko 132/1988 Foru Dekretua); Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren kontratuetan emaniko abalak (uztailaren 21eko 205/1988 Foru Dekretua); laguntza teknikoko kontratuak (apirilaren 25eko 161/1991 Foru Dekretua); Kontratuen Erregistroa (apirilaren 25eko 162/1991 Foru Dekretua); kontratu publikoen esleipena (1994ko maiatzaren 16ko Erabakia); eta espediente xeheen izapidatzea eta hornidura-

kontratu batzuetarako arau batzuk (1993tik aurrerako Aurrekontuei buruzko Foru Legeen bitartez).

Abiapuntua den 1965eko Estatuko Legeaz egin den eta zentzuzkoa den erregelamenduzko garapenez gain, Espainia Europako Ekonomi Elkarteko kidea denez, beharrezkoa zen barne legedia antolamendu juridiko berrira egokitzea.

Kontratazio publikoari buruzko Europako Bata-suneko Zuzenbidearen xedea kontratuak objektiboki eta publikotasunez esleiri daitezela lortzea da eta zuzentarau batzuetan gauzatu da. Hona hemen: 71/305/EEE, 89/440/EEE eta 93/36/EEE obra-kontratuari buruz; 77/62/EEE, 80/767/EEE, 88/295/EEE eta 93/37/EEE, hornidura-kontratuari buruz; eta 92/50/EEE, zerbitzu kontratuari buruz.

Halaber, Estatuko legedia beharturik egon zen 1994ko urtarrilaren 1ean indarra hartu zuen Europako Ekonomi Espazioari buruzko Itunaren eta Marrakechen 1994ko apirilaren 15ean egin zen Kontratazio Publikoari buruzko Itunaren ondoriozko konpromisoak aintzakotzat hartuz.

Hori horrela, Estatuan Administrazio Publikoen Kontratuari buruzko maiatzaren 13ko 13/1995 Legea argitaratu zen. Arau horrek, gehienbat oinarrizko izaera duenak, arlo honetako foru legedia ukitzen du eta hori egokitzera behartzen. Egokitze hori, gainera, beharrezkoa zen, Nafarroako Foru Komunitatea lehengo lerroetan aipaturiko estatuez gaindiko zuzenbideari loturik baitago.

Egia da Nafarroaren egoera berezitik abiatu beharra dagoela, Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoko 49.1.d) artikulua, foru araubideari jarraiki, administrazio kontratu eta kontzesioei buruz eskumen eskusiboa aitortzen dion neurrian, arlo horretako Estatuko legediaren oinarrizko printzipioak errespetatuz. Jurisprudenzia behin eta berriro zehaztu izan du horien identifikazio generikoa, Azalpen honen beste toki batean adierazi bezala.

Nafarroaren berezitasun horren ondorioa da Zioen Azalpen honekin batera doan testu artikuluduna, prestakuntzaldi luze baten emaitza dena.

Bestaldetik, Nafarroako Kontuen Ganbarak, Nafarroako Parlamentuko fiskalizazio organoa den aldetik, 1994ko urriaren 12ko data duen txostena prestatu zuen (1994ko urriaren 20ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zena), non, baitio, besteak beste, beharrezkoa dela Nafarroako Kontratuari buruzko geroko Foru Legeak lortu nahi den erreformarekin bat datorren Zioen Azalpen bat edukitzea, bere artikulua ulertzeko gakoak adierazten dituen eta legezko

aurrekariak, lege berriaren justifikazioa, xedea, egiturak, eragin dioten printzipioak, sartzan dituen aldaketak eta abar biltzen dituen.

Gomendioan, begi bistakoa ezezik, garrantzitsua ere den horretan, aditzera ematen da gaurko egoeran interpretatzeko gako horietatik ezean sistematikoki Estatuko erregulaziora jo delako ordezko moduan.

Teknika hori Foru Lege honen testuaren bidez zuzentzen da. Izan ere, Zioen Azalpenak adierazten du zer kontu berri agertzen diren Nafarroako legedian eta zer oinarri sortu duten erregulazioa. Horrela, geroan izan litekeen kudeatzaileak ideia bat izan du erregulazioa eragin duten printzipioei buruz.

Zuzenean aplikatzekoak diren Europako zuzentzauek kontratazio publikoaren alorreko oinarrizko printzipioak finkatzen dituzte, maiatzaren 18ko 13/1995 Legean biltzen direnak eta, horietatik dira kontratazioari buruzko edozein arauko garapenetan bildu behar diren gutxienekoak.

Hala ere, deusek ere ez du eragozten, berrituz eta printzipio horiekin bat, berdintasun, objektibotasun, gardentasun eta konkurrentzia publikoko printzipioekin bat datozen aldaketak proposatuz legeak egitea, printzipio horiek baitira oinarrizkoak eta botere publiko guztiak lotzen dituztenak.

Horregatik, aurrerago esaten denaren arabera, Foru Legea prestatzea Administrazioen funtzionamenduan aurkituriko beharrezko konpontzeko filosofiarekin dago loturik, dela Foru Komunitateko Administrazioa, dela tokian tokikoa, dela Unibertsitatekoa berekoa, hori ere espreski kontratuari buruzko erregulazioaren xedea baita.

Alegia, lortu nahi da testu berria lanabes erabilgarria izan dadila, benetako arazoei konponbideak eman diezazkiela eta berehala aplikatzekoa izan dadila.

## -2-

### Foru Legearen xedea eta edukia

2.1. Lehenago esan den bezala, Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoko 49.1.d) artikulua behartzen du Foru Komunitatea, administrazio kontratazioaren alorrean, "Estatuak duen oinarrizko legediaren funtsezko printzipioak" errespetatzera.

Printzipio horien identifikazio generikoa ez du zailtasun handirik sortzen. Arlo hori buruzko jurisprudentzia behin eta berriro azpimarratu ditu nagusiak: publikotasuna, konkurrentzia, objektibotasuna, berdintasuna, eta administrazioak zuzen-

du, ikuskatu, interpretatu, aldatu eta kontrolatzeko dituen ahalmenak. Hori horrela, Foru Lege honek berarekin dakar foru eskumenak oinarrizko legedian printzipio horiek dauzkaten bermeak sendotzeko moduan erabiltzea.

Oinarrizko legedian aipatzen diren gutxieneko bermeak gainditzeko xede hori Foru Legearen arauzko bilbean dautzan oinarrizko aukera batzuetan nabarmentzen da.

– Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoko 49.1.d) (administrazio kontratazioa) eta 46 (toki administrazioa) artikuluetan aitorturiko eskumenek bideragarri egiten dute administrazio kontratazioaren araubidea Nafarroako esparruan homogeneizatea.

– Kontratatzekeo betebeharrak, gaitasun, kaudimen, sailkapen eta debekuei buruzko oinarrizko eta Europako araudiek zirrikitu estua uzten diote foru araudiari, publikotasun, konkurrentzia, berdintasun eta objektibotasun printzipioen osotasuna arriskuan jarri nahi ez bada. Izan ere, Europako araudiak Estatuko eta Foru Komunitateko arlo horietako legedien edukia neurri handi batean baldintzatzen du.

Dena dela, ñabartu behar da oinarrizko eta Europako Batasuneko legeriek ahalbidetzen dutela kontratisten foru sailkapena ezartzea, Estatuko Legean gaitasun tekniko, ekonomiko eta finantzarioa frogatzeko aurreikusiriko oinarrizko irizpideak muga bakarra izanik.

– Kontratazio motak zeinek bere berezitasunak dituen irizpideen arabera definitzen dira, Estatuko erregulazioko jarraibide nagusien kontra jo gabe.

– Haatik, berezko erregulazioa eman daiteke kontratzeko prozeduren alde formalei buruz, konkurrentzia eragozten duten oztopoak saihesteko.

– Pentsatu da Estatuko legek berme era guztiak onartzea komenigarria ezezik juridikoki zuhurra ere badela, oinarrizko araudia Nafarroako esparruan aplikatzearen ondoriozko disfunczio, zehazgabetasun edo hutsune batzuk konpontzeko foru legedia egokitu badaiteke ere.

– Esleipen erei buruzko oinarrizko araudiari dagokionez, aukerarik hoberena da foru araudiak aurreikusten dituen publikotasun eta konkurrentzia betebeharrak gehigarriak gaineratzea eta publikotasuna eta konkurrentzia bultzatzen ez dituzten betebeharrak formal soilak kentzea. Arlo horretantxe dute foru eskumenek alde handiagoa lehendik zirriborraturiko kontratazio prozedurak berri edo hobetzeko, eta horiei legezko maila emateko.

– Zuzendu, ikuskatu, interpretatu eta kontrolatzeko Administrazioaren botereei buruzko oinarrizko araudiaren aplikazioak saiatu behar du botere horien erabilera foru araudiak aurreikusten dituen prozedura arauari jarraituz gauzatu dadila.

2.2. Hona hemen Foru Lege honetako erregulazioaren xede nagusiak:

Kontratatzekeo prozedurak Foru Komunitatean administrazio kontratuek dituzten berezitasunetara egokitzea. Horien ezaugarrien artean, beste kontu bereizgarriez gain, batezbesteko tamaina koantitatiboa Estatuko Administrazioarena baino txikiagoa dela.

Kontratazioaren funtsaren gaineko kontrola gehiago sustatzea kontrol formal hutsa baino.

Esperientziak erakusten du Administrazioa burdinazko kortse formalaz gerrikatzea, prozedurako faseen ugaltze soilaren bidez, ez dela lanabesik eraginkorrena administrazio kontratazioa kontrolatzeko. Kontrakoa: interes publikoko ekimen iturriak lehor eta antzu bihurtzeko.

Eraginkortasuna sustatzea, kontratazio espedienteen izapidatze burokratikoaren arinduz, kontratazioaren publikotasun, gardentasun, berdintasun eta objektibotasuna deusetan galarazi gabe.

Horren guztiaren ondorio gisa, tresna erabilgarri bat eskaini nahi da kontratu publikoen kudeaketa errazteko, kontratazioaren gardentasun, objektibotasun, eraginkortasun, administrazio on, malgutasun eta administrazio eta gizarte errealitateko egokitzapen printzipioek gidatuko dutena.

Zalantzarik ez, xede horiek lortzea ez dago bakarrik –ez eta nagusiki ere– arauzko tresna onaren esku, erabilpen egokiaren esku baizik. Haatik, botere publikoen erantzukizuna da administrazio kudeatzaileak tresna juridiko egokiez hornitzea, kudeaketa arin, zentzuzko eta eraginkorra erraztearen.

2.3. Artikuluak kontratu motaren arabera banatu beharrean, Foru Lege honek darabilen sistematikak aukeratu du kontratazio faseen bilakaerara doitzea. Foru Legea artikulatzeko modu horren xedea erabiltzeko erraztasun eta testuaren barne koherentzia handiagoak lortzea da. Oinarrizko legedian bezala, obra-kontratuak utzi egiten dio kontratazio guztiaren ardatz egituratzailearen eginkizuna izateari.

2.4. Foru Legearen esparruak Nafarroako Administrazio Publiko guztiak hartzen ditu. Horrela, lehenbizikoz, Foru Komunitateko kontratazio publikoaren eginkizun bateratzailea beteko du, funtsezkoa dena. Halarik ere, Administrazio Publi-

koek beren menpeko sozietate publikoen esku prestazioak uzteko duten ahalmena (hots, sozietate horien estatutua) kontratuei buruzkoa ez beste legedia batean behar da mugatu.

2.5. Kontratazioaren arauzko egituraketaren funtsa kontratu moten sailkapenetik abiatzen da. Foru Lege honen xedea da sailkapen horren oinarrien kontzeptu juridikoen ezaugarriak behar den gardentasunez finkatzea, nahasketak saihestuko dituzten irizpide bateratzaileetan oinarrituz.

Hori horrela, aholkularitza eta laguntza, zerbitzu eta kasuan kasuko lan zehatzetarako kontratuak, Estatuko legedian ohikoak ez direnak, kontratu mota bakarrean biltzen dira: laguntza-kontratuak izenekoan, hain zuzen ere. Horrela, kontratuak antzekoak diren kategoria horietan sailkatzeko zailtasunen ondoriozko alferrikako nahasketa nahi da saihestu.

2.6. Espedienteen izapizatze administratiborako arau orokorren ardatzak garbi daude:

– Funtsaren kontrol errealetan eraginik ez duten izapizatzeak arintzea.

Kontratazio negoziatuan, teorikoki Kontratazio Mahaiek zeuzkaten hainbat eginkizun har ditzakete administrazio zerbitzuek. Praktikan, hala ere, eginkizun horiek kasuan kasuko zereginarekin lotura zuzenagoa zeukaten unitate organikoetatik etorritako kideek bakarrik betetzen zituzten (legelariak, kontuhartzaileak edo teknikari fakultatiboez).

Kontratazio Batzordeak sortzeko aukera kontuan hartu da, oinarritzko legediako Kontratazioko Batzordeek dauzkaten eginkizunen antzekoak edukitzen ahalko dituztenak.

Foru Legeak prozedura arintzeko beste neurri asko biltzen ditu, interes bereziagatik hemen nabarmentzen direnez gain.

– Lizitatu eta eskaintzeko erraztasunak. Legezko testuak posible egiten du lizitatuzailea Administrazioak ofizioz egiaztatzen dituen gora-beherei buruzko agiriak aurkeztetik salbuestea eta esleipen proposamenak, baita esleipenak berak ere, egiteko bide ematen du, kontratua formalizatu aitzin agiri batzuk aurkezten baldin badira. Azkeneko ekintza hori kontratatze prozesuko funtsezko une bezala agertzen da. Izan ere, kontratatze eskatzen diren betebeharrak alde aurretik egiaztatzea dakar eta exekutatzeko faseari bide ematen dio.

Hori horrela, interesgarria da Foru Legeak aukerako izaera ematen diola behin-behineko bermea ezartzeari. Ausarkeria ustearen kasuan kon-

tratuaren salneurriaren ehuneko ehun adinako bermea eskatzeko bidea ere ez da hartu, oinarritzko legedian hala bildurik badago ere.

Halaber, kontratista beraren kontratu batzuk estaltzeko berme orokor bat sortzeko aukera aitortzen da, baina aipatzen da hura sortzeko modua, haren zenbatekoa, berme aldatu ahal izateko edo aldatu behar izateko inguruabarrak eta aldaketa horren ondorioak zehaztuko dituen arauzko garapen egokia burutu beharra.

Foru Legeak agiri pribatuan osaturiko aldi baterako enpresari batasunekin kontratatze aukera aipatzen du. Aukera horrek erraztu egiten ditu aldi baterako enpresa batasunak osatzeko izapizatzeak, berme formalak nabarmenki ukitu gabe, agiri pribatua beti ere Administrazioaren eskuetan baitago.

2.7. Esleipen moduei buruzko zatiak biltzen ditu Foru Legearen alde berrietatik nabarmenenak agian.

Erregulazio horren oinarritzko xedea da izan litezkeen gehiegikeria eta akatsak kontrolatzeko izan beharreko estatusuna kontratuen benetako garrantzirako egokituago dauden bide formal malguekin konbinatzea, beharrezkoa ez den kasuetan zama burokratikoak gutxitzearen.

Foru Lege hau aldarrikatu baino lehenagoko urteetan formalki zuzenekoak ziren esleipen moduak asmatuak ziren, baina egitez irekiak zirenak, komunikabideak erabiltzen zirelarik publikotasuna eta konkurrentzia sustatzeko. Baina Foru Lege honek prozedura negoziatuen formulazio bukatuago eta osatuagoa eman nahi du eta, legezko mailaren babesean, euskarri juridiko sendoa eskaini.

Foru Lege honek jasotzen duen esleipen sistemak bi oinarri ditu: batetik, prozedura irekien eta murriztuen arteko bereizketa eta, bestetik, prozedurazko betebeharren elkarren segidako mailaketa.

2.7.1. Lehenengo mailan prozedurazko betebeharrak gutxi-gutxiturik daude (orokorrean, fakturen bidez jardun ohi da). Maila hau oinarritzko legediako kontratazio xehearekin parekatzen da, zenbatekoak azken horren mugetakoak baino anitzez txikiagoak badira ere: 500.000 pezeta.

2.7.2. Bigarren mailan (publikotasunik gabe negoziaturiko prozeduran), goiko muga koantitativoa oinarritzko legediako kontratazio xeheak duen bera duen horretan, aukeratzen ahal da azken legedia horretan osaturik dagoen publikotasunik gabeko prozeduraren eta izapizatze laburtuko publikotasunik gabeko prozedura negoziatuaren



artean. Azken kasu horretan, foru erregulazioaren azkeneko xedea prozedura erraztea delarik ere, Estatuko kontratazio xehekoak baino estuagoak diren betebeharrak eskatzen dira, kontratuen gardentasun, berdintasun eta objektibotasuna oinarritzko legediaren bidez baino hobeki kontrolatzearen. Funtsean, hiru berme nagusi hartzen dira kontuan:

- Gutxienez ere hiru enpresa behar dira kontsultatu eta, hori posible ez denean, behar bezala justifikatu beharko da.

- Negoziatzeko prozesuak kontsultatzeko fasea dauka bukaeran, non kontsultaturiko enpresa guztiek entzunak izateko eta baldintza administratibo eta tekniko berekin bat eskaintzak aurkezteko eskubidea izanen baitute. Horretaz denaz agiri bidezko frogak agertu behar dute espedientean.

- Esleipen hartzaile izan ahal izateko, kontsulta horien arabera hautaturiko enpresak alde aurreko eskaintza baldintza administratibo eta teknikoaren araberrako eskaintza bihurtu behar du, segurtasun juridikoa bermatzearen.

- Negoziatzeko prozeduren gainerako kasuak, neurri handi batean, oinarritzko legedian aurreikusituen direnekin bat datoz, baina tratamendu bateratu eta sistematikoa ematen zaie artikulu bakarrean.

2.7.3. Beste prozedura negoziatu bat, publikotasuna prentsan daukana, osatzen da, oinarritzko legediako kontratazio xehearen goiko mugaren eta obra-kontratuko 20.000.000 pezeten eta gainerako kontratu tipikoetako 10.000.000 pezeten arteko alde koantitatiboa hartzen duena. Prozedura horrek, konkurrentzia eta gardentasun printzipioak errespetatzen dituenak, posible egiten du kontratuaren izapidatzea arina eta malgua izan dadila. Hona hemen haren ezaugarri nagusiak:

- Prozedura edozein interesatuen partaide-tzarako irekiri dago.

- Lizitaziorako publikotasuneko bideak, prentsa bidez, horrek egitez zabalpen handia baitu, Administrazio Kontrataziorako Batzordeak sustengaturik, interesatuei informatzeko eskura dauzkan baliabideen arabera.

- Lizitaziorako gutxieneko epeak zenbateko txiki edo ertaineko kontratuen benetako beharretara egokituago daude, baina luzatzen ahal dira kontratuaren izaerak horretarako behartzen duenean.

- Posible da hasierako baldintza administratiboak lizitazileek proposamen teknikoetan aipa-

turiko hobekuntzen arabera aldatzea. Eskumen horrek behar diren berme formalak ditu, maulazko moduan erabilia izatea saihestearren.

- Posible da espediente administratiboa ebazpen bakarraren bidez gauzatzea, publikotasun gabeko prozedura negoziatua bezala. Horrela ahalbidetzen da prozedura negoziatua bere benetako izaera juridikora egokitzea, horrek alde aurretik pleguak formalki onesteko beharrik ez baitu -eta batzuetan haren kontrakoa baita-, negoziatioaldian alda daitezke eta.

- Barne izapidatzerako betebeharrak gutxiago dira (Mahaiaren osaketa aukerakoa da).

2.7.4. Lehiaketa eta enkantea, oinarritzko legedian aurreikusiriko kasuetan.

2.7.5. Europako Ekonomi Elkarteko 92/50 Zuzentarauko 11.c) artikuluan xedaturikoaren babesean, ideia eta proiektu lehiaketak sustantibotasun propioaleko institutu juridikotzat joko dira, ondorengo kontratutik bereizirik, azkeneko horri konkurrentzia betebeharrak kentzen ahalko bazaio ere.

Lizitatzeko epeak modu uniforme, sistematiko eta koherentean zehazten dira Foru Legean. Ahal den ber, arauen sakabanaketa eta nahasketa saihestu dira hain sentsiblea den afera horretan. Espreski adierazten da zer epe hasten diren esleipena jakinarazi eta biharamunetik, kontratuei buruzko oinarritzko araudiaren eta guztiendako administrazio prozedurako legediaren arteko kontrastesanaren ondoriozko nahasketa saihesteko.

2.8. Kontratua exekutatu, eten eta amaiarazteari dagokionez, arlo batzuetan, hala nola azpikontratazio eta kontratuaren amaiaraztean, oinarritzko legediaren aldean garrantzi gutxi aldaketa eta berme gehigarriez gain, azpimarratzekoa da kontratuaren aldaketak izapidatze formalen beharrik gabe egiteko aukera, baldin eta haien xedea kontratuan aurreikusiriko unitateak badira eta esleipenaren prezioaren ehuneko 10 baino gutxiago egiten badute.

Prezioen berraztertzea orokortu egiten da, oinarritzko legedian bezala, prezio altxatuak, tarifak eta ordainsariak deritzen gaurko motak onartzen dira, baita mota batzuen konbinazioa ere. Nafarroako Kontsumorako Prezioen Indizea da erabiltzekoa.

Harrera bakarreko sistema, oinarritzko legedian aurreikusirik dagoena, ezartzen da.

2.9. Kontzeptualizazio juridikoko ahaleginak egin dira kontratuen baliogabetasunari buruzko oinarritzko erregulaziotik nahasketa eragin deza-

keten gorabehera disfuntzional eta izen baliobikoak kentzeko. Foru Legeak ondorio juridiko batzuk ematen dizkio baliogabetasunaren deklarazioari. Foru Legean zehazten diren ondorioak ez dira aldatzen, kontratuaren deuseztasunari edo deuseztagarritasunari dagozkion zioak direlarik ere haien jatorria.

2.10. Azkenik, interesgarria da obra kontratazioaren berezitasun batzuk nabarmentzea, hala nola, obrak osotasunaren gaineko prezio bidez kontratatzeak aukera, azterketa geoteknikoaren eginbeharra, espreski eta zioak emanda salbuesirik dagoenean ezik, fondoak hornitzea kopuru zehaztezina duten unitateetarako, beste gorabehera interesgarriak beste. Zuinketa kontratazio espedientea izapidatu baino lehen eta proiektua onetsi eta gero eskatzen da. Lurren alde aurreko eskuragarritasunari buruzko deklarazio bat espedienteari gaineratzea dago aurreikusirik, ur eta bide azpiegituretako obrak salbuesiz, eta kasu batzuetarako prozedura laburtua ezartzen da. Proiektuen ikuskapena behar den malgutasunaz arautzen da, bideragarria izan dadin, Administrazio Publikoak ezin bete daitezkeen eginbeharrez zamatuta gabe.

## **I. TITULUA** **Xedapen orokorrak**

### **I. KAPITULUA** **Aplikazio eremua eta araubide juridikoa**

#### **1. artikulua.** Aplikazio eremua.

1. Hurrengo ataletan aipatzen diren subjektuek izenpetzen dituzten kontratuak Foru Lege honetan eta hori garatzen duten erregelamenduzko xedapenetan ezartzen denari egokitu zaizkio, Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoko 49.1.d) artikuluan ezarrikoarekin bat.

2. Foru Lege hau oso-osorik aplikatuko zaie:

a) Foru Komunitateko Administrazioari eta haren erakunde autonomoi.

b) Nafarroako toki entitateei eta haien erakunde autonomoi, horien berariazko foru legedian aipatzen diren berezitasunei aurka egiten ez dien guztian.

c) Nafarroako Unibertsitate Publikoari.

d) Nortasun juridiko propioa duten zuzenbide publikoko gainerako entitateei, idazati honetan aipatzen diren Administrazioetako edozeini loturik edo haien menpe badaude. Ondorio horietarako,

betebehar hauek batera agertzen direnean ulertuko da lotura edo menpekotasun hori dagoela:

– Industriako edo merkataritzako izaerarik ez duten interes orokorreko beharrak espezifikoki asetzeko sorturiko entitateak direnean.

– Aipaturiko Administrazio Publikoek edo zuzenbide publikoko bestelako entitateek haien jarduera nagusiki finantzatzen dutenean edo haien kudeaketa kontrolatzen dutenean edo haien administrazio, zuzendaritza edo zaintzako organoetako kideen erdiak baino gehiago izendatzen dituztenean.

3. Foru Lege honek enpresen gaitasunari, publikotasunari, lizitzatzeko prozedurei eta esleipen erei buruz dituen arauak aplikatuko zaizkie:

a) Lehengo ataletan zehazturiko esparruan ez dauden zuzenbide publikoko entitateei, izenpetzen diren kontratuetan betebehar hauek batera agertzen direnean:

– obra-kontratuak edo haiei loturiko laguntza-kontratuak direnean, baldin eta, haien zenbatekoak, Balio Erantsiaren gaineko Zerga kendurik, obra-kontratuen kasuan 5.000.000 Ecu edo gehiago egiten duenean, edo, laguntza-kontratuen kasuan, 200.000 Ecu edo gehiago egiten duenean.

– Kontratuak finantzatzeko iturri nagusia Administrazioetik zuzenean edo zeharka datozen kapital transferentzia edo ekarpenen ondoriozkoa denean.

b) Beste edozein subjektu kontratugileri, izenpetzen diren kontratuek betebehar hauek guztiak betetzen dituztenean:

– Haien xedea izatea Europako Komunitateetako Jarduera Ekonomikoen Izendegi Orokorreko (EKJI) 502 taldeko 50 motako obrak egitea, ospitaleak, hirugarren adinekoentzako egoitzak, kirol, jolas edo aisialdiko ekipamenduak, eskola edo unibertsitateetako eraikinak eta erabilpen administratiboko eraikinak, eraikitzea, baita obra-kontratu horiekin zerikusirik duten laguntza-kontratuak ere.

– Administrazioak zenbatekoaren ehuneko 50 baino gehiagotan diruz laguntzea, baldin eta, zenbateko osoa, Balio Erantsiaren gaineko Zerga kendurik, 5.000.000 Ecu edo gehiagokoa bada, obra-kontratuak izanez gero, edo 200.000 Ecu edo gehiagokoa bada, laguntza-kontratuak izanez gero.

4. Administrazio batek zuzenean zein zeharka merkatal sozietate bateko kapitalaren gehiengoan parte hartzen baldin badu, merkatal sozietate hori kontratuak sinatzean publikotasun, konkurrentzia,

gardentasun eta objektibotasun printzipioei egokitu beharko zaie, egin beharreko eragiketaren izaera printzipio horiekin bateraezina denean izan ezik.

**IDAZATI BERRIA.** Era berean, nagusiki Administrazioek eginiko ekarpenez osaturiko Fundazio-eta Patronatu-erakunde baten gehiengoa Administrazio horiek izendaturiko kideek dutenean, Fundazio horiek kontratuak sinatzean publikotasun, konkurrentzia, gardentasun eta objektibotasun printzipioei egokitu beharko zaizkie, egin beharreko eragiketaren izaera printzipio horiekin bateraezina denean izan ezik.

**2. artikulua.** Obra publikoen kontzesio-hartzailerik aplikatzea.

#### 1. (KENDUTA)

2. Kontzesio-hartzaile pribatuek hirugarren batekin izenpetzen dituzten kontratuak 64.3 artikuluan ezarritako lizitazio-iragarkari buruzko publikotasun arauen menpe jarri beharko dituzte, salbu eta kontratuaren prezioa 5.000.000 Ecu baino gutxiago bada, Balio Erantsiaren gaineko Zerga kendurik, edo esleitu izateko publikotasun gabe negoziaturiko prozedura erabiltzen bada.

Ondorio horietarako, ez dira hirugarrentzat joko kontzesioa eskuratzeko elkaturiko enpresak, ez eta haiei loturikoak ere.

3. Loturiko enpresatzat joko dira, zuzenean edo zeharka, kontzesio-hartzailearen eragin menperatzailea izan dezaketen horiek edo eragin hori haren gainean izan dezaketenak edo, kontzesio-hartzailea bezala, jabetza, finantza partaidetza edo bertako arauengatik beste enpresa baten eragin menperatzailearen nagusitasunpean dauden horiek.

Ulertuko da eragin menperatzailea dagoela enpresa batek, beste bati dagokionez, zuzenean edo zeharka:

a) Harturiko kapitalaren gehiena daukanean.

b) Enpresak luzaturiko partaidetzei dagozkien botorik gehienak daukanean.

c) Enpresaren administrazio, zuzendaritza edo kontrol organoko kideen erdiak baino gehiago izenda ditzakeenean.

4. Kontzesiorako eskaintzak aurkezten dituzten eta lehen aipaturiko inguruabarretan dauden enpresek, haiekin batera, enpresa lotuen zerrenda aurkeztu beharko dute.

**3. artikulua.** Salbuetsirikongo negozio eta kontratuak.

1. Foru Lege honen esparrutik at gelditzen dira:

a) Funtzionario publikoen zerbitzu harremanak eta lan legedian arauturiko kontratuak.

b) Administrazioak zerbitzu publiko bat ematek eratorritako harreman juridikoak, administrazio zerbitzu hori erabiltzeko ahalmena badaukate, erabiltzaileendako aplikazio orokorrekoa den tarifa, tasa edo prezio publikoa ordainduz.

c) Administrazio Publikoek, erakunde autonomoak edo Foru Lege honi atxikiriko zuzenbide publikoko entitateek elkarrekin edo beste administrazio, erakunde edo entitate publiko batzuekin izenpeturiko lankidetzak hitzarmenak.

d) Kasuan kasuko arauen arabera, Administrazioak zuzenbide pribatuari atxikiriko pertsona fisiko edo juridikoekin izenpetzen dituen lankidetzak hitzarmenak, haien xedea Foru Lege honetan edo administrazio arau berezietan arauturiko kontratuetan jasota ez badago.

e) Merkataritza, industri, finantza edo antzeko izaerako erakunde autonomoen zuzeneko jardueri buruzko hornidura-kontratuak, ukitzen dituzten ondasunak ondareko trafikora itzuliak izateko eskuratu badira, eraldaturik edo eraldatu gabe, kasuan kasuko helburuen arabera, sortu zituen arauak esleitu zizkien berezko eskumenak erabiltzen baldin badihardute erakunde horiek.

f) Arbitraje eta adiskidetze zerbitzuetarako kontratuak.

g) Balore negoziagarrien edo bestelako finantza tresnen salerosketa eta transferentziarekin Espainiako Bankuak emaniko zerbitzuekin zerikusia duten kontratuak. Halaber, ulertzen da kanpogan gelditzen direla, alde batetik, aplikatzeak diren aurrekontu arauetan aurreikusirik beharrak finantzatzeko buruturiko edozein motatako finantza eragiketen, hala nola, mailegu, kreditu edo antzeko izaerako, instrumentazioarekin zerikusirik duten kontratuak eta, bestetik, lehengo onoriozko interes tasen eta truke tasen arriskuak estaltzeko itunduriko finantza tresnekin zerikusirik duten kontratuak ere bai.

h) Administrazioaren eta zuzenbide pribatuko sozietateen arteko harremanak, horien kapitalean haren partaidetza nagusi bada, dela zuzenean, dela zeharka.

**IDAZATI BERRIA.** Europako Komunitatea Eratzeko Hitzarmenari jarraituz eginiko nazioarteko itunen ondoriozko kontratu eta hitzarmenak, elkarrekin obra bat burutzeko zein ustiatzeko diren hornidurei edo obrei buruzkoak, edo helburu gisa



elkarrekin proiektu bat burutzea zein ustiatzea duten laguntza-kontratuei buruzkoak.

2. Lehengo letretan aipatzen diren kasuak arau berezien bidez erregulatuko dira eta sor litezkeen zalantza eta hutsuneak konpontzeko Foru Lege honetako printzipioak aplikatuko dira.

**3. bis artikulua.** (Lehen 7. artikulua) Ituntzeko askatasuna.

Administrazioak egoki deritzen kontratu, itun eta baldintzak hitzartzen ahalko ditu, baldin eta interes publikoaren, ordenamendu juridikoaren edo administrazio oneko printzipioen kontrakoak ez badira, eta horien arabera bete beharko ditu, Foru Lege honek haren alde ezarritako eskumenak deusetan galarazi gabe.

**4. artikulua.** Kontratuaren izaera administratiboa eta pribatua.

1. Administrazioak izenpetzen dituen kontratuek izaera administratibo eta pribatua izanen dute.

2. Kontratu administratiboak dira:

a) Tipikoak, haien zuzeneko xedea obrak burutzea, zerbitzu publikoak kudeatzea, hornidurak eskuratzea bada, eta laguntzakoak.

b) Atipikoak edo bereziak, haien xedea lehen-goienak ez beste bada, baina izaera administratiboa baldin badute, Administrazioaren giro edo trafikoko zehatzari loturik egoteagatik, haren eskumen bereziko helburu publiko bat zuzenean edo berehala betetzeagatik, edo lege lerruna duen arau batek hala deklaratzegatik.

3. Administrazioak izenpetzen dituen gainerako kontratuek izaera pribatua izanen dute.

**5. artikulua.** Kontratu administratiboen araubide juridikoa.

1. Kontratu administratibo tipikoak, haien prestakuntza, esleipen, ondorio eta iraungipenari dagokionez, Foru Lege honen eta haren erregelamenduzko xedapenen bidez arautuko dira; haien ordez zuzenbide administratiboko gainerako arauak aplikatuko dira eta, horrelakorik ezean, zuzenbide pribatuko arauak.

Orden juridikzional kontentzioso-administratiboa izanen da eskudun bi aldeetan artean sor daitezkeen liskarrak konpontzeko.

2. Kontratu administratibo atipiko edo bereziak beren arauen bidez zuzenduko dira lehentasunez. Kontratu horien klausula administratibo partikularren pleguan agertaraziko da:

a) Kontratu administratibo bereziak direla.

b) Kontratatik betebeharra betetzeko eman behar dituen bermeak.

c) Administrazioak eskumena duela kontratua interpretatzeko, haren betetzearen ondoriozko zalantzak ebazteko, interes publikoko zioengatik aldatzeko, haren amaiera erabakitzeko eta ondorioak zehazteko.

d) Jurisdikzio kontentzioso administratiboak duela eskumena haien inguruan sor daitezkeen aferak aztertu eta ebazteko.

3. Mota ezberdineko beste administratibo batzuei dagozkien prestazioak dauzkaten kontratuei kontratu administratibo misto iritziko zaie. Horietan, sailkatzeko eta arautzen dituzten arauak aplikatzeko, ikuspuntu ekonomikotik garrantzi handiena duen prestazioa hartuko da kontuan.

**6. artikulua.** Kontratu pribatuaren araubide juridikoa.

1. Administrazioaren kontratu pribatuak, haien prestakuntza eta esleipenari dagokionez, kasuan kasuko arau administratiboen ezean, Foru Lege honen eta hori garatzen duten xedapenen bidez arautuko dira eta, haren ondorio eta iraungipenari dagokionez, zuzenbide pribatuko arauen bidez.

2. Salerosi, eman, errentan jarri eta trukatzeko kontratuak eta ondasun higiezinak, jabetza gorpuzgabeen eta balore negoziagarrien gaineko gainerako antzeko negozio juridikoen kontratuak kasuan kasuan aplikatzeko den ondareari buruzko legediaren bidez arautuko dira.

3. Orden juridikzional zibila izanen da eskuduna kontratu pribatuetan aldeetan artean sortzen diren liskarrak konpontzeko. Hala ere, egintza juridiko bereizgarritzat joko dira kontratuaren prestakuntza eta esleipenari dagokionean ematen direnak eta, horren ondorioz, orden juridikzional kontentzioso-administratiboan aurkatzen ahalko dira, jurisdikzio horri buruzko araudiaren arabera.

**7. artikulua.** (3 bis artikulua izatera pasatu da)

**7 bis artikulua.** Administrazioaren hitzarmenak.

1. Administrazioak izenpeturiko hitzarmenek, lege honetako 3. artikuluko 1. zenbakiko c) eta d) letretan aurreikusirikoez, honako hau zehaztu beharko dute:

a) Zer organo edo pertsonak izenpetu duten hitzarmena eta alderdi bakoitzak zer nolako gaitasun juridikorekin jardun duen.

b) Administrazio bakoitzak zer eskumen erabili duen.

- c) Finantzaketa.
- d) Hitzarmena betetzeko zer jarduketa burutzea erabaki den.
- e) Kudeaketarako erakunde bat ezartzea beharrezkoa den ala ez.
- f) Indarraldia. Horrek ez du luzapena eragotziko, hitzarmena izenpetu duten alderdiek hori erabaki baldin badute.
- g) Aurreko letran aurreikusitakoaz bestelako kausa baten ondoriozko iraungipena eta abian dauden jarduketak nola bukatu iraungipena gertatzen bada.
- h) Izenpetu beharreko hitzarmena interpretatzean eta betetzean sor litezkeen arazoak konpontzeko zaintza- eta kontrol-organo mistorik eratu den ala ez.
- i) Hitzarturiko eskubide eta betebeharren egokitasuna ebaluatzen duen oroitidazkia, kontuan hartu diren erreferentziak adieraziko dituen.
- j) Xedea kontratu bidez burutu ordez hitzarmen bidez burutzea onura publikorako garrantzitsua dela justifikatzea.

2. Hitzarmen bat izenpetu aurretik horri buruzko iragarkiak argitaratuko dira Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Komunitate honetan hedapena daukaten bi egunkaritan, eta hamabost eguneko epea emango dute beren burua interesatutzat daukatenak agertu ahal izan daitezen. Epe hori igaro ondoren, hitzarmena berrestearen komenigarritasunari buruz egokitzen hartzen dena erabakiko da, eta horren berri emango zaie prozesuan agerraldia egin dutenei, hala izan bada.

3. Iragarkian, laburki, hitzarmenaren edukiori buruzko zehaztasunak konstaraziko dira.

4. Kontratuen eta Hitzarmenen Erregistro Publikoan gordeko dira hitzarmenak.

## II. KAPITULUA

### Administrazioaren kontratuen xedapen amankomunak

**8. artikulua.** Kontratuen betebeharrak.

1. Administrazioaren kontratuak publikotasun eta konkurrentzia printzipioei egokituko zaizkie, salbu eta Foru Lege honetan ezarritako salbuespenetan eta, beti ere, berdintasun eta bereizkeriarik ezeko printzipioei.

2. Foru Lege honetan aurreikusirik salbuespenetan izan ezik, hauexek dira kontratuak egiteko baldintzak:

- a) Kontratazio-organoa eskuduna izatea.

- b) Kontratista esleipen hartzailak gaitasuna izatea.

- c) Kontratuaren objektua zehazturik egotea.

- d) Prezioa ezarritik egotea.

- e) Behar adinako kreditu egokia egotea, kontratuaren ondorioz Administrazioarendako eduki ekonomikoko eginbeharrak sortzen badira.

- f) Espedientea izapidatzea. Horri bera arautuko duten klausula edo baldintzen pleguak eta gastuaren aurrekontuaren zenbatekoa gaineratuko zaizkio.

- g) Eduki ekonomikoko egintza administratiboak alde aurretik fiskalizatzea.

- h) Organo eskudunak gastua onestea.

- i) Kontratua formalizatzea.

**9. artikulua.** Abstenitzea eta errefusatzeta.

Kontratazio prozeduretan parte hartzen duten agintari eta Administrazioaren zerbitzuko langileek abstenitu egin beharko dute edo ezetsiak izaten ahalko dira, Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Guziendako Administrazio Prozedurari buruzko Legean ezarritako moduan.

**9 bis artikulua.** Kontratuaren objektua.

Kontratu administratiboaren objektua zehaztu egin beharko da eta justifikatu egin beharko da, kontratazio-espeditentean, kasuan-kasuko zerbitzu publikoaren helburuak betetzeko beharrezkoa dela.

**10. artikulua.** Kontratuen prezioa.

1. Kontratuek beti ere prezio zehatza izanen dute, merkatura egokitua, nazioko monetan adieraziko dena eta kontratistari egiazki eginiko prestazioaren arabera eta hitzartuarekin bat ordainduko zaiona. Kontratuan ezarritako baldintzek atzerriko monetan ordaintzera behartzen dutenean, nazioko monetako guztirako prezioaz gain, haren gehieneko zenbatekoa eta dibisa mota ere adierazi beharko dira.

2. Foru Lege honen testuan kontratuen zenbatekoa aipatzen den bakoitzean, ulertuko da haieran Balio Erantsiaren gaineko Zerga sarturik dagoela, espreski kontrakoa adierazten denean izan ezik.

3. Kontratuen prezioen berraztertzea Foru Lege honetan ezarritakora egokituko da.

4. Prezioaren ordainketa geroratu debekatu da, Foru Lege batek espreski baimentzen badu izan ezik.

5. Administrazioak kontratuak finantzatzeko dituzten prestazioaren exekuzioak behar duen erritmoa egokituz. Helburu horretarako, bai urteko sariak programatzean bai exekutatzean ere beharrezko diren neurriak hartu beharko ditu kontratazio-organoak.

### III. KAPITULUA kontratazio-organoak

**11. artikulua.** Kontratuak izenpetzeko eskumena.

1. Kontratuak Foru Komunitateko Administrazioaren izenean eta hura ordezkatzuz izenpetzeko ahalmena arau hauek zuzenduko dute:

a) Eskumen orokorra kontseilarietara dagokien kasuan kasuko eskurantzaren barruan.

b) hornidura-kontratuaren, kontratazio-organoa Ekonomi eta Ogasun Kontseilariaren izenean da. Nafarroako Gobernuak, aipaturiko Kontseilariak hala proposaturik, eskumena beste Kontseilari, Erakunde Autonomo eta loturiko edo menpeko Zuzenbide Publikoko Entitateei transferitu ahalko die. Hornidura-kontratuak izenpetzeko eskumena transferitzen duen Foru Dekretua, baita horren errebokazioa ere, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira.

LETRA BERRIA) Foru Komunitateko Administrazioaren, Erakunde Autonomoen eta horiei loturiko edo horien menpeko Zuzenbide Publikoko Entitateen esparruan, Nafarroako Gobernuak, Ekonomi eta Ogasun Kontseilariak hala proposaturik, kontratazio zentralizatua ezarri ahalko du xede diren prestazioen ezaugarrien arabera egoki jotzen diren laguntza-kontratuaren. Zentralizazioari buruzko Foru Dekretua eta horren errebokazioa Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira.

c) Kontratatzearen eskumenak banatzen ahalko dira, Nafarroako Gobernuak Foru Dekretu bidez hala erabakitzen bada.

d) Departamentuetan eta Erakunde Autonomoetan kontratazio batzordeak eratu ahalko dira. Horiek kontratazio-organo gisa arituko dira, erregelamendu bidez zehaztuko diren baldintzak, mugak eta osaera errespetatuz. Kontratazio batzordeetako kideen artean nahitaez egonen dira Zuzenbideko lizentziatu bat, titulazio hori beharrezkoa duen postua beteko duena, eta Kontuhartzaile bat.

2. Foru Komunitateko Administrazioari loturiko edo horren menpe dauden erakunde autonomo eta zuzenbide publikoko entitateetan, kontratuak izenpetzeko eskumena haien legezko ordezkarietara dagokie, baina, 100.000.000 pezetatik goitiko kon-

tratuarentzat, atxikirik daudeneko departamentuetan titularraren alde aurreko baimenaren beharra edukiko dute.

3. Nafarroako toki entitateetan eta Nafarroako Unibertsitate Publikoan kontratatzearen eskumena kasuan kasuko arauen arabera ezarriko da.

**12. artikulua.** Nafarroako Gobernuaren baimena.

1. Foru Komunitateko Administrazioaren, haren erakunde autonomoen eta hari loturiko edo haren menpe dauden zuzenbide publikoko entitateen kontratazio-organoek Nafarroako Gobernuaren baimena beharko dute kontratu hauek izenpetzeko:

a) 200.000.000 pezetatik goitiko aurrekontua dutenak eta zenbateko txikiagoak ere bai, kontratazio-organoak, kontratuaren garrantziagatik, Nafarroako Gobernura igortzea erabakitzen duenean, horrek baimen dezan.

b) Urte anitzetako kontratuaren, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko Foru Legean aurreikusitakoarekin bat.

Nafarroako Gobernuak eskatu ahal izanzen du, hala nahi bada, beste edozein kontratuen berri izatea eta horretarako baimena ematea.

2. Lehengo idazatian aurreikusitakoarekin bat, Nafarroako Gobernuaren baimena behar duten kontratuaren, baimen hori kontratazio espedientearen onetsi aitzin emanen da. Hori, gastuaren onespenez bezala, kontratazio-organoari dagokio.

3. Nafarroako Gobernuak baimentzen dituen kontratuaren, haren baimena ere beharko da, amaitzea ekar lezaketan aldaketak egiteko eta, hala bada, amaitzeko ere.

## II. TITULUA Kontratu administratibo tipikoak

### I. KAPITULUA Kontzeptua eta oinarriko araubidea

#### 1. Sekzioa obra-kontratuaz

**13. artikulua.** Obra-kontratuaren xedea.

Foru Lege honen ondorioetarako, obra-kontratatzat jotzen da Administrazioak eta enpresari batek izenpetzen dutena, haren xedea baldin bada:

a) Higiezin izaera duten ondasunak egitea, hala nola, errepedeak, burdinbideak, ubideak, urtegiak, eraikinak, gotorlekuak, aireportuak, monu-

mentuak, instalazioak eta ingeniari-tza zibileko beste edozein antzeko.

b) Lurzoruaren edo azpilurraren forma edo funtsa aldatzen duten lanak burutzea, hala nola, dragatuak, zundaketak, prospekzioak, injekzioak, ingurugiroaren gaineko eraginaren zuzenketa, urbanizazio-jarduketak eta beste antzeko batzuk.

c) Aurreko letretan zehazten direnak eraberritu, konpondu, zaindu edo eraistea.

**14. artikulua.** Obra publikoen kontzesio kontratuaren kontzeptua.

1. Obra publikoen kontzesio kontratutzat jotzen da, aurreko artikuluko edukietarikoren bat xede duela, esleipen hartzailearen aldeko kontraprestazioa obra ustiatzeko eskubidea duena edo eskubide hori ezezik prezio bat ere hartzekoa duena.

2. Kontzesioak obra-kontratu-tako arau orokorre-ri atxikiko zaizkie eta, partikularzki, haien publikotasunari buruzkoei, 66. artikuluan aurreikusirik berezitasunak berezitasun.

3. Kontzesio-hartzaileak 104. artikuluan ezarri-rikora egokitu beharko du obraren ustiapenean.

## 2. Sekzioa

### Zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratuak

**15. artikulua.** Araubide orokorra eta kontratazio motak.

1. Zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratuak dira Administrazioak pertsona natural edo juridiko bati bere eskumeneko zerbitzu publiko baten kudeaketa esleitzeko helburua dutenak, baldin eta haien eduki ekonomikoagatik enpresari partikularrek ustia baditzakete.

Botere publikoei dagokien agintaritzaren erabil- tzea dakarten zerbitzuak ez dira behin ere zehar- kaka kudeaketaren bidez ematen ahalko.

2. Zerbitzu publikoak kudeatzeko zerbitzuak Foru Lege honen bidez arautuko dira, 95, 96, 118 eta 125. artikuluetan ezarritakoa izan ezik, eta kasuan kasuko zerbitzuko xedapen berezien bidez, hari kontra egiten ez badiote.

3. Foru Lege honetako xedapenak ez dira apli- katzekoak izanen zerbitzu publikoaren kudeaketa helburu horretarako sorturiko zuzenbide publikoko entitateen bidez egiten deneko kasuetan, ez eta hura zuzenbide pribatuko sozietate bati esleitzen zaioneko kasuetan ere, haren kapitalean Adminis- trazioaren edo horren ente publiko baten partaide- tza bakarra edo nagusia bada.

4. Zerbitzu publikoen kudeaketaren kontrata- zioa mota hauei edozeinetara egokituko da:

a) Kontzesiora. Horren bidez enpresariak bere gain hartuko ditu zerbitzua kudeatzearen arris- kuak.

b) Kudeaketa interesatura. Horren bidez, Administrazioak eta enpresariak zerbitzuaren ustiapenaren emaitzetan parte hartuko dute, kon- tratuak ezartzen duen proportzioan.

c) Kasuan kasuko zerbitzu publikoa osatzen duten prestazioen antzekoak ematen aritu den pertsona natural edo juridikoarekiko itunera.

d) Errentamendura.

e) Ekonomia mistoko sozietatera. Horretan, Administrazioak, bere bidez edo entitate publiko baten bidez, pertsona natural edo juridikoekin batera hartuko du parte.

5. Zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratuak kontratatzeko espedientean argi eta garbi zehaztu beharko da kudeaketaren esparrua, bai eginkizu- nei dagokienez, bai lurraldeari dagokienez.

**16. artikulua.** Iraupena.

Zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratu- tan nahitaez haien iraupena eta izan litzakeen luzape- nena ezarriko da. Epe osoa, luzapenak barne, ez da behin ere hirurogeita hamabost urte baino gehiagokoa izaten ahalko, toki-araubideko lege- dian zerbitzu publikoak zeharka kudeatzeko eza- rritako gehieneko epearen kalterik gabe

## 3. Sekzioa

### hornidura-kontratuak

**17. artikulua.** Kontzeptua.

1. Foru Lege honen ondorioetarako, hornidura- kontratuak dira produktu edo ondasun higigarriak erosi, errentan hartu edo eskuratzea xede dute- nak, jabetza gorpuzgabei eta balore negoziaga- rriei dagozkienak izan ezik, horiek kasuan-kasuan aplikatzeko den ondare legediaren bidez arautu- ko baitira.

2. Beti ere, hauexek hartuko dira hornidura- kontratutzat:

a) Enpresaria ondasun anitz elkarren ondoren eta prezio unitarioan ematera behartzen dutenak, kontratua izenpetzean zenbateko osoa guztiz zehazturik egon gabe, entregak Administrazioaren beharren arabera izateagatik.

b) Informazioa tratatzeko ekipo eta sistemak, haien dispositiboak eta haien programak erosi eta errentan hartzea eta azken horiek erabiltzeko eskubidea lagatzea.

c) Fabrikaziokoak. Horien bidez enpresariak eman beharreko gauzak Administrazioak alde aurretik ezarritako ezaugarri berezien arabera prestatu behar dira, Administrazioa, osorik edo partzialki, behar diren materialak aurkeztera beharturik badago ere.

3. Klausula administratibo partikularren kasuan kasuko pleguan kontratazio-organoak ezartzen dituen obra-kontratuko arau orokor eta bereziak zuzenean aplikatuko zaizkie fabrikazioko hornidurei, horien publikotasunari buruzkoak izan ezik, beti ere, hornidura-kontratuarekin bat etorriko direnak.

Mota horretako kontratuak Europako Batasuneko kideak ez diren atzerriko estatuarekin izenpetzen direnean eta haien objektua Espainiatik kanpo fabrikatzen edo hortik kanpotik ekartzen denean, lege honen bidez arautuko dira, bi aldeek nazioarteko merkataritzan indarra duten arau eta ohiturekin bat erabakitzen dutena deusetan galarriz gabe.

4. Halaber, informazioa tratatzeko ekipoak eta sistemak, haien dispositiboak eta programak mantentzea ere horniduratzat joko da, erosketarekin edo errentamenduarekin batera kontratatzen denean.

#### **18. artikulua.** Informazioaren tratamendua.

Foru Lege honen aplikazioaren ondorioetarako, ulertuko da:

a) Informazioa tratatzeko ekipoak direla makinak edo makina eta dispositibo multzoak, daudela elkarri loturik edo ez, informazioaren erabilera helburu batzuetarako prestatzeko behar diren eragiketak burutzeko gauza badira.

b) Ordenagailuko programa dela jarraibide edo adierazpide sekuentzia oro, sistema informatiko batean, zuzenean edo zeharka erabilia izateko bada, edo eginkizun edo jarduera bat egiteko edo halako emaitza bat lortzeko, edozein delarik ere hura adierazten eta finkatzen deneko era.

c) Programazioa dela programak sortu, aztertu, idatzi eta probatzeko eginkizunen multzoa, hala nola zerbitzu bat abian jartzeko eta klausula partikularren kasuan kasuko pleguan zehazten diren lan guztiak burutzeko behar diren prestaketa jarduerak ere bai.

d) Informazioa tratatzeko sistemak direla informazioa sartu, prozesatu, bildu, atera eta kontrolatzeko gai diren ekipo eta programez osaturiko sistemak, datu bidezko eragiketen sekuentzia bat burutzea xede dutenak.

#### **19. artikulua.** Errentamendua eta luzapena.

1. Errentamendu kontratuan, errentan ematen duenak, kontratuak indarra duen epean, haren objektua mantentzeko betebeharra hartuko du bere gain. Administrazioak mantenimenduaren kanon gisa ordaindu behar dituen diru kopuruak, horrelakorik ordaindu behar izatekotan, errentamenduaren prezioa osatzen dutenetatik bereizita ezarriko dira.

2. Errentamendu kontratuan ez da luzapen taziturik onartuko eta luzapen espresua ez da behin ere izanen aurreko kontratualdiaren erditik goitiko.

### **4. Sekzioa** **Iaguntza-kontratuaz**

#### **20. artikulua.** Kontzeptua.

1. Iaguntza-kontratuak dira Administrazioari edozein zerbitzu ematea xede dutenak, partikularzki:

LETRA BERRIA) Aholkularitza eta gomendio-emate jarduerak burutzea.

a) Teknika, antolamendu edo gizarte izaerako txosten, azterketa, plan, proiektu edo aurreproiektuen idazketa prestatzea edo horretan Iaguntzea.

b) Obrak eta instalazioen burutze edo mantentzea, antolamendu sistemen ezarpena eta, orokorrean, Administrazioak kontratatzen dituen prestazioak zuzendu, ikuskatu edo kontrolatzea.

c) Ondasunak, ekipoak eta instalazioak mantendu, zaindu, garbitu eta konpontzekoak.

d) Administrazioarendako neurritan garaturiko ordenagailu programak, hark askatasun osoz erabiltzekoak izanen direnak.

2. Botere publikoei dagokien agintaritza erabiltzea dakarten zerbitzuak ez dira kontratu horien xede izaten ahalko.

#### **21. artikulua.** Iraupena.

1. Iaguntza-kontratuak ez dute edukitzen ahaliko lau urtetik goitiko indarraldirik, Administrazio kontratugileari aplikatzeko den aurrekontu-araun xedaturiko baldintzekin eta mugekin. Hala ere, kontratuan berean haren luzapena aurreikus-ten ahalko da, bi aldeak ados daudela, kontratua bukatu aitzin. Horrek, luzapenak barne, sei urteko iraupena edukitzen ahalko du, gehienez ere.

Aurrekoa deusetan galarriz gabe, kontratu horiek obra edo hornidura-kontratuaren osagarri direnean, denbora gehiago irauten ahalko dute, baina kontratu nagusiaren iraupena gaintu gabe, salbu eta kontratu nagusiaren kitapenarekin loturiko lanak dauzkaten kontratuetan, horien azkene-



ko epea harena baino luzeagoa izanen baita, lan horiek burutzeko behar adina, alegia.

Ondorio hauetarako, lan osagarritzat joko dira kontratu nagusiaren xede diren prestazioak egoki egiteko beharrezkotzat jotzen den xedea dutenak.

2. Administrazioaren defentsa juridiko eta judizialerako kontratuek beharrak modu egokian beteitzeko behar den luzapena izanen dute.

## II. KAPITULUA Administrazioaren eskumenez

### 22. artikulua. Administrazioaren eskumenak.

1. Foru Lege honetan aipaturiko mugei, bete-beharrei eta ondorioei loturik, kontratazio-organok kontratuak interpretatzeko, horien betetzeak sor ditzakeen zalantzak ebazteko, horiek interes publikoko zioengatik aldatzeko, horiek amaiaztea erabakitzeke eta horren ondorioak zehazteko eskumenak dauzka.

Kasuan kasuko erabakiak errekurritu ahalko dira, administrazio-errekurtsoei buruzko foru xedapenetan ezarritakoari jarraituz.

Espedientean entzun eginen zaio kontratistari eta kontratazio-organoren zerbitzu juridikoak txostena luzatuko du.

2. Kasu hauetan, nahitaezkoa izanen da Estatuko Kontseiluak txostena ematea:

a) Interpretazio, deuseztasun eta amaiazteari dagokienean, kontratista aurka agertzen denean.

b) Aldaketetan, haien zenbatekoa, bakarrik edo besterekin batera, kontratuaren esleipen-prezioaren 100eko 20 baino gehiago denean, prezio hori 1.000.000.000 pezeta edo gehiago izanik.

### 23. artikulua. Errekurtsoak eta arbitraia.

1. Bide administratiboari bukaera ematen dioten erabaki guztien aurka bidezko izanen da errekurtso kontentzioso administratiboa, jurisdikzio hori arautzen duen legean xedaturikoaren arabera.

2. Arbitrajearen menpean jartzea Ogasun Publikoari buruzko Foru Legean edo beste Administrazio Publiko batzuen kasuan kasuko arauetan ezarritako bete-beharrei lotuta egonen da.

## III. TITULUA Administrazioarekin kontratatzeke bete-beharrak

### I. KAPITULUA Enpresen gaitasuna eta kaudimena.

#### 24. artikulua. Enpresen gaitasuna.

1. Pertsona natural edo juridikoek, espainol nahiz atzerritar, kontratatzen ahalko dute Administrazioarekin, jarduteko gaitasun osoa badaukate eta kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionala frogatzen badute. Azken bete-behar horren ordezkasun kasuko sailkapena erabiliko da, hori eskatzen ahal den kasuetan.

Sozietate talde bateko pertsona juridiko gainartzaileen kasuan, taldeko sozietateak hartzen ahalko dira kontuan, pertsona juridiko gainartzaileen gaitasun ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionala edo, hala bada, behar den sailkapena frogatzeko, baldin eta kontratuak bete-arazteko behar diren sozietate horien baliabideak egiazki eskura dauzkala frogatzen badu pertsona juridiko gainartzaile horrek.

2. Pertsona juridikoak diren enpresen jarduteko gaitasuna Merkataritza Erregistroan inskribaturiko eratze eskrituraren edo, hala bada, aldaketa eskrituraren bidez frogatuko da, Merkataritza Erregistroan inskribaturik egotea aplikatzeko den merkataritza legediaren arabera eskatzen ahal denean. Eskatuko ez balitz, enpresaren jarduerari buruzko arauak agertzen direneko eratze edo aldaketa eskritura edo agiriaren, estatutuen edo eratze egintzaren bidez frogatuko litzateke aritzeko gaitasuna, hala bada, kasuan kasuko erregistro ofizialean inskribaturik.

3. Europako Komunitateko kideak diren Estatuetako enpresa ez espainolak direnean, aski izanen da lanbide edo merkataritza erregistro batean inskribaturik daudela frogatzea, bete-behar hori kasuan kasuko Estatuko legediak eskatzen denean.

4. Espainiak kasuan kasuko Estatuan daukan ordezkari diplomaikoak luzatuko duen ziurtagiriaren bidez frogatuko dute atzerriko gainerako enpresek beren jarduteko gaitasuna.

5. Kaudimen ekonomiko, finantzario, tekniko edo profesionala frogatu behar den kasuetan, kontratazio-organok iragarkian zehaztu eginen dute zer egiaztatze baliabide erabiliko diren hurrengo artikuluetan aipatzen direnen artetik.

**25. artikulua.** Gaitasun ekonomiko eta finantzarioa.

1. Enpresariaren gaitasun ekonomiko eta finantzarioa baliabide hauetarikoren bat edo batzuen bidez frogatzen ahalko da:

a) Finantza erakundearen txostenaren bidez edo, hala bada, lan arriskuetaarako kalteordaineko aseguruua dagoela frogatzen duen agiriaren bidez.

b) Sozietateak izanez gero, balantzeak edo balantzeen laburpenak aurkeztuz, haiek ezarririk daudeneko estatueta horiek argitaratzea nahita-ezkoa bada.

c) Enpresak azken hiru ekitaldietan egindako negozio guztien eta obra, hornidura, zerbitzu edo lanen kopuruari buruzko deklarazioaren bidez.

d) Klausula administratibo partikularren ple-guan edo Administrazioak ezartzen dituen baldin-tzetan eskatzen den beste edozein agiriren bidez.

2. Justifikaturiko zioengatik, enpresari batek eskatzen zaizkion erreferentziak aurkez ez badi-tzake, beste edozein agiriren bidez frogatzen ahalko du bere gaitasun ekonomiko eta finantzarioa, baldin eta Administrazioak horri aski baderit-zo.

**26. artikulua.** Kaudimen tekniko obra-kontra-tuetan.

obra-kontratueta enpresariaren kaudimen tekniko baliabide hauetariko bat edo batzuen bidez frogatzen ahalko da:

a) Enpresariaren eta enpresako koadroen titulu akademikoaren eta esperientziaren bidez eta, partikularzki, obren arduradunaren bidez.

b) Azken bost urteetan eginiko obren zerrenda eta horrekin batera, garrantzitsuenen kasuan, ongi burutu direla frogatzen duten agiriak.

c) Enpresariak obrak burutzeko edukiko dituen makinak, materiala eta ekipo tekniko adierazten dituen deklarazioa.

d) Enpresako urteko batezbesteko giza baliabi-deak eta azken hiru urteetako zuzendaritza talde-en garrantzia adierazten dituen deklarazioa.

e) Enpresak obrak burutzeko eskura dauzkan teknikari edo unitate teknikoak adierazten dituen deklarazioa, enpresan sarturik daudela edo ez.

**27. artikulua.** Hornidura-kontratuetaarako kau-dimen tekniko.

hornidura-kontratueta, enpresariaren kaudimen tekniko honako bide hauetariko bat edo batzuen bitartez egiaztatatu beharko da:

a) Azken hiru urteetan egindako horniketaren garrantzitsuenen zerrendaren bidez, horien pre-

zioa, data eta destinoa (publikoa edo pribatua) adieraziz, guztien ziurtagiriekin batera.

b) Talde teknikoaren deskribapena, kalitatea bermatzeko hornitzaileak hartzen dituen neurriak eta enpresak azterketa eta ikerketetarako dituen baliabideak azalduz.

c) Kontratuan parte hartuko duten teknikariak edo unitate teknikoak, enpresan integratuak egon ala ez, adieraziz, batez ere kalitatearen kontrolaz arduratuko direnak.

d) Ekarri beharreko produktuen lagin, azalpen eta argazkien bidez.

e) Kalitatearen kontrolaz arduratzen diren insti-tutu edo zerbitzu ofizial edo homologatuek eman-dako ziurtagirien bidez, artikulua hainbat zehaz-tapen edo ararekin bat datozela egiaztatzen dutenak.

f) Administrazioak edo, horren izenean, esku-mena duen Estatuaren erakunde ofizial batek egindako kontrolaren bidez (enpresaria haren barruan baldin badago), beti ere erakunde horren erabakia egonda, ekarri beharreko produktuak bereziak direnean edo, salbuespen gisa, helburu partikularra dutenean. Kontrol hori produzitzeko ahalmenen ingurukoa izanen da eta, beharrezkoa balitz, enpresariak azterketa eta ikerketak egiteko duen ahalmenaren ingurukoa. Enpresariak kalita-tea kontrolatzeko hartu dituen neurrien gaineko kontrola ere eginen da.

**28. artikulua.** Gainerako kontratuetaarako gai-tasun tekniko edo profesionala.

Foru Lege honek arautzen dituen gainerako kontratueta, enpresariaren gaitasun tekniko edo profesionala haien ezagutza tekniko, esperientzia, eraginkortasun eta fidagarritasunaren bidez balo-ratuko da. Hori egiaztatze honako baliabideren bat edo batzuk erabili ahalko dira, kontratu-mota-ren arabera:

a) Enpresariaren eta enpresaren zuzendaritzako kideen titulazio akademiko eta profesionalak, batez ere kontratu exekutatzearen ardura izanen duten langileenak.

b) Azkeneko hiru urteetan egindako zerbitzu eta lan garrantzitsuenen zerrenda, horien prezioa, data eta onuradun publiko edo pribatuen izenak adieraziz.

c) Kontratuan parte hartuko duten teknikariaren edo unitate teknikoaren deskripzioa, kontratistaren enpresan zuzenean integratuak egon ala ez, batez ere kalitatearen kontrolaz arduratuko dire-nena.

d) Azkeneko hiru urteetan, urtean batezbesteko langile kopurua zein den eta zuzendaritza langileen plantila azaltzen duen deklarazio bat.

e) Kontratua aurrera eramateko enpresariak dituen instalazioak, materiala eta talde teknikoak deklaratzeko.

f) Enpresariak kalitatea kontrolatzeko harturiko neurriak buruzko deklarazioa, baita azterketa eta ikerketetarako dituzten baliabideei buruzkoa ere.

g) Zerbitzu edo lan konplexuak direnean edo, salbuespen gisa, helburu berezia dutenean, kontratazio-organismoak edo, horren izenean, enpresaria sartuta dagoen Estatuko erakunde eskudun ofizial edo homologatu batek egindako kontrola, bertan erakunde horrek enpresariaren gaitasun teknikoak eta, beharrezkoa balitz, azterketa eta ikerketetarako dituen baliabideak eta kalitatea kontrolatzeko neurriak aitortuz.

### **29. artikulua.** Kontratatzeko debekuak.

Honako egoeraren batean dauden pertsonak ezin izanen dute, inolaz ere, kontratu harremanik izan Administrazioarekin:

a) Epai irmoaren bidezko zigorra izatea, haue-tariko delituen bat dela kausa: faltsukeria, jabetzaren aurkako delituak, funtzionario eroskeria, diru publikoak gaizki erabiltzea, influentzia-trafikoa, funtzionarioek debekaturik dituzten negozioetan aritzea, isilpeko informazioa jakinaraztea edo lehentasunezko informazioa erabiltzea, edo Ogasun Publikoaren aurkako delituak.

Kontratatzeko debekuak pertsona juridikoak ere hartuko ditu, beren administratzaile edo ordezkariak arestian aipatu egoeran daudenean, eta karguan edo ordezkariak postuan segitzen baldin badute, pertsona juridiko haien izenean edo haien onurarako egindako jarduketan ondorioz edo delituaren subjektu aktibo izateko eskatzen diren baldintza, ezaugarri edo harremanak tartean dituzten jarduketan ondorioz.

b) Porrot egoera, hartzekodunen konkurtso egoera, edozein prozeduratan kaudimen gabeko kobraezin edo eskuhartze judizialaren menpeko deklaratu izana; kendu eta itxaroteko espedienteak hasia izatea edo ordainketak eteteko edo porrot egoera edo hartzekodunen konkurtsoa deklaratzeko eskaera judiziala eginga izatea, birgaitzen ez dituzten bitartean, hori posible den kasuetan.

c) Administrazioarekin egindako edozein kontraturen amaiarazte irmoa behartu izana, errudun deklaratuak izan diren kausa bat dela-eta.

d) Epai irmoaren bidezko zigorra izatea, lane-ko segurtasun eta higienaren aurkako delituen-

gatik edo laneko askatasun eta segurtasunaren aurkako delituengatik. Halaber, irmoki zigortua edo zehatua izatea, merkatuaren diziplinaren arloko, lanbide arloko edo minusbaliatuak lanean integratzearen arloko delitu edo arau-hauste larria dela kausa edo, arlo sozialeko arau-hauste eta zehapenei buruzko apirilaren 7ko 8/1988 Legean xedatutakoaren arabera, arlo sozialeko delitu edo arau-hauste oso larria dela kausa. Zigor penala denean, artikulua honetako a) letraren bigarren leerroaldean adierazitakoa aplikatuko da.

e) Pertsona fisikoa edo pertsona juridiko horren administratzaileak, kasuan kasuko legedia berariazkoaren arabera, kontratatze bategarritasun egoeran egotea edo Hauteskundeen Araubide Orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoan agertzen diren kargu hautetsietakoren bat izatea, bertan ezarrita dagoen bezala.

Debekuak hartuko ditu, halaber, aurreko leerroaldean adierazi diren pertsonen ezkontideak, bizikidetzak afektiboko antzeko harremana duten pertsonak eta haien ondorengoak, azken hauen legeko ordezkariak haien esku baldin badago.

f) Indarra duten xedapenek ezartzen dituzten zerga ordainketak edo Gizarte Segurantzakoak eguneraturik ez izatea, erregelamendu bidez ezarrita dagoenaren arabera.

g) Foru Lege honek edo honen garapen arauak eskatzen dituzten deklarazioak Administrazioari aurkezteko orduan faltsukeria larria egin izana.

h) Emandako sailkapena bertan behera uzteko erabakietan edo Administrazio Publikoaren batekin kontratatze ezgaitasun deklarazioetan enpresariari ezarritako beharkizunak ez betetzea.

i) Espainiarrak ez, Europako Batasuneko kide diren beste estatu-estatu enpresariak badira, lanbide edo merkataritza erregistro batean inskribatuta ez egotea, enpresari horiek lanean non diharduten, estatu hartako legeek ezarritako baldintzetan.

j) Dirulaguntza eta laguntza publikoaren arloko arau-hausteengatik irekitako administrazio prozeduraren ondorioz eta tributu arloko arauak haustearen ondorioz kontratatze debekua ekarri duen zehapena jasoa izatea.

k) Behar bezala sailkatuak ez egotea, kasua bada, edo nahiko kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionalik ez frogatzea.

**30. artikulua.** Deklarazioa egiteko prozedura eta ondorioak.

1. Aurreko artikuluko b), e), f), i), j) eta k) letratan bildu diren egoeren ondoriozko kontratatze

debekuak kontratazio-organoek zuzenean onartuko dituzte eta indarra izanen dute debeku horren eragile izan den egoerak irauten duen bitartean.

2. Aurreko artikuluko a) eta d) letretan aurreikusita dauden egoeren ondoriozko kontratatze debekuak Estatuko legedian aurreikusitakoari egokituko zaizkio haien aplikazioari eta eragin eremuari dagokienean.

3. Aurreko artikuluko c) eta g) letretan aurreikusitako kasuengatik kontratatze debekua deklaratzeko eskumena Administrazio kontratugileari dagokio eta artikuluko bereko h) letretan aurreikusitako kausarengatik bada, hautsi den debekua ezarri zuen Administrazioari. Saillkapena eteteko erabakia urratu denean, Ekonomi eta Ogasun kontseilariak izanen du ardura hori, saillkapena eteteko erabaki hura berak ezarri zuen kasuetan.

Kontratatze debekuaren deklarazioak eragina izanen du erabaki hori hartzen duen Administrazioaren esparruan bakarrik, salbu eta saillkapena eteteko deklarazioak dakartzan beharkizunak urratzeari buruzkoak, horren eragina Foru Komunitateko kontratazio-organo guztietara hedatuko baita. Kontratatze debekuaren deklarazioa Estatuko Administrazio Orokorriari jakinaraziko zaio, interes publikoei eragindako kaltea ikusita, debeku horren izaera orokorra deklaratu dezan.

Idazati honetan aipaturiko kausetan oinarrituriko kontratatze debekua deklaratu ahal izateko Foru Komunitateko Administrazioak jarraitzen dituen prozeduretan, Administrazio Kontratazioarako Batzorde Aholkulariaren eginkizuna izango da erabaki-proposamena formulatzea

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren, haren erakunde autonomoen eta hari loturiko edo haren menpeko zuzenbide publikoko entitateen esparruan kontratatze debekua deklaratzeko eskumena Ekonomi eta Ogasun kontseilariari dagokio.

Aurreko c), g) eta h) letretan aipaturiko kasuetan oinarritzen diren kontratatze debekuen deklarazioak Foru Komunitatean ere aplikatuko dira, Estatuko Administrazio Orokorriari eman baldin baditu edo, debekuaren eragin esparrua autonomikoa edo tokikoa bada ere (Nafarroatik kanpoko alegia), Administrazio horrek eragin orokorrekoak deklaratu baditu.

4. Aurreko idazatian aipatu debekuaren norainokoa erregelamendu bidez ezarriko den moduan balioetsiko da, kasua bada, enpresariak dolua edo ageriko fede gaiztoa izan ote duen eta interes publikoari eragindako kaltea nolakoa izan den ikusi-

sita. Debekua, beti ere, bost urtekoa izanen da, gehienez.

5. Artikulu honetan ezarritakoa aplikatzearen ondorioetarako, eskumena duten agintari eta organoek Administrazio Kontratazioarako Batzordeari jakinarazi beharko dizkiote dagozkion prozeduretan izandako epai, zehapen eta ebazpen irmoak, artikuluko honetan aipatu espedienteak edo Ekonomi eta Ogasun kontseilariak eman zuen saillkapena bertan behera uzteko espedientea bidera daitezen, edo egoki den erabakia har dadin.

Halaber, Administrazio Kontratazioarako Batzordeak Estatuko Administrazio Kontratazioarako Batzorde Aholkulariari eta autonomi erkidegoetan eskumena duten organoei jakinarazi beharko dizkie Foru Komunitatearen esparruan harturiko zehapen eta ebazpen irmo guztiak, kontratatze debekua edo saillkapena bertan behera uztea ekar lezaketenak, alegia.

Erregelamendu bidez zehaztuko diren moduan eta epeetan, Administrazio Kontratazioarako Batzordeak igorri egingen die lege honen aplikazio-eremuan aurkitzen diren Administrazioei kontratatze debekua daukaten pertsona fisiko edo juridikoen zerrenda.

6. Aurreko artikuluan aipatu diren Administrazioarekin kontratatze debeku-egoeretan ez daudela frogatzeko, enpresariak testigantza judiziala zein administrazio ziurtagiria erabil dezakete, kasuan-kasuan. Agiri hori agintari eskudunak luzatzerik ez duenean, haren ordezkari erantzukizun deklarazio bat aurkez daiteke, administrazio agintari baten, notario publiko baten edo erakunde profesional kualifikatu baten aurrean emana edo, bestela, agintari judizial baten aurrean emandako erantzukizun deklarazioaren bidea erabili ahalko dute, baina beti ere Europako Batasunaren kide diren estatuetakoen enpresak direnean eta aukerabide hori kasuan kasuko estatuko legedian aurreikusita baldin badago.

**31. artikulua.** Gaitasun edo kaudimen ezaren eta kontratatze debekuen ondorioak.

Jarduteko gaitasunik edo kaudimenik eza duten pertsonen aldeko eta, halaber, 29. artikuluan aipatu kasuren batean daudenen aldeko kontratu esleipenak deusezak izanen dira zuzenbide osoz. Hori galarazi gabe, kontratazio-organoak erabaki ahalko du enpresariak kontratua burutzen segi dezan, hitzarturiko klausulen pean, interes publikoari egin dakizkiokkeen kalteak ekiditeko behar-beharrezkoa den bitartean.



**32. artikulua.** Ahalmen- eta bateragarritasun-betekizunak laguntza-kontratueta.

1. Laguntza-kontratueta, Lege honek galdaturiko baldintza orokorrean gain, proposamen edo eskaintza ekonomikoak aurkezten dituztenek kontratuaren objektuarekin zerikusi zuzena duen helburu edo jarduera duten pertsona fisiko edo juridikoak izan beharko dute, estatutuei edo fundazio-arauei jarraituz edo behar bezala frogatuz, eta kontratua behar bezala bete ahal izateko adina pertsona- zein gauza-bitarteko duen antolamendu bat eduki beharko dute.

2. Obra edo instalazioak burutzea edo mantentzea edo antolamendu-sistemen ezarpena zuzendu, ikuskatu edo kontrolatzea objektu gisa duten laguntza-kontratueta, pleguek espreski eta justifikatuz aurkakoa xedatzen dutenean izan ezik, ezin izanen zaizkie esleitu kasuan kasuko obra-kontratueta esleipen-hartzaile gertatu diren enpresa berebereri, ezta horiei loturiko eta Foru Lege honetako 2.3 artikulua definitzen dituen enpresei ere.

**33. artikulua.** Europako Batasunetik kanpoko enpresak.

1. Europako Batasunekoak ez diren estatueta pertsona fisiko edo juridikoek egiaztatu beharko dute, kasuan kasuko estatuko legediaren arabera, kontratatze edo obligazioak hartze edo erabateko gaitasuna dutela eta nahiko gaitasun ekonomiko, finantzario, tekniko eta profesionala dutela eta, horretaz gain, dokumentazioarekin batera, dagokion Espainiako ordezkari diploma-koaren txostena aurkeztu beharko dute, enpresa atzerriarraren jatorrizko Estatuak Administrazioarekiko kontratazioetan Espainiako enpresek antzeko baldintzetan parte hartzea onartzen duela frogatzen duena. Obra-kontratueta beharrezkoa izanen da, gainera, enpresa horiek sukurtsalen bat irekita izatea Espainian, eragiketarako egiteko ahalduak edo ordezkariak izendatuak izatea eta Merkataritzako Erregistroan inskribaturik egotea.

2. Zenbatekoa dela-eta Europako Batasuneko Aldizkari Ofizialean lizitazio iragarki bat argitaratzea galdatzen duten kontratueta alde batera utzi beharko da aurreko idazatian aipatutako elkarrekotasun txostena, Merkataritzarako Mundu Erakundearen Kontratazio Publikorako Hitzarmena sinatu zuten estaturen bateko enpresei dagokienez.

**34. artikulua.** Enpresari batasunak eta parte-hartzean diharduten lizitatzailleak.

1. Administrazioak kontratuak sinatu ahalko ditu helburu horretarako elkartzen diren aldi bate-

rako enpresari batasunekin eta batera parte hartzen duten lizitatzailleekin. Lehenengo kasuan batasun hori eskritura publiko batean formalizatu beharko da, baina beharkizun hori ez da eskatuko hari eta esleipena bere alde gauzatu arte.

Bi kasu horietan, elkartzen diren lizitatzailleak solidarioki egonen dira behartuak administrazioaren aurrean, bakoitzaren parte-hartzea azalduko dute eta ordezkari edo ahaldu bakar bat izendatu beharko dute, kontratutik datozen beharkizunak bete eta eskubideak baliatzeko ahalmen asketsia izanen duena, kontratua iraungi arte, deusetan galarazi gabe enpresek kobraketa eta ordainketa garrantzitsuetarako beste ahalmen mankomunatu batzuk ematea.

**IDAZATI BERRIA.** Baterari parte hartzen duten lizitatzaillei enpresari-batasunen sailkapenari buruzko xedapenak aplikatuko zaizkie.

2. Sailkapena beharrezkoa den kasuetan, Espainiako enpresariak, Europako Batasunetik kanpokoak zein Europako Batasunekoak batzen badira edo elkarrekin parte hartzen badute, lehenbiziko biek sailkapena frogatu beharko dute eta azkenekoek, horrelakorik ez badute, gaitasun ekonomiko, finantzarioa eta tekniko edo profesionala.

## II. KAPITULUA Kontratisten sailkapena

**35. artikulua.** Sailkapen kasuak.

1. Estatuak finkatzen duen kopuruaren adina edo hortik gorako aurrekontua duten obra, laguntza edo, kasua bada, hornidura-kontratuak Administrazioarekin izenpetu ahal izateko, ezinbesteko baldintza izanen da enpresariak alde aurretik dagokion sailkapena edukitzea.

2. Espainiakoak ez, Europako Batasuneko kide diren beste estatueta enpresariak nahikoa izanen dute kasuan kasuko kontratazio-organoren aurrean hauxe frogatzea: gaitasun ekonomiko edo finantzarioa, tekniko edo profesionala frogatzea, Foru Lege honen 25, 26 eta 28. artikuluetan adierazi bezala, eta 29.i) artikuluan aipatu Erregistroan inskribaturik daudela; hori guztia 69. artikuluan ezarritakoa deusetan galarazi gabe.

3. Salbuespen gisa, Nafarroako Gobernuak, Administrazio Kontrataziorako Batzorde Aholkulariaren txostena izanik eta interesaturik dagoen departamentuak, erakundeak edo toki-entitateak zein zuzenbide publikoak proposaturik, sailkatu ez dagoen enpresa batekin kontratatzea baimendu ahalko du, interes publikoa dela kausa, komenigarria denean.



**36. artikulua.** Saikapenerako salbuespenak eta Europako Komunitateko saikapen ziurtagiriak.

1. Pertsona fisikoei esleitzen zaizkien laguntza-kontratuetan, pertsona horiek duten unibertsitate mailako titulazio akademikoagatik kontratuaren xedea burutzeko gaitasuna baldin badute eta kasuan kasuko lanbide elkargoan inskribaturik baldin badaude (horrelako elkargorik badago eta inskripzioa beharrezkoa den kasuetan), ez da beharrezkoa izaneren saikapena edukitzea, 28. artikuluan xedatutakoa galarazi gabe.

2. Unibertsitatearen Erreformari buruzko abuztuaren 25eko 11/1983 Lege Organikoaren 11. artikuluan adierazi kasuetan ez zaie unibertsitateei eskatuko kontratista saikapena edukitzea, Administrazioaren kontratuen esleipen hartzaileak izateko.

3. Europako Batasuneko kide diren estatuek bertako enpresarien alde luzaturiko saikapen ziurtagiriek edo antzeko agiriek gaitasun presuntzioa emanen dute kontratazio-organoen aurrean, honakoetan ezarritakoaren ondorioetarako: 25.1 artikuluko b) eta c) letrak, 26. artikuluko b) eta d) letrak; 27. artikuluko a) letra; 28. artikuluko a) letra eta 29. artikuluko a), b), d) eta i) letrak.

**37. artikulua.** Saikapenari aplikatu beharreko araubidea.

1. Enpresak sailkatzeko araubidea Administrazio Publikoen Kontratuari buruzko maiatzaren 18ko 13/1995 Legean eta horren garapen arauetan bil dutakoa izaneren da.

2. Ekonomi eta Ogasun kontseilaria, Administrazio Kontrataziorako Batzorde Aholkulariak proposaturik eta erregelamendu bidez ezarriko den bezala, izaneren da saikapenari buruz erabakitzeke eskumena izaneren duen organoa, baita horiek berrikusi eta bertan behera uzteko ere, Foru Lege honen aplikazio esparruaren barruan dauden entitateekin izenpetzen diren kontratueterako, eta horretarako estatuko legeetan ezarrita dauden arau eta irizpideak aplikatuko dira.

Kontratu horietan baliozkoak izaneren dira, halaber, Ekonomi eta Ogasun Ministerioako Administrazio Kontrataziorako Batzorde Aholkulariak egindako saikapenak.

### III. KAPITULUA

#### Administrazioarekin kontratatzeke eskatuko diren bermeak

**38. artikulua.** Behin-behineko bermeak.

1. Kontratazio-organoek ahalmena dute administrazio klausula partikularren pleguan edo,

horren ezean, kontratuaren baldintzetan adierazteko beharrezkoa dela aurretik kontratuaren aurrekontuaren % 2ko behin-behineko bermea kontratazio-organoaren eskura jartzea, erabilitako prozedura edozein delarik ere. Kontratuaren aurrekontutzat Administrazioak finkatzen duen lizitazio oinarria hartuko da, salbu eta aurrekontua aurretik zehaztu ez den kasuetan, horietan kontratazio-organoak estimazio bidez finkatuko baitu.

Zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratuetan behin-behineko bermearen zenbatekoa zerbitzuaren izaera, garrantzia eta iraupenaren arabera finkatuko da, kasuan-kasuan.

2. Behin-behineko bermea honela eratu behar da:

a) Eskudirutan, Estatuak, autonomi erkidego batek, administrazio kontratugileak edo hurrengo letran aipatzen diren entitateetako batek abalaturiko balore pribatuen edo balore publikoen bidez, kasuan-kasuan erregelamendu bidez ezar daitezkeen baldintzei jarraikiz.

b) Espainian eragiketak egiteko baimena duen banketxe, aurrezki kutxa, kreditu kooperatiba eta elkarrekiko bermerako sozietate batek emandako abalaren bidez, erregelamenduzko moduan eta baldintzetan.

c) Kauzio aseguruaren kontratuaren bidez, kauzioaren arloan eragiketak egiteko baimena duen entitate aseguratzaile batekin sinatua, erregelamendu bidez ezartzen diren baldintzetan eta moduan.

3. Behin-behineko bermea kontratuaren esleipena egin eta berehala itzuliko zaie interesatuei, baina esleipen hartzaileari atxiki eginen zaio.

4. Kontratistari egotz dakizkiokkeen arrazoiengatik, kontratua formalizatzen ez bada, 92. artikuluan xedatutakoari jarraikiko zaio.

Behin-behineko bermea eskatzen ez den kasuetan, esleipen hartzaileari egotzi beharreko arrazoiengatik kontratua ezin izaneren balitz formalizatu, Administrazioari ordaindu beharko dio kontratuaren aurrekontuaren % 2 eta, gainera, eragindako kalte eta galerak ordaindu beharko ditu. Hala ere, eskatu ahal izaneren den kalteordaina hasierako kopurutik gora gelditzen den aldeari dagokiona bakarrik izaneren da.

5. Hurrengo artikuluko 3. idazatian aipatzen den berme orokorra jarri baldin bada, ez da behin-behineko bermerik jarri beharko, honen ondorioak izaneren baititu.

**39. artikulua.** Behin betiko bermeak, berme bereziak eta osagarriak.

1. Foru Lege honetan arauturik dauden kontratuetako esleipen hartzaileak beharturik daude esleipen prezioaren % 4ko behin betiko bermea jartzera kontratazio-organoaren eskura, edozein delarik kontratua esleitzeko prozedura eta modua.

Hori gorabehera, zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratuetan behin betiko bermeen zenbatekoa kontratazio-organoak finkatu eta administrazio klausulen pleguan adieraziko du, zerbitzuaren izaera, garrantzia eta iraupenaren arabera.

2. Behin betiko bermeak aurreko artikuluko 2. idazatian adierazi bezala eratu beharko dira. laguntza-kontratuetan prezioetik atxiki ahalko da, beti ere administrazio klausula partikularren pleguan hori aurreikusita baldin badago.

3. Lehen idazatian adierazitakoaren ordez, kontratistak berme orokor bakarria jarri ahalko du, Administrazio edo kontratazio-organo batekin izenpetzen dituen kontratu guztietarako, kontratu bakoitzerako zehaztapenik egin gabe, erregelamendu bidez ezarriko den moduan.

Berme orokorrak ziurtatu egiten du, orohar eta etenik gabe, Administrazio berarekin edo kontratazio-organo berarekin sinaturiko eta indarra duten kontratuetatik datozkion baldintzak betetzeko esleipen hartzaileak duen erantzukizuna, kontratuaren esleipen prezioaren % 4ra bitarte, deusetan galarazi gabe berme orokorraren gainerako dirua Administrazioari eragindako kalte eta galarak ordaintzeko erabiltzea, bidezkoa denean.

Aldiro, berme orokorra gerta litezkeen erantzukizunaren ondorioetara egokituko da, jarri zen garaiko maila bertsua etengabe mantentzearen.

4. Kasu berezietan, kontratazio-organoak ezarri ahalko du administrazio klausula partikularren pleguan berme osagarri bat, esleipen prezioaren 100eko 6rainokoa. Ondorio guztietarako, osagarri horrek behin betiko bermearen izaera izanen du.

5. Egindako proposamena hasiera batean ausarkeria presuntziopean izan duen enpresari bati esleipena egiten bazaio, kontratazio-organoak eskatuko dio kontratistari esleipen prezioaren % 50eko behin betiko bermea jar dezan, 1. idazatian aipatu denaren ordez (100eko 4), eta hortaz, aurreko idazatian adierazitakoa ez da aplikatuko. Berme hori kitatzeko 45. artikuluan xedatutakoari jarraikiko zaio.

Hala eta guztiz ere, kontratistak hala eskaturik, eta betetako aurrekontuaren nahiz exekuzio-erritmoaren arabera, bermea partzialki itzuli edo ezeztatu ahalko da kontratuaren harrera edo adostasuna baino lehen, kontratuaren jarraipen eta kontrolaz arduratzen den administrazio unitateak

txostena egin ondoren. Inola ere ezin ahalko du esleipen-prezioaren 100eko 25 baino txikiagoa izan.

**40. artikulua.** Salbuespenak eta baimenak, bermeak jartzeari dagokionez.

1. Honako kasutan ezin izanen da bermerik eskatu, ez behin-behinekorik ez behin betikorik:

a) Legearen arabera, kontratista Administrazioarekiko kontratu harremanetan bermeak jartzetik salbuetsita dagoenean.

b) Honako hornidura-kontratuotan:

– Zerbitzu publikoen enpresa kontzesio-hartzaileekin hitzarturikoak, 17.2.a) artikuluan adierazi horniduretarako baldin badira.

– Prozedura negoziatuaren araubidekoak, kontratistak ondasun kontsumigarriak edo hondatu daitezkeenak berehala ematen dituztenean, prezioa ordaindu baino lehen, bermealdia dagoen kasuetan izan ezik.

– Enpresa hornitzailea atzerrikoa denean eta kontratua nazioarteko merkataritza usadioei jarraikiz bermatzen denean.

2. (KENDUTA)

3. (KENDUTA)

**41. artikulua.** Behin betiko bermea jartzea eta egokitzea.

1. Esleipen hartzaileak kreditatu beharko du hamabost eguneko epean behin betiko bermea jarri duela, kontratua esleitu zaiola jakinarazten zaionetik hasita. Esleipen hartzaileari leporatu beharreko arrazoiengatik, beharkizun hori betetzen ez bada, Administrazioak amaiaziko du kontratua.

2. Zigorrek edo kalteordainek indarra hartzen duten egunetik hasita epe horretan berean, esleipen hartzaileak bermea berriztatu edo handitu beharko du, behar adina, bestela kontratua amaiaziko ahalko baita.

3. Kontratuaren aldaketa baten edo bata bestearen ondorengo aldaketa batzuen ondorioz, esleipen-prezioa ere aldatzen baldin bada, 100eko 10 baino portzentaia handiagoan, behin betiko bermea egokitu beharko da, prezio harekin behar den proportzioa izateko moduko zenbatekoan.

Bermea egokitzeke epea 1. idazatian adierazitakoa izanen da, aldaketa jakinarazi eta biharamunetik hasiz kontratua.

**42. artikulua.** Bermeen esparrua.

Behin betiko bermeek honako kontzeptu hauek estaliko dituzte:

a) Kontratua exekutatzearen ondorioz, kontratistari ezartzen zaizkion zigorrak, batez ere 95. artikuluan biltzen direnak, horiek ziurtapenetatik kentzerik ez dagoenean.

b) Kontratutik datozen betebeharrak, kontratistak obligazioak berandu betetzeagatik Administrazioari eragindako gastuak eta Administrazioari eragindako kalte eta galerak, bai kontratua exekutatatu bitartean, bai, amaiarazi gabe, kontratua bete ez denean.

c) Kontratua amaiarazten den kasuetan erabaki daitekeen inkautazioa, kontratuan edo, izaera orokorrean, Foru Lege honetan ezarritakoari jarraikiz.

d) hornidura-kontratueta, behin betiko bermeak erositako ondasunetan ager daitezkeen akats edo hutsak estaliko ditu, kontratuan aurreikusten den bermealdiaren barruan.

**43. artikulua.** Bermeak exekutatzeko lehentasuna.

1. Administrazioak izanen du behin betiko bermeaz baliatzeko lehentasuna gainerako hartzeko-dun guztiekiko, edozein delarik horien izaera eta hartarako aurkezten duten titulua.

2. Bermea erantzukizunei aurre egiteko nahikoa ez denean, Administrazioak gainerakoa premiamenduzko administrazio prozeduraren bidez kobratuko du, dirubilketarako arauetan ezarritakoari jarraikiz.

**44. artikulua.** Hirugarrenek jarritako bermeak.

1. Kontratistaren aldeko bermea jartzen duten bestelako pertsona edo entitateak Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilaren Bildumako 525. Legean aurreikusitako desenkusa eskubideaz ezin ahalko dira baliatu.

2. Abalista edo aseguratzailea alde interesatutzat hartuko da, emandako bermea ukitzen duten prozeduretan, Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Guztiendako Administrazio Prozedurari buruzko Legean aurreikusia dagoen bezala.

3. Kauzio aseguruaren kontratuan:

a) Aseguru hartzailea kontratista izanen da eta aseguratua Administrazio kontratugilea.

b) Prima ez ordaintzeak, bakarra, lehenengoa edo ondorengoak izan, ez dio eskubiderik emanen aseguratzaileari kontratua amaiarazteko eta ez da kontratua iraungiko, ez eta aseguratzailea-

ren estaldura etengo, ez eta, aseguratzaileak bermea ordaindu behar duen kasuetan, betebeharrak hori desagertuko ere.

c) Aseguratzaileak aseguruari ezin izanen dizkio jarri aseguru-hartzailearen aurka dagozkion salbuespenak.

**45. artikulua.** Behin betiko bermeak itzuli eta kitatzea.

1. Kontratuaren likidazioa onarturik, kontratua behar bezala bete ondoren edo kontratistaren errurik gabe amaiarazirik eta bermealdia bukatu ondoren, behin betiko bermea itzuli edo kitatu egingen da.

2. Kontratuan adierazitakoaren zati bat baino ez bada hartu, kontratistak bermearen proportzio-zatia itzuli edo kitatzea eskatu ahalko du, ez gehiago, administrazio klausula partikularren pleguan hori egitea espreski baimentzen baldin bada.

3. Kontratuak lagatzen direnean, lagapena egingen duenak jarritako bermea ezin izanen da itzuli edo kitatu, harik eta lagapen-hartzaileari dagokion bermea formalki eratzten den arte.

4. Kontratua amaitzen denetik urte bat igarotzen baldin bada, kontratatu denaren harrera formala eta likidazioa egin gabe eta hori kontratistari egotzi ahal zaizkion kausengatik ez bada izan, bermea itzuli edo kitatuko da, atzerapen gehiagorik gabe, beti ere 42. artikuluan aipatu erantzukizunik ez bada.

5. Foru Lege honetako 39.5 artikulua erabiltzean eraturiko bermeak direnean, kontratuaren harrera edo adostasuna egin ondoren, garai batean aurkezturiko bermearen orde bestea bat jarri beharko da, esleipen prezioaren 100eko 4koa, artikuluko honetako 1 eta 4. idazatiei jarraikiz kitatu beharko dena.

**IV. TITULUA****Esleipenaren aurretiko jarduketak****I. KAPITULUA****Kontratua prestatzeko administrazio jarduketak****I. Sekzioa****Xedapen orokorrak**

**46. artikulua.** Kontratazio espedientea.

1. Administrazio kontratu guztietan, hurrengo idazatian aipaturiko dokumentuek osaturiko kontratazio espedientea izapidatu beharko da aurretik. Bertan, kontratazioaren beharra justifikatuko

da dagokion zerbitzu publikoaren helburuak betetzeko; hori guztia, Foru Lege honetan aurreikusitako salbuespenak galarazi gabe.

**IDAZATI BERRIA.** Kontratazio espedienteak hasiko du berori izapidatzeko eskumena duen administrazio-unitateak. Espediente horrek kontratua arautuko duen administrazio klausula partikularren plegua, kontratua exekutatzeko finkaturiko agindu teknikoak, txosten juridiko bat eta kon-tuhartzaitzaren fiskalizazioa jasoko ditu.

2. Kontratazio espedienteak osaturik, kontratazio-organoak arrazoibidezko ebazpena emanen du hura onesteko eta esleipen prozedurari hasiera emateko xedatzeko. Ebazpen horretan gastuaren onespina ere adieraziko da, 83.1.a) artikuluan aurreikusitako salbuespen kasuan izan ezik edo deskontzentrazio arauetan, horrelakorik bada, kontrakoa ezarri ezik.

### 3. (KENDUTA)

4. Jatorri ezberdinetako ekarpenekin finantzatu diren kontratuetan, espedienteak egiaztatu beharko dira horien guztien eskuragarritasuna eta horien ordainketaren ordena, horretarako berme bat ere gehituz.

5. Kontratazio espedienteak izapidatu ahal izanen dira, eta are kontratua esleitu ere, nahiz eta kontratuaren exekuzioa hurrengo ekitaldian hasi behar izan, urte batean edo gehiagotan egin behar den gorabehera. Horretarako, kredituak hitzartu ahaliko dira, aplikatu beharreko aurrekontu-arauetan ezartzen diren mugekin.

Horrelako kasuetan, administrazio klausula partikularren pleguak honako baldintza esekitzailerak ezarri beharko du esleipena egiteko: kasuan kasuko ekitaldian kontratutik datozen betebeharrak finantzatzeko kreditu aski eta egokia izatea.

### 47. artikulua. Kontratuaren xedea zatikatzea.

1. Espedienteak kontratuaren xedea oso-oso-rik hartu beharko du eta horretarako beharrezko diren elementu guztiak bilduko ditu.

2. Ez da zilegi izan kontratu bat zatikatzea horren diru-zenbatekoa gutxitzeko eta horrela publikotasun betebeharrak, prozedura edo dagokion esleipen modua saihesteko.

3. Dena den, xedea zatikatzea dagoenean, espedienteak aurreikusi ahaliko da horietako zati bakoitza bereiz egitea, behar bezala justifikatzen bada, beti ere zati bakoitza bereiz erabil edo aprobetxa baldin badaiteke edo xedearen nolakotasunak hori egitea eskatzen baldin badu.

Funtsean, zati guztiek eduki bera baldin badute, kontratu bakarra egin ahaliko da, horiek esleitzeko.

## 2. Sekzioa Xedapen bereziak

### 1. Azpisekzioa obra-kontratuaren prestaketa

#### 48. artikulua. Obra proiektua.

obra-kontratu guztietan beharrezkoa izanen da lehenagotik proiektua prestatu, gainbegiratu eta, bidezko bada, onetsi eta zuintatzea, salbu eta proiektua eta obra batera esleitzen diren kasuetan. Proiektuan kontratuaren xedea zehatz-mehatz adierazi beharko da.

#### 49. artikulua. Obren sailkapena.

1. Proiektuak egitearen ondorioetarako, obrak honako taldeotan sailkatuko dira, xedea eta izae-raren arabera:

- a) Lehenbiziko aldiz ezartzeko obrak, zaharberritzekoak edo konponketa handikoak.
- b) Konponketa errazeko obrak.
- c) Kontserbazio obrak.
- d) Eraisteko obrak.

2. Lehenbiziko aldiz ezartzeko obrak dira ondasun higiezin bat sortzen dutenak.

3. Erreformaren kontzeptu orokorrean sartzen dira egun dagoen ondasun higiezin bat handitu, hobetu, modernizatu, prestatu, egokitu edo sendotzeko obrak.

4. Konpontzeko obrak dira ondasun higiezin batean halabeharrez edo istripuz eragin den kalte baten ondorioak zuzentzeko beharrezko direnak. Eusteko egitura funtsean ukitzen baldin badute konponketa handitzat hartuko dira eta bestela konponketa txikitat.

5. Kalte ondasunaren erabiltzearen erabiltzeaz etorri baldin bada, hori bere onera bueltatzeko obrak kontserbaziokoak izanen dira.

6. Eraispin obrak izanen dira ondasun higiezin bat bota edo suntsitzeko helburua dutenak.

#### 50. artikulua. Obra proiektuen edukia.

1. Obra proiektuak Administrazioak derrigorrez bete beharreko jarraibide teknikoaren arabera prestatu beharko dira, honakoak bilduz, gutxienez:

- a) Izaera kontraktuala izan den memoria, erregelamendu bidez ezartzen denaren arabera-

koa, erantzun nahi diren beharrak eta kontuan hartu beharreko faktore guztiak bilduko dituena.

b) Obra zehatz-mehatz mugatua gelditzeko moduko planoak, orokorrak eta xehetasunetakak.

c) Agindu tekniko partikularren plegua; horrek obrak zehaztuko ditu eta horien exekuzioa arautuko du.

d) Aurrekontua (nahi izanez gero, aurrekontu partzialak barne dituena), prezio unitarioak, sailez sail emandakoak, neurketen egoera eta hori baloratzeko behar diren zehaztapenak bilduko ditue-na.

e) Lanak denbora eta kostuaren aldetik egokien burutzeko programa orientatzailea.

f) Obra eginen deneko lurren azterketa geoteknikoa, salbu eta Administrazioak beharrezkotzat hartzen ez badu, eta azken hori espedientean adierazi beharko da.

LETRA BERRIA) Proiektuak ukituriko ondasun eta eskubideen zerrenda.

LETRA BERRIA) Sintesi dokumentu bat, proiektuaren egokitasunaren, eginiko hautaketaren justifikazioaren, egiten dituen ekarpenen eta intereseko bestelako hainbat daturen berri laburki emanen duena. Dokumentu horren idazkerak guztiek ulertu ahal izanen duten terminologia erabili beharko du.

LETRA BERRIA) Ingurugiro eraginari buruzko azterketa, Europako Batasuneko araudiak hori aurreikusten duen kasuetan.

g) Lege edo erregelamenduzko arauetan zehaztuta dagoen dokumentazioa.

2. Edonola ere, 20.000.000 pezetatik beherakoak diren lehenbiziko aldiz jartzeko, eraberritzeko edo konponketa handiko obren proiektuetan, eta aurreko artikuluan aipatu gainerako proiektuetan, agiri horietakoren bat edo batzuk sinplifikatu edo bategin daitezke, eta are eman gabe utzi ere, erregelamenduz zehaztuko den bezala, beti ere aurkezten den dokumentazioa obra horiek zehaztu, burutu eta baloratzeko aski baldin bada.

Kontserbazio kontratuetan ez da beharrezkoa izanen neurketen egoera sartzea.

3. Herrilanen kontzesio kontratuetan horiek erabiltzeko araubideari eta aplikatu beharreko tarifei buruzko azterketa ekonomiko eta administrati-boak erantsi beharko dira.

4. Egoera berezietan, obra unitateen kopuru zehatza proiektuan ematea oso zaila denean

bakar-bakarrik, erabaki ahalko da, justifikaturiko txosten teknikoa egin ondoren, aurrekontuaren arabera behar-beharrezkoa den gastuaz gain, hornikuntza bat ezartzea, obra unitate horiek ekar dezaketen gastu-igoerari aurre egiteko. Unitate horiek behar bezala identifikatuta egonen dira agindu tekniko partikularren pleguan.

Horrelako kasuetan, administrazio klausula partikularren pleguan espreski adierazi beharko da, beharrezkoa izanez gero, kontratista beharturik dagoela obra unitate kopuru haundiago hori egitera, hasiera batean kontrataturikoentzat ezarritako oinarri berberetan, kontzeptu guztietarako.

Hornidura osagarri horren gastua ez da kontrata bidezko exekuzioaren aurrekontuaren 100eko 10 baino handiagoa izanen eta ez da aurrekontu horretan sartuko. Hori baliatzea zuzendari fakultatiboak erabakiko du eta, horrela eginez gero, ezarritako epea egokituko da, nahiz eta kontratuaren aldaketatzat ez den hartuko, inolaz ere.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio-rako, haren erakunde autonomotarako eta hari loturiko edo haren menpeko zuzenbide publikoko entitateetarako, Gobernuak baimena eman dezake aurreko idazatian adierazitako portzentaia gainditzeko, proiektuan biltzen diren ezaugarri bereziak justifikatzen baldin badira. Nafarroako toki entitateetan baimen hori Udal plenoak edo entitatean balio berbera duen organoak eman beharko du.

**50 bis artikulua.** Osotasunaren gaineko prezioa duten obrak.

Salbuespen gisa, obraren izaerak ahalbidetzen duenean, osotasunaren gaineko prezio bidezko ordainketa-sistema ezarri ahalko da, prezio unitarioak gabekoa, erregelamendu bidez zehaztuko diren baldintzetan.

**51. artikulua.** Proiektua gainbegiratzea.

75.000.000 pezetako edo gehiagoko aurrekontua duten obretan edo higiezinaren egonkortasuna, segurtasuna edo estankotasuna ukitzen duten obretan, proiektua onetsi aitzin, gainbegiraketa bulego edo unitateei txostena eskatu beharko zaie, erata baldin badaude. Horiei dagokie pres-tatu diren proiektuak gainbegiratzea eta arlo horretako arauak betetzen direla zaintzea.

Aipatu kasu horiez landara, txosten hori eskatzea aukeran izanen da.

**52. artikulua.** Obraren zuinketa eta lurren eskuragarritasuna.

1. Proiektua onetsirik, eta obra kontratazioaren espedientea izapidatu aurretik, zuinketa lana egi-



nen da; hau da, obraren errealitate geometrikoa egiaztatzea eta proiektuaren bideragarritasunera-ko gainerako oinarritzko alderdiak ikuskatzea.

Zuinketa lana egin ondoan, kontratazio espedienteari erantsiko zaio, proiektuarekin batean.

2. Espedienteari erantsiko zaio, halaber, arlo horretan eskumena duen administrazio unitateak emandako txostena, kontratatuko den proiektua edo horren fase jakin bat burutzeko behar diren lurren eskuragarritasuna deklaratzeko.

Aurreko lerroaldean adierazitakotik salbuetsita daude bide azpiegituretako obrak eta azpiegitura hidraulikoenak, deusetan galarazi gabe lurren benetako okupazioa ez egitea okupazio akta erre-daktatu arte.

3. Proiektua onetsi ahalko da, halaber, kontratazio espedientea onetsi eta esleipen prozedurari hasiera ematea agintzearekin batera, beti ere proiektua 50. artikuluan eta puntu honetan zehazturikoaren arabera behar diren agiriekin batera aurkeztu baldin bada.

**53. artikulua.** Enpresariak proiektua aurkeztea.

Enpresariak obra proiektua aurkeztu behar duen kasuetan, Administrazioak zilegi izanen du obraren oinarri teknikoak erredaktatzera mugatzea.

## **2. Azpisekzioa** **Zerbitzu publikoak kudeatzeko** **kontratua prestatzea**

**54. artikulua.** Araubidea eta ustiapenaren aurreproiektua zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratuetan

**IDAZATI BERRIA.** Zerbitzu publiko bat kontratatu aurretik horren oinarritzko araubide juridikoa zehaztu beharko da. Araubide horrek administrazio-eskumenak esleitu, administratuen aldeko prestazioen norainokoa definitu eta espreski adierazi beharko du jarduera hori Administrazioak bere gain hartuko duela berea bailitzan.

1. Zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratu guztien aurretik, zerbitzuak ustiatzeko eta, hala bada, behar diren obrak zehazteko aurreproiektua prestatu eta onetsi beharko da administrazio bidean. Obrak egin behar izanez gero, herrilanen kontzesiorako Foru Lege honetan ezarritako manuak aplikatuko dira.

2. (KENDUTA)

## **3. Azpisekzioa** **laguntza-kontratua prestatzea**

**54 bis artikulua.** laguntza-kontratua prestatzea.

1. Kontratazio espedienteari kontratua sina dadin nahi duen zerbitzuaren txostena gehitu beharko zaio. Bertan, behar bezala frogatu beharko da kontratuaren bitartez asetu nahi diren beharrirentzako Administrazioak dituen pertsona- eta gauza-bitartekoak ez ugaritzearen komenigarritasuna edo horien egokitasun-eza edo eskasia.

2. Administrazio-klausula partikularren pleguan kontratu horien prezioa zehazteko sistema ezarriko da. Kontratuaren objektua edozein delarik ere, sistema hori hauetako bat izan ahalko da: osotasunaren gaineko prezioa, obra- edo denbora-unitateei loturiko prezioak edo tarifaren arabera lanbide-ordainsariak aplikatzea edo horietako batzuen konbinazioa.

## **II. KAPITULUA** **Kontratazio espedienteen izapizatzea**

**55. artikulua.** Espediente motak.

Kontratazio espedienteak arruntak, presakoak eta larrialdikoak izan daitezke.

**56. artikulua.** Presako espedienteak.

1. Presako izapizatzea izan ahalko dute beharrragatik luzapenik onartzen ez duten kontratazio espedienteek eta, halaber, interes publikoa dela kausa, esleipena azkartzea behar dutenek. Horretarako, espedientearen kontratazio-organoak luzatutako presako deklarazioa sartu beharko da, behar bezala arrazoitua.

2. Presako espedienteak arruntak bezala izapizatuko dira, baina berezitasun hauekin:

a) Aurretiko izapizatzean parte hartzen duten organo administratibo, fiskalizatzaile eta aholku-emaileetako eginbideetan lehentasuna izanen dute; izan ere, horiek bost eguneko epea izanen dute dagokien txostena luzatzeko.

Espedientearen zailtasuna dela kausa edo beste arrazoi justifikatu batengatik, epe horretan bideratzerik ez badago, organo administratibo, fiskalizatzaile eta aholku-emaile horiek presako izara deklaratu duen kontratazio-organoari jakinarazi beharko diote. Horrelako kasuetan epea hamar egunekoa izanen da.

b) Esleipenaren prozedurari hasiera ematea erabaki ondoren, lizitazioa egin eta kontratua esleitzeko Lege honetan ezarri diren epeak erdira

laburtuko dira. Nolanahi ere, iragarkiak Europako Batasuneko Aldizkari Ofizialean argitaratu behar direnean, Foru Lege honetan ezarritako argitaratze epeak, Batasunekoak, errespetatuko dira.

c) Administrazioak ahalmena izanen du kontratuaren exekuzioari hasiera eman diezaiotela agintzeko, kontratua esleitu bezain laster, nahiz eta, oraindik ere, hura formalizatu gabe egon, beti ere behin betiko bermea jarri baldin bada.

d) Kontratua esleitu eta berau exekutatzeko hasi bitartean ez dira bi hilabete baino gehiago joango, bestela kontratua amaiaraziko baita.

### **57. artikulua.** Larrialdiko espedienteak.

1. Hondamen egoeretan, arrisku larrikoetan edo segurtasun publikoa arriskuan jartzen den egoeretan, Administrazioak berehala jardun behar duenean, kontratazio espedienteak honako izapitatze berezia izanen du:

a) Eskumena duen kontratazio-organoak, administrazio espedienterik izapidatu beharrik izan gabe, gertaturikoa konpontzeko edo sorturiko beharri aurre egiteko beharrezkoa dena egitea agindu dezake eta libreki kontratatatu ere, xede osoa edo zati bat, Foru Lege honetan ezarritako formazko beharkizunak errespetatu behar izan gabe, are kreditu aski izateko eskakizuna ere.

b) Salbuespeneko araubide honetako jarduketak egin ondoren, kontratazio-organoak horiek eta horietarako gastua onetsi eginen ditu, horien larrialdiko izaera teknikoki eta juridikoki justifikatu eta Kontuhartzaitzak fiskalizazioa egin ondoren. Larrialdiko espedientearen bitartez eginiko kontratazioak Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira horien zenbatekoa 5.000.000 pezeta baino handiagoa denean.

2. Administrazioak proposaturiko xedea betetzeko behar diren gainerako jardueren inguruko prestazioak, larrialdikoak ez direnak, Foru Lege honetan ezarritakoari jarraikiz kontratatuko dira.

## **III. KAPITULUA**

### **Klausula-pleguak**

**58. artikulua.** Administrazio klausula orokorren pleguak.

1. Foru Lege honetan eta berau garatzeko arauetan oinarriturik, Nafarroako Gobernuak, interesaturik dauden departamentuen ekimenez eta Ekonomi eta Ogasun kontseilariak proposaturik, administrazio klausula orokorren pleguak onetsi ahalko ditu, Foru Komunitateko Administrazioan, haren erakunde autonomoetan eta hari loturiko edo haren menpeko zuzenbide publikoko erakun-

deetan aplikatzekoak, aurretik Estatuko Kontseiluak irizpena emanda.

2. Nafarroako Gobernuak, Toki Araubiderako Foru Batzordeak txostena egin ondoren, Nafarroako toki-entitateetan besteren ordeztzekoak diren administrazio klausula orokorren pleguak onetsiko ditu.

**59. artikulua.** Administrazio klausula partikularren plegua.

1. Administrazio klausula partikularren pleguan zehaztu beharko dira kontratuaren alderdi bakoitzak dituen eskubide eta beharkizunak definitzen dituzten itun eta baldintzak.

2. Klausula-plegu horiek kontratazio-organoak onetsi beharko ditu, Foru Lege honetan adierazitako arau bereziak galarazi gabe, gastua onetsi aurretik edo horrekin batean, beti ere kontratua perfektionatu eta, kasua bada, lizitatu baino lehen.

3. Kontratazio organo eskudunak kasu guztietan aplikatzekoak diren plegu partikularren ereduak onetsi beharko ditu, eta kontratazio kasu zehatzetarako beharrezkoak diren egokitzapenak egingo ditu.

4. Administrazio klausula partikularren pleguetan ezin izanen da sartu administrazio klausula orokorren pleguetan adierazitakoaren aurkako xedapenik, kasu berezietan izan ezik, eta horretarako Administrazio Kontrataziorako Batzorde Aholkulariaren txostena beharko da.

5. Kontratuak plegu partikularren edukien arabera izanen dira, eta horien klausulak haien zatizat hartzen dira.

6. Administrazioak hala eskatzen duten interesatu guztien eskura jarriko ditu plegu edo kontratuetako baldintzen kopia.

**IDAZATI BERRIA.** Administrazio klausula partikularren Plegu guztiek, esleipen irizpideen artean, enpresen lan egoerarena jasoko dute, kaudimen tekniko frogatzeko unean plantilan % 10 baino handiago ez den aldi baterako langile kopurua duten enpresak balioesteko eta horiei puntuazio ona emateko.

**IDAZATI BERRIA.** Administrazio klausula partikularren plegu guztiek, zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratuetan, esleipen irizpideen artean, ezintasunak dituzten pertsonak lanean integratzeko arena jasoko dute, kaudimen tekniko frogatzeko unean plantilaren % 3 baino gehiago ezintasun fisiko handia, gorri sakon eta larriak, ezintasun psikikoa edo adimen eritasuna duten langileek

osatu duten enpresak balioesteko eta horiei puntuazio ona emateko.

**60. artikulua.** Agindu teknikoen pleguak.

1. Prestazioaren exekuzioa arautuko duten agindu tekniko partikularrak biltzen dituzten plegu eta agiriak gastua baimendu aurretik prestatu beharko dira, Foru Lege honetan kontratu mota bakoitzerako ezarri diren baldintzen arabera. Plegu eta agiri horiek onestea kontratazio-organo eskudunari dagokio.

2. Administrazio Kontrataziorako Batzordeak txostena luzaturik, Nafarroako Gobernuak, kasuan kasuko kontseilariak proposaturik, zehaztu ahalko ditu Foru Komunitateko Administrazioak, haren erakunde autonomoek eta hari loturiko edo haren menpeko zuzenbide publikoko entitateek kontratatu beharreko prestazioek bete behar dituzten agindu tekniko orokorren pleguak.

3. Agindu tekniko orokorren pleguak onesteko, Nafarroako toki entitateak lege berariazkoei jarraikiko zaizkie, eta 58.2 artikuluan adierazitako prozedura aplikatuko da.

**61. artikulua.** Agindu teknikoak eta debekuak ezartzeko ordena.

1. Espainian derrigorrez bete beharreko jarraibide eta erregelamendu teknikoak galarazi gabe, horiek Europako Batasuneko zuzenbidearekin bateragarri diren heinean, agindu teknikoak definituko dira Europako arauak txertatzen dituzten arau nazionalen bidez, zuzentasun teknikoari buruzko Europako agirien bidez edo zehaztapan tekniko komun bidez, eta erregelamendu bidez ezarriko da zein kasutan utz daitezkeen horiek aipatu gabe. Aurrekoak izan ezean, agindu teknikoak definitu ahalko dira nazioarteko arauak txertatzen dituzten arau nazionalen bidez, arau nazionalen bidez edo bestelako arauen bidez.

2. Kontratuaren xedea dela-eta horrelakorik justifikatzen den kasuetan izan ezik, ezin izanen da pleguan sartu fabrikazio edo jatorri jakin bateko produktuak aipatzen dituen zehaztapan teknikorik, ez eta prozedura berezirik erabili ere, enpresa edo produktu jakin batzuen alde aritzeko edo horiek baztertzeko asmoa baldin badute. Zehazki, ezinezkoa izanen da marka, patente edo mota jakinak adieraztea eta jatorri edo produkzio zehatz bat aipatzea. Dena den, kontratuaren xedea, zehaztapan egoki eta ulergarrien bidez, behar bezala definitzerik ez dagoenean, zilegi izanen da horrelakoak aipatzea, "edo baliokidea" esamoldea ondoan ematen bada.

3. Obra, hornidura eta laguntza-kontratuetakoz lizitazioetan, ezin izanen dute parte hartu kontratu

horietako zehaztapan teknikoak prestatzen lagundu duten enpresek.

**IV. KAPITULUA**  
**Publikotasuna**

(Kapitulu hau –62. artikulutik 67 artikulura– V. Tituluko I bis Kapituluak izatera pasatu da)

**V. TITULUA**  
**Esleipena eta formalizazioa**

**I. KAPITULUA**  
**Prozeduraren arau orokorrak**

**68. artikulua.** Epeen kontaketa

Foru Lege honetan ezarritako epe guztiak egun naturalekoak direla ulertuko da.

**68 bis artikulua.** Esleipen-prozedura eta esleitzeko moduak.

1. Kontratuak esleitu ahalko dira prozedura irekiz, murriztuz edo negoziatuz.

2. Enkantea eta lehiaketa, esleipen-modu gisa, bai prozedura irekian bai murriztuan erabili ahalko dira, Titulu honetako III. Kapituluak ezarritakoari jarraituz.

3. Esleitzeko erabilitako prozeduraren eta moduaren hautaketa espedientean justifikatu beharko da.

**69. artikulua.** Interesatuen proposamenak.

1. Proposamenak isilpekoak izanen dira eta lizitazioa publikoa egin arte hala izatea bermatuko duten bitartekoak jarriko dira. Administrazio klausula partikularren pleguan, behar denean, ezarriko den ereduari lotuko zaizkio proposamenak, eta horiek aurkezteak klausula horien guztien edukia enpresariak baldintzarik eta salbuespenik gabe onartzearen presuntzioa dakar.

2. Beste gutunazal batean, honako agiri hauek erantsiko zaizkie:

a) Kontratataren nortasun juridikoa eta, hala-korik dagoenean, bere ordezkaritza frogatzen dutenak.

b) Behin-behineko bermea, horrelakorik eskatzen den kasuetan, eratu izanaren frogagiria.

c) Deklarazio erantzulea, enpresak kontratatzeo debekua izateko arrazoirik ez dagoela dioena.

d) Enpresaren sailkapena, behar denean, frogatzen dutenak edo bere kaudimena, ekonomi-

koa, finantzarioa, teknika zein profesionala frogatzen dutenak.

Sailkapen ziurtagiria aurkeztuz gero, lizitatzai-leak beren nortasun juridikoa frogatzen duten agi-riak ekartzetik salbuetsirik egonen dira.

e) Indarra duten xedapenek ezarritako zergei eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharreri dago-kienez, zorrik ez dagoela frogatzen dutenak.

f) Atzerriko enpresendako, edozein mailatako Epaitegi eta Auzitegi espainiarren jurisdikzioaren menpean jarriko direla dioen deklarazioa, kontra-tutik, zuzenean edo zeharka, sor daitezkeen gora-behera guztietarako, eta hala gertatzen denean, lizitatzaileari dagokiokeen atzerriko jurisdikzio foruari uko eginen diola.

3. Foru Lege honen arabera beste agiri batzuk aurkeztea beharrezkoa denean, administrazio klausula partikularren pleguan eta lizitazioarako dagokion iragarkian ere aipatu beharko dira.

4. 2. idazatian xedatutakoa gorabehera, kon-tratazio-organoak, komenigarri ikusten badu, administrazio klausula partikularren pleguan hona-koa ezarri ahalko du: 2. idazatiaren e) eta f) letre-tan adierazten den dokumentazioa hasiera batean aurkeztu beharrean, lizitatzai-leak deklarazio eran-tzulea egitea, Administrazioarekin kontratatze-ko legez ezarritako baldintzak betetzen dituela adie-razten duena. Kasu horretan, esleipen proposa-mena jasotzen duen lizitatzai-leak, edo esleipen hartzaileak, administrazio klausula partikularrek adierazten dutenari jarraikiz, kontratazio-organoa-ren aurrean frogatu beharko du, kontratua esleitu aurretik, lehenbiziko kasuan, edo formalizatu aurretik, bigarrenetan, eskatutako agiriak badituela eta balio dutela.

5. Dokumentazioa, aurreko idazatian adierazi bezala, esleipenaren ondotik ekartzea eskatzen bada, esleipena eten eginda geldituko da eskatu-tako agiriak esleipen hartzaileak aurkeztu bitarte-an.

6. Dokumentazioa ekartzen deneko prozedura unearen kalterik gabe, Administrazioarekin kontra-tatzeko eskatzen diren bi baldintza, gaitasuna eta kaudimena, ea betetzen diren erabakitze-ko uea proposamenak aurkezteko epearen amaiera iza-nen da.

#### **70. artikulua.** Aldi bereko proposamenak.

Lizitatzai-le bakoitzak proposamen bakarra aur-keztu ahalko du, galarazi gabe lehiaketaren admi-nistrazio klausula partikularren pleguan lizitazioa-ren xedea den proiektuan zehaztutakoa aldatzen duten irtenbideak edo irtenbide alternatiboak aur-

keztea, 85. artikuluan xedaturikoaren arabera. Halaber, lizitatzai-leak ezin izanen du proposame-nik izenpetu beste batzuekin aldi baterako batasu-nean nahiz horiekin parte hartuz, indibidualki ere egin baldin badu, eta aipaturiko talde horietako batean baino gehiagotan ere ezin izanen du ager-tu.

Arau hauek haustek horrek izenpetutako pro-posamen guztiak ez onartzea ekarriko du.

#### **71. artikulua.** Kontratazio mahaia.

1. Harako 11.1 artikulua d) idazatian aurrei-kusitako kasuan salbu, prozedura irekian eta murriztuan, kontratuak esleitzeko mahai batek lagunduko dio kontratazio-organoari. Mahaia, buruak eta gutxienez lau mahaikidek, kontratazioa egiten duen administrazioaren zerbitzuko langile-en artean izendatutakoek, osatuko dute.

Mahaikideen artean kontratuaren xedea den gaian espezializatuak diren bi teknikari egonen dira, bai eta idazkari gisa arituko den zuzenbideko lizentziatu bat, titulazio hori eskatzen den lanpostu bat betetzen duena, eta kontuhartzaile bat ere.

2.000 milioi pezeta baino gehiagoko zenbate-koa duten kontratuetan Kontratazio Mahaia beste kide bat ere izanen du: Administrazio Kon-tratazioarako Batzordearen ordezkari bat, horrek proposaturik izendatua izanen dena.

2. Mahaikide gisa, hizpidearekin bai baina botorik gabe, Administrazioetik kanpoko pertsona batzuk ere aritu ahalko dira, kontratuaren jardun sektorean esperientzia baldin badute. Pertsona horiei aplikatu ahalko zaizkie Administrazio Publi-koen Araubide Juridikoari eta Guztiendako Admi-nistrazio Prozedurari buruzko Legean abstentzio-rako eta errefusatzeko aurreikusten diren kausak.

3. Mahaikideen izendapena iraunkorra izan daiteke edo berezia, kontratu bat edo gehiago esleitzeko. Iraunkorra baldin bada edo kontratu baterako baino gehiagotarako eginkizunak ema-ten bazaizkio, bere osaketa "Nafarroako Aldizkari Ofizialean" argitaratu beharko da.

4. Prozedura negoziatuetan kontratazio Mahaia eratzea hautazkoa izanen da, 75.2.a) arti-kuluaren kasuan izan ezik, horretan beharrezkoa izanen baita haren partehartzea.

5. Kontratazio Mahaia, bere proposamena egin aurretik, beharrezkotzat jotzen dituen txosten guztiak eskatu ahalko ditu, kontratuaren objektua-rekin zerikusia daukatena.

6. Kontratazio-organoak Mahaiaren proposa-menaren kontrako esleipen-erabakia hartzeko asmoa baldin badu, esleipen hori egin aurretik

Administrazio Kontrataziorako Batzordearen txostena eskatu beharko du. Kontratazio-organoak kontratua Mahaiak egindako proposamenarekin bat esleitzen ez duenean, erabakiaren arrazoiak eman beharko ditu.

7. Nafarroako toki entitateetan, Mahaiaren osaketa eta eskuhartzea horiendako lege berezietan xedatutakoari lotuko zaizkio.

IDAZATI BERRIA. Kontratazio Mahaiko kideei beren iritzia agertzeko eta beren jarrera arrazoitua aktan ager dadin daukaten eskubidea bermatuko zaie, gehiengoaren iritzia aurrakoa denean.

## I bis KAPITULUA Publikotasuna

### 1. Sekzioa Xedapen orokorrak

**71 bis artikulua.** (Lehen 62. artikulua) Lizitazioen publikotasuna.

1. Kontratuak esleitzeko prozedura guztiak Nafarroako Aldizkari Ofizialean iragarriko dira, prozedura negoziatuak izan ezik.

2. Obra, hornidura eta laguntza-kontratueterako prozedurak Europako Batasuneko Aldizkari Ofizialean ere iragarriko dira, Foru Lege honetako artikuluetan ezartzen diren kasuetan eta epeetan, Europako Batasunak ezarritako prozedura eta eredu ofizialei jarraikiz. Gainerako kasuetan, argitaratzea aukeran izanen da.

Esleipenaren prozedura, negoziatua barne, Europako Batasunaren Aldizkari Ofizialean argitaratu behar denean, Estatuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean ere argitaratu beharko da.

3. Beste inon argitaratu baino lehen, iragarkia Europako Batasuneko Aldizkari Ofizialera igorri beharko da. Kasu guztietan, horretaz landako argitalpenetan adierazi beharko da igorpen haren data, eta ezin izanen da Europako Batasuneko iragarkian ezarritakoaz bestelako zehaztapenik eman.

IDAZATI BERRIA. Esleipen prozedura irekieren eta murriztuaren deialdia prentsan iragarriko da kontratuaren zenbatekoa 77.1 artikuluan kontratuaren xedaren arabera aipaturikoaren adinakoa edo hori baino handiagoa denean edo zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratuaren iraupena aipatutako arauan adierazitakoaren adinakoa edo hori baino handiagoa denean. Iragarpen horrek ez du eraginik izanen proposamenak aurkezteko epea (prozedura irekian) eta parte hartzeko eska-

erak hartzeko epea (prozedura murriztuan) kontatzeari dagokionean.

IDAZATI BERRIA. Prentsan iragarritako prozedura negoziatuan 77.2.c) artikuluko lehen lerroaldean xedaturikoari jarraituko zaio.

**71 ter artikulua.** (Lehen 63. artikulua) Epeak.

1. Prozedura irekietan, proposamenak aurkezteko epea, gutxienez, hogeita sei egunekoa izanen da, lizitazioaren iragarkia argitaratu eta biharamunetik hasita.

2. Prozedura murriztuetan, parte hartzeko eskabideak jasotzeko epea, gutxienez, hamalau egunekoa izanen da, prozeduraren iragarkia argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita.

Prozedura murriztuetan proposamenak aurkezteko gutxienerako epea hogeita sei egunekoa izanen da, idatzizko gonbitea bidali eta biharamunetik hasita.

3. Europako Batasuneko Aldizkarian argitaratu beharra duten prozedura negoziatuetan parte hartzeko proposamenak aurkezteko epea, gutxienez, hamalau egunekoa izanen da, prozeduraren iragarkia "Estatuko Aldizkari Ofizialean" eta "Nafarroako Aldizkari Ofizialean" argitaratu eta biharamunetik hasita.

4. Prentsan argitaraturiko prozedura negoziatuetan, eskaintzak aurkezteko epea ezin izanen da hamalau egunetik beherakoa izan, lizitazioaren iragarkia argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita.

### 2. Sekzioa Europako Batasuneko Aldizkari Ofizialeko publikotasuna

**71 quater artikulua.** (Lehen 64. artikulua) Iragarpeneko betebeharrak eta iragarpen-kasuak.

1. Aurrekontu ekitaldi bakoitzean, kontratazio-organoek jakitera emanen dituzte, iragarki baten bidez, hurrengo hamabi hilabeteetan esleitu nahi dituzten kontratuen oinarritzko ezaugarriak, edozein delarik esleipenaren prozedura, horien zenbatekoa, Balio Erantsiaren gaineko Zerga kenduta, honako kopuru hauen adinakoa edo hortik gorakoa baldin bada:

a) obra-kontratueta, 5.000.000 Ecu edo gehiago.

b) hornidura-kontratueta 750.000 Ecu edo gehiago. Zenbateko hori produktu multzoen arabera kontratu osoei dagokie.

c) laguntza-kontratueta 750.000 Ecu edo gehiago.



2. Informazio iragarkia lehen bait lehen bidaliko da Europako Batasuneko Argitalpen Ofizialen Bulegora eta, 65. artikuluan aurreikusi bezala epeak laburtu ahal izateko berrogei egun eta hamabi hilabete bitarteko aurrerapenezko epean argitaratu beharko da.

3. Aurreko idazatietan aipatu informazio iragar-kiaz gain, Europako Batasuneko Aldizkari Ofizia-lean kontratuaren lizitazioari buruzko iragarkia ere argitaratu beharko da, 78. artikuluan aipatu prozedura irekian, murriztuan edo negoziatuan izapidatzen bada eta kontratuaren zenbatekoa, BEZa kenduta, honako kopuruetakoa edo hortik gorakoa bada:

a) 5.000.000 Ecu, obra-kontratuatarako.

b) 200.000 Ecu, hornidura-kontratuatarako, salbu eta Europako Komunitatea eratzekeo Ituneko 223.1.b) artikuluan xedatutakoa aplikatzearen ondorioz egiten baldin badira.

c) 200.000 Ecu, laguntza-kontratuatarako, kontratua 67. artikuluko 1etik 16.era bitarteko kategoriaren batean baldin badago.

4. Obra-kontratuaren informazio eta lizitazio iragarkietan adierazi diren zenbatekoak kalkulatzeko, kontuan hartuko da, obraren balioaz gainera, hori burutzeko behar diren hornidurena, Administrazioak enpresariaren esku uzten dituenena, alegia.

5. Ondoko laguntza-kontratuaren ez da derri-gorrezkoa izanen argitaratzea Europako Batasuneko Aldizkari Ofizialean, ez informazio iragarkirik, ez lizitazioari buruzkorik ere, zenbatekoa edozein dutela ere:

a) Ikusentzunezko baliabideak garatu eta bertako programak produzitzeko kontratuak eta haien difusio denborari buruzkoak eta ahots bidezko telefonia, telexa, irrati-telefonía mugikorra, pertsona-bilagailuak eta satelite bidezko komunikazioa kontratatzeak.

b) kontratazio-organoak oso-osorik ordaintzen dituen ikerketa eta garapenerako kontratuak, beti ere horien emaitzak ez badira erabiltzen, bakar-bakarrik, kontratazio-organoaren beraren jardueratarako.

c) (KENDUTA)

**71 bosgarren artikulua.** Lotetan banatzea.

1. Obra hainbat lotetan zatitua dagoenean eta lote bakoitzerako kontratu bat dagoenean, bakoitzaren zenbatekoa kontuan hartuko da aurreko artikuluan aurrekositako 5.000.000 Ecu-ak kalkulatzeko. Dena den, loteen zenbateko metatua

kopuru horren adinakoa edo hori baino handiagoa denean, lote guztiei aplikatuko zaizkie haren xedapenak, iragarpen-ondorioatarako.

Hala ere, kontratazio-organoak lote bakoitzaren berariazko zenbatekoa bakarrik kontuan hartu ahal izanen du, 1.000.000 Ecu baino txikiagoa denean, Balio Erantsiaren gaineko Zerga kenduta, baldin eta lote horien zenbateko metatua obra osatzen duten lote guztien balio metatuaren 100eko 20 baino handiagoa ez bada.

2. laguntza-kontratuak hainbat lotetan zatituta daudenean eta lote bakoitzerako kontratu bana egiten denean, aurreko artikuluan aurrekositako Ecu-tan emandako zenbatekoak kalkulatzeko aurreko idazatian ezarritako arauak aplikatuko dira, 1.000.000 Ecu-ko zifra 80.000 Ecu-koarekin ordeztuz.

**71 seigarren artikulua.** (Lehen 65. artikulua) Europako Batasunerako publikotasuna duten prozeduretarako epeak.

1. Europako Batasunerako publikotasuna duten prozedura irekietan, proposamenak aurkezteko epea, gutxienez, berrogeita hamabi eguneko izanen da, lizitazio iragarkia "Europako Batasuneko Aldizkari Ofizialera" igorri eta biharamunetik hasita.

Aurreko artikuluan aipatu informazio iragarkia argitaratu baldin bada, gutxienerako epea hogeita hamasei eguneko izanen da.

2. Prozedura murriztuak Europako Batasunerako publikotasuna behar duenean, parte hartzekeo eskaerak aurkezteko epea, gutxienez, hogeita hamazazpi eguneko izanen da, lizitazioaren iragarkia "Europako Batasuneko Aldizkari Ofizialera" igorri eta biharamunetik hasita.

Proposamenak aurkezteko epea berrogei egunetik gorakoa izanen da, idatzizko gonbitea bidali eta biharamunetik hasita, baina hogeita sei egunetan ere finkatu daiteke, Administrazioak aurreko artikuluan aipatu informazio iragarkia argitaratu baldin badu.

Presako kasuetan, hala parte hartzekeo eskabi-deak nola proposamenak aurkezteko epeak murriztu daitezke, hurrenez hurren hamabost eta hamar egunetan finkatzeko, iragarkia edo gonbitea igorri eta biharamunetik hasita.

3. Europako Batasunerako publikotasuna behar duten prozedura negoziatuetan, parte hartzekeo eskaerak aurkezteko epea, gutxienez, hogeita hamazazpi eguneko izanen da, lizitazioaren iragarkia "Europako Batasuneko Aldizkari Ofizialera" igorri eta biharamunetik hasita. Presa-

ko kasuetan, gutxieneko epea hamabost eguneko izanen da. Era berean, parte hartzeko eskaerak aurkezteko epea, gutxienez, hamalau eguneko izanen da, prozeduraren iragarkia "Estatuko Aldizkari Ofizialean" eta "Nafarroako Aldizkari Ofizialean" argitaratu eta biharamunetik hasita. Presako izapidatzea dutenetan gutxieneko epea zazpi eguneko izanen da.

**71 zazpigarren artikulua.** (Lehen 66. artikulua) Prozedura murriztuaren epeak herrilaren kontzesioetan.

1. Herrilaren kontzesioetan, prozedura murriztuetan, kandidaturak aurkezteko epea, gutxienez, berrogeita hamabi eguneko izanen da, iragarkia igoz eta biharamunetik kontatzen hasita.

2. Herrilaretako kontzesionario pribatuek, 2.2 artikulua aipatzen dituen horiek, alegia, egiten dituzten kontratuetan, prozedura murriztuan ere bai, parte hartzeko eskaerak aurkezteko gutxieneko epea hogeita hamazazpi eguneko izanen da, eta eskaintzak aurkezteko berrogei eguneko, iragarkia edo eskaintza aurkezteko gonbitea, hurrenez hurren, igoz eta biharamunetik kontatzen hasita.

**71 octavo artikulua.** (Lehen 67. artikulua) laguntza-kontratuen kategoriak.

64. artikulua aplikatzearen ondorioetarako, laguntza-kontratuak kategoriatan sartu dira:

1. Mantenimendu eta konponketak.
2. Lur gaineko garraioa, tren bidezkoa izan ezik eta kamioi blindatuak eta mezulariak barne; ez, ordea, posta garraioa.
3. Bidaiari eta kargen aireko garraioa, posta garraioa izan ezik.
4. Lur gaineko eta aireko posta garraioa, tren bidezkoa izan ezik.
5. Telekomunikazioa.
6. Finantza zerbitzuak:
  - a) Aseguru zerbitzuak.
  - b) Banku eta inbertsio zerbitzuak.
7. Informatika eta zerbitzu lotuak.
8. Ikerketa eta garapena.
9. Kontabilitatea, auditoriak eta liburuak eramatea.
10. Iritzi publikoaren inkestak eta ikerlanak.
11. Zuzendaritzako aholkularitza eta horri loturiko zerbitzuak, arbitraia eta adiskidetzekoak izan ezik.

12. Arkitektura, ingeniariaritza, hiri plangintza eta arkitektura paisajistikoa. Zientzia eta teknologia arloko aholkularitza. Entseu eta analisi teknikoak.

13. Publikotasuna.

14. Eraikinen garbiketa eta ondasun higiezinaren administrazioa.

15. Edizioa eta moldiztegi-lanak.

16. Estolderia lanak eta hondakinak deuseztatzeak. Saneamendua eta antzekoak.

17. Ostalaritza eta jatetxeak.

18. Trenbidezko garraioa.

19. Ibai eta itsaso bidezko garraioa.

20. Garraio osagarri eta laguntzaileak.

21. Zerbitzu juridikoak.

22. Langileen hautapena eta kontratatzea.

23. Ikerketa eta segurtasuna, kamioi blindatuak izan ezik.

24. Hezkuntza eta lanbide heziketa.

25. Gizarte eta osasun lanak.

26. Aisialdia, kultura eta kirola.

27. Bestelakoak.

## II. KAPITULUA Esleipen prozedurak

### 1. Sekzioa

#### Prozedura irekia eta prozedura murriztua

#### 72. artikulua. Kontzeptuak.

1. Prozedura irekian, interesaturik dagoen enpresari orok aurkeztu ahalko du proposamen bat.

2. Administrazioak espreski hautatutako enpresarietako soilik aurkeztu ahalko dituzte proposamenak prozedura murriztuan, haiek aurretik hala eskatuta.

3. (KENDUTA)

4. (KENDUTA)

**73. artikulua.** Prozedura murriztuaren espezialitateak.

1. Prozedura murriztuan Foru Lege honen arau orokorrak aplikatuko dira, honako berezitasun hauekin:

a) Prozedura murriztua iragarri aurretik, Administrazioak prestatua eta justifikatua eduki behar du, administrazio klausula partikularren ple-

guan, zein diren kontratazio-organoak prozeduran parte hartzeko gonbiteak luzatzeko erabili behar dituen irizpide objektiboak.

b) kontratazio-organoak mugak ezarri ahalko ditu, gutxienekoa eta gehienekoa, gonbidatu asmo dituen enpresa kopuruari dagokionez, kontratuaren ezaugarrien arabera, eta iragarkian adierazi behar dituen. Kasu honetan, gutxieneko kopurua ez da bostetik beherakoa izanen, eta gehienekoa hogeitik gorakoa ere ez.

c) Parte hartzeko eskabideei enpresariaren nortasuna, eta, hala denean, horren ordezkari, sailkapena edo kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionalaren baldintzak, iragarkian zehazten direnak, betetzen direla frogatzen duten agiriak erantsi behar zaizkie.

Sailkapenaren agiria aurkezteak 69.2.d) artikuluen bigarren lerroaldean adierazitako ondorioa izanen du.

d) Mahaiak enpresariaren nortasuna eta kaudimena behin egiaztaturik, kontratazio-organoak parte hartzaileak hautatuko ditu eta onartu dituen gonbiteak luzatuko die, aldi berean eta idatziz, proposamenak aurkezteko, gonbitean berean adieraziko den epearen barruan. Epe hori, edozein kasutan, ez da izanen 63 eta 65. artikuluetan aipatutako epeak baino laburragoa. Gonbitearen idazkian jakinaraziko zaio izangaiari proposamenak non, noiz eta zein ordutan irekiko diren.

e) Hautatutako enpresariak beren proposamenak aurkeztuko dituzte behin-behineko bermea utzi izanaren frogagiriarekin batera, horrelako bermerik eskatzen bada.

2. Proposamenak aurkeztuta, esleipena Lege honen arau orokorren arabera eginen da.

## 2. Sekzioa Prozedura negoziatua

### 74. artikulua. Xedapen orokorrak.

1. Prozedura negoziatuan kontratua esleitu zaio Administrazioak arrazoi nahikoarekin hautatutako enpresariari, kontratuaren nondik-norakoak enpresari batekin edo batzuekin kontsultatu eta negoziatu ondoren.

2. Prozedura negoziatua erabiltzen denean beharrezkoa izanen da, Sekzio honetan zehazten diren espezialitateak galarazi gabe, kontratuaren xedea egiteko gaitasuna duten enpresen eskaintza eskatzea, eta horien kopurua ez da hirutik beherakoa izanen, hori posible ez den kasuetan izan ezik. Kasu horietan, zergatia azaldu behar

da. Hautatzen den enpresarekin finkatuko da prezioa eta guztia agertaraziko da espedientean.

3. Kontratazio espedienteen izapidatzeak bete behar dituen iragarpen baldintzak kontuan harturik, prozedura negoziatuak mota hauetakoak izan daitezke:

a) Iragarpenik gabeak.

b) Prentsan iragarri beharrekoak.

c) Europako Komunitatean iragarri beharrekoak.

**75. artikulua.** Prozedura negoziatua, iragarpenik gabea.

1. Aurretiko iragarpenik gabeko prozedura negoziatua erabili ahalko da ondotik ematen diren inguruabarretakoren bat gertatzen denean, espedientean justifikatu behar dena.

2. Hainbat kontratutan gerta daitezkeen kasuak:

a) Kontratua prozedura irekian edo murriztuan esleitzen ez bada lizitatzailerik ez dagoelako, aurkeztutakoak lizitazioan onartu ez direlako edo proposamen arauz kanpokoak edo onartezinak aurkeztu direlako. Kasu horretan, prozedura negoziatuak aurreko prozeduran lizitaziorako onartuak izandako lizitatzaille guztiak hartuko ditu.

Iragarpenik gabeko prozedura negoziatua izapidatzean ezin izanen dira kontratuaren jatorrizko baldintzak aldatu, salbu eta prezioa, edo, zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratuetan, kontraprestazio ekonomikoa, % 10, gehienez ere, igo ahalko baitira. Kasu horretan, kontratuaren zenbatekoa, Balio Erantsiaren gaineko Zerga kenduta, 5.000.000 Ecu-koa edo hortik gorakoa, obretan, edo 200.000 Ecu-koa edo hortik gorakoa, horniduran eta laguntzan, baldin bada, Europako Komunitateko Batzordeari txosten bat igorri behar zaio, berak eskatuta.

b) (KENDUTA)

c) (KENDUTA)

d) Bere berezitasun teknikoa edo artistikoa dela eta, edo eskusibitate eskubideak babestegatik, kontratuaren xedea enpresari bakar baten esku utzi ahal denean.

e) Larrialdi batek, kontratazio-organoarendako aurreikusitakinak diren eta berari egotzi ezin zaizkion gertaeren ondorioz sortutakoak, berehalako exekuzioa eskatzen duenean, eta hori ezin bada lortu presako izapidatze baten bidez edo larrialdietarako Europako Komunitateko Aldizkari Ofizialean argitaratzeko aurreikusitako epeak aplikatuz.

f) Egoki den proiektuan edo obra- zein laguntza-kontratuan agertzen ez diren obra edo laguntza osagarriak, eta halere, egin beharrekoak, ustekabeko gertaeren ondorioz, beti ere zenbateko osoa esleipen prezioaren % 20tik gorakoa ez bada, eta exekuzioa kontratista nagusiaren esku uzten bada, hasierako kontraturako ezarri ziren prezioekin edo, hala behar denean, kontradikzio bidez ezarriko liratekeenekin.

Aurreko lerroaldea aplikatzeko baldintza izanen da prestazio osagarriak kontratu nagusitik bereizteak, teknikoki edo ekonomikoki, kalte larriak ekartzea administrazioarentzat edo, hasierako kontratuaren exekuziotik bereizi ahal baldin badira ere, behar-beharrezkoak izatea kontratu hori behar bezala betetzeko.

Aurreko lerroaldeetan eskatutako beharkizunak betetzen ez dituzten gainerako prestazio osagarriek aparteko kontratazio baten xedea izan beharko dute.

g) Prozedura irekiaren edo murriztuaren bidez lehenago esleitutakoen antzeko obra edo laguntzak errepikatu behar direnean, beti ere errepikatutako prestazioak prozedura ireki edo murriztu horren lizitazio iragarkian sarturik baldin bazeuden eta haien zenbatekoa kontutan hartu bazen kontratuaren zenbateko osoa zehazteko.

Prozedura hau bakarrik erabili ahal da hasierako kontratua formalizatu eta hiru urteko epean.

h) Hornidura edo laguntza-kontratuei buruzkoak, horien uniformitatea administrazioak amankomunean erabiltzeko beharrezkoa dela deklaratu duenean, erabilitako mota aldeztatik eta aparte erabaki baldin bada prozedura irekiaren edo murriztuaren bidez. Ekonomi eta Ogasun Departamentuari dagokio uniformitateari buruzko deklarazio hori egitea.

i) Kontratua isilpekoa edo erreserbatua dela deklaratu denean, edo exekuzioarekin batera segurtasun neurri bereziak hartu behar baldin badira indarra duten legeen arabera.

3. 5.000.000 pezeta edo gutxiagoko obra-kontratuetan, edo, Toki Entitateen kasuan, horien aurrekontuaren baliabide arrunten ehuneko bosta edo gutxiagokoetan, portzentaia hori aplikatuzetik sortutako zenbatekoa 5.000.000 pezetatik gorakoa ez bada.

4. Zerbitzu publikoen kudeaketarako kontratuetan:

a) Lehenbiziko aldiz ezartzeko gastuen aurrekontua 3.000.000 pezeta edo gutxiagokoa izatea

aurreikusten denean eta iraupena bost urtetik beherakoa denean. Toki entitateetan, muga, zenbatekoaren aldetik, aurrekontuaren baliabide arrunten ehuneko bosta izanen da, portzentaia honen aplikaziotik sortutako zenbatekoa ez bada 3.000.000 pezetatik gorakoa.

b) Osasun laguntza ematea, kanpoko bitartekoekin itundua, helburu duten kontratuak, Administrazio Publikoen arteko lankidetzak hitzarmen batetik edo kontratu marko batetik heldu direnak, azken hori Foru Lege honen arauen arabera esleitu baldin bada.

5. Hornidura-kontratuetan:

a) Aurrekontua 2.000.000 pezeta edo gutxiagokoa edo, 17.2.c) artikuluan dauden kasuetarako, 3.000.000 pezeta edo gutxiagokoa duten kontratuak. Toki entitateen kasuan, aurrekontuaren baliabide arrunten 100eko 5a baino haundiagoa ez den zenbatekoa duten kontratuak, portzentaia hori aplikatuta ateratzen den zenbatekoa arestian adierazitakoak baino haundiagoa ez bada.

b) Hasierako hornitzaileak egindako entrega osagarriak, honakoak direnean: ohiko erabilera duten hornidurak edo instalazioak berriz ematea edo dauden hornidurak edo instalazioak handitzea, hornitzailearen aldaketak Administrazioa behartzen duenean beste ezaugarri teknikoak dituen materiala erostera, horrek bateraezintasunak edo neurrigabeko zailtasunak, erabileran zein mantenimenduan, eragingo balitu.

Kontratu horien iraupena, eta berritu ahal diren kontratuena ere, ez da, orohar, hiru urtetik gorakoa izanen.

c) Foru Lege honen arauen arabera esleitutako akordio edo kontratu marko batetik heldu diren esleipenak.

d) Espainiako Ondare Historikoa osatzen duten ondasun higigarriak erostea, Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiaren baimena jaso ondoren.

6. laguntza-kontratuetan:

a) Aurrekontua 2.000.000 pezetakoa edo, toki entitateen kasuan, aurrekontuaren baliabide arrunten 100eko 5a baino haundiagoa ez denean, portzentaia hori aplikatuta ateratzen den zenbatekoa ez bada 2.000.000 pezetatik gorakoa.

b) Kontratuaren izaerak, bereziki izaera intelektuala dutenetan eta 67. artikuluan adierazitako kategorietatik 6.ean daudenetan, prozedura irekiaren edo murriztuaren bidez esleitzeko baldintzak ezartzeko biderik ematen ez duenean.

c) Sektore publikoko ikastetxeetan, irakaskuntzako jarduerak egitea xedea dutenetan, jarduera horiek Administrazioaren zerbitzuko langileentzako prestakuntza edo hobekuntza ikastaroetan gauzatzen badira, bai eta mintegiak, solasaldiak, mahai inguruak, hitzaldiak, lankidetzak edo antzeko beste edozein jarduera.

**76. artikulua.** Iragarpenik gabeko prozedura negoziatuen izapidetzea.

1. Iragarpenik gabeko prozedura negoziatua erabiltzen denean 74.2 artikuluan xedaturikoaren arabera izapidatuko da.

2. Aurreko artikuluen 4, 5 eta 6. idaztien a) letran eta 3. idaztian aipatutako kontratuetan, interesa duen zerbitzuak espediente bat izapidatzea aukeratu ahalko du, eta bertan soilik eskatuko zaio:

a) Kontratua egiteko interesa duen administrazio unitateak kontratuaren oinarriko baldintzak prestatzea. Obra-kontratuetan aurrekontua sartuko da, proiektua ere egotea galarazi gabe, arau bereziki hala eskatzen dutenean. Zerbitzu publikoen kudeaketa kontratuan beharrezkoa izanen da ustiaketa aurreproiektua eta behar diren lanak ere onestea.

b) Kontratuaren izapidatzea bere gain hartzen duen zerbitzuak kontratua exekutatzeke gaitasuna duten hiru enpresari, gutxienez, eginen die kontsulta. Betekizun hori bete ahal ez izatearen zergatia azaldu egin beharko da.

Enpresa horiek emandako informazioa, proposamentzat hartzen ez dena, ikusirik, zerbitzu kudeatzaileak hasieran ezarritako baldintzen artean sartu ahalko ditu kontratuaren exekuzioa hobea izateko egokitzat jotzen diren aldaketak, eta hasieran kontsultatutako enpresei berriz eskatuko die iritzia.

Aipatutako administrazio jarduketak espedientean agertarazi beharko dira, agiri bidez.

Egindako kontsultetatik ateratako datuei jarraikiz, zerbitzu kudeatzaileak egokien ikusten duen enpresari eskatuko dio eskaintza baten aurkezpen formalak egiteko, bera hautatzeko arrazoia izan den aurretiko eskaintzaren ezaugarriei lotu beharko zaiena.

c) Kontuhartzaitzak gastua fiskalizatzea.

d) kontratazio-organoaren ebazpena, gastua onesteko eta kontratua esleitzeko.

3. 500.000 pezeta edo gutxiagoko prezioa duten kontratuetan eskatuko den agiri bakarra faktura izanen da.

4. Kontuhartzaitzak egindako fiskalizazioa kenduta, Foru Lege honen xedapenak ez dira aplikagarriak izanen 75.6. artikuluen c) letran aipatutako kontratuen prestaketan eta formalizazioan. Kontratu horiek eginak daudela frogatzeko, nahikoa izanen da eskumena duen agintariak hautatu edo izendatzea.

**77. artikulua.** Prentsan iragarritako prozedura negoziatua: esparrua eta izapidatzea.

1. Prentsan iragarritako prozedura negoziatua erabili ahalko da honako inguruabar hauetakoren bat dagoenean, espedientean justifikatuko dena:

a) Aurrekontua 20.000.000 pezeta baino gutxiagokoa duten obra-kontratuetan.

b) Zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratuetan, lehenbiziko aldiz ezartzeko gastuen aurrekontua 5.000.000 pezetatik beherakoa izatea aurreikusiten denean, iraupena bost urtetik beherakoa izanik.

c) Gainerako administrazio kontratuetan, aurrekontua 5.000.000 pezetatik beherakoa denean.

2. Prentsan iragarritako prozedura negoziatuan kontratazio espedientearen izapidatzea honako jarduketak hauei egokituko zaie:

a) Eskumena duen zerbitzuak kontratua exekutatzeke baldintza juridikoak, ekonomikoak eta teknikoak finkatzea. Baldintza horien artean kontratua esleitzeko irizpideak ere egon beharko dira.

b) Kreditua dagoela dioten deklarazioa, dago-kion administrazio unitateak egina, eta txosten juridikoa.

c) Kontratuaren lizitazioaren iragarkia Nafarroako eguneroko prentsan argitaratzea aski izanen da, erregelamendu bidez zehaztuko diren irizpideei jarraikiz.

Aurrekoa galarazi gabe eta informaziorako, soilik, Administrazio Kontratazioarako Batzordeak eskatzailearen interesekoak izan litezkeen kontratazio deialdien berri emanen die hala eskatzen dutenei.

d) Proposamenak aurkezteke epea 63.3 artikuluan xedatutakoari egokituko zaio.

e) kontratazio-organoaren zerbitzu juridikoek kalifikatuko dute lizitatzaitzaileek aurkeztutako dokumentazioa eta horiek onartzeko erabakia ere haiek hartuko dute.

f) Proposamen teknikoak eta eskaintza ekonomikoa jendaurrean irekiko dira.



Aurrekoa gorabehera, hasierako baldintzek hori ahalbidetzen badute, kontratazio espediente-an esku hartzen duen kudeaketa unitateak ekitaldi pribatuan ireki ahalko ditu proposamen teknikoak, eta administrazio baldintzetan sartu eta bereganatu lizitatzailleek proposatutako hobekuntzak, elementuak edo ezaugarriak, kontratuaren xedea hobeki betetzeko egokiak direla irizten badio. Kasu horretan, aldaketa horietan oinarriturik, proposamenak eskatzeko fase berri bat irekiko da, hasieran aurkeztutako lizitatzaille guztiekin.

Proposamenak aurkezteko epea ez da 14 egunetik beharrena izanen, horretarako jakinarazpena egin eta biharamunetik kontatzen hasita.

Adierazitako aldaketetan oinarriturik eskaintza egiteko interesik ez duten lizitatzailleek lizitazioa utzi ahalko dute.

g) Administrazio kontratu-egilearen unitate teknikoek proposamenak baloratuko dituzte baldintzen irizpideen arabera, eta orokorrean onena den eskaintzaren aldeko esleipen proposamena eginen dute. Administrazio horrek langile baliabide nahikorik baldin badu, balorazioa eta proposamena bere langileen arteko bik izenpetu beharko dituzte, eta langile horiek kontratuaren xedea den arloan aritzen direnak edo espedientearen izapitatzean zuzenean parte hartu dutenak izan beharko dute.

h) Kontuhartzaitzak gastua fiskalizatzea.

i) kontratazio-organoaren ebazpena, klausulen plegua eta gastua onetsi eta kontratua esleitzen duena.

LETRA BERRIA) Esleipena 91. artikuluan adierazitakoari jarraituz jakinaraziko eta argitaratuko da, eta kontratua 92. artikuluan aurreikusitako moduan formalizatuko da.

3. Kontratazio Mahaia izendatu baldin bada, honi dagozkio honako eginkizunak: dokumentazioaren kalifikazioa, lizitatzailen onarpena, aldaketak bereganatzea eta proposamen berriak eskatzea, hala behar baldin bada, eta proposamenak baloratzea, horrekin batera esleipen proposamena eginez.

**78. artikulua.** Europako Batasuneko iragarpena duen prozedura negoziatua.

1. Kontratazio-organoak erabaki dezake komunitatean iragarri beharreko prozedura negoziatua aplikatzea 5.000.000 Ecu edo gehiagoko zenbatekoa duten obra-kontratuetan, eta 200.000 Ecu edo gehiagokoa duten hornidura edo laguntza-kontratuetan, aipatutako kasu guztietan, Balio Erantsiaren gaineko Zerga kenduta, honako ingu-

ruabar hauek gertatzen direnean, espedientearen justifikatu beharko direnak:

a) Obra, hornidura eta laguntza-kontratuak, prozedura irekietan edo murriztuetan aurkeztutako proposamenak arauz kanpokoak edo onartezinak izanik, kontratuaren hasierako baldintzak funtsean aldatzen ez badira.

b) 75.2 artikulua b) eta c) letretako kasuak aplikatu ahal zaizkien obra-kontratuak.

c) 75. artikulua 2. idaztiaren c) letran eta 6. idaztiaren b) letran aurreikusitako inguruabarran sartutako laguntza-kontratuak.

2. Aurreko idaztarian adierazitako hipotesian, hau da, proposamenak arauz kanpokoak edo onartezinak izatean, ez da beharrezkoa izanen lizitazio iragarkia egitea Europako Komunitateetako Aldizkari Ofizialean, 64.3 artikulua aipatzen duen bezala, prozedura negoziatuan sartzen badira aurreko prozedura irekia edo murriztua zela eta, lizitazioan onartuak izan ziren lizitatzaille guztiak.

3. Eskabideak jasotzeko epea amaiturik, kontsultak eginen dira prestazioa egiteko gaitasuna duten enpresa eskatzaileekin.

### III. KAPITULUA Esleipen motak

#### 1. Sekzioa Enkantea

**79. artikulua.** Kontzeptua eta aplikazioa.

1. Enkantea dirutan adierazitako prezio batean oinarriturik eginen da eta, hura gaingitu gabe, preziorik baxuena eskaintzen duen lizitatzaileri eginen zaio esleipena.

2. Enkantea erabili ahalko da zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratuetan, hornidurako eta laguntza-kontratuetan haien helburua oso ongi zehazturik dagoenean eta kontratuan inolako aldaketarik sartzerik ez dagoenean soilik, prezioa izanik, horren ondorioz, esleipenerako faktore erabakior bakarra.

**80. artikulua.** Esleipen proposamena.

1. Kontratazio Mahaia lizitatzailleek epearen barruan eta behar bezala aurkeztutako dokumentazioa kalifikatuko du, eta egoki ikusten badu bost egunetik gorakoa izanen ez den epea eman ahalko du akatsak zuzendu edo dokumentazioa osatzeko. Ondoren, jendaurreko ekitaldian, onartutako eskaintzak irekiko ditu Mahaia.

2. Kontratazio Mahaiari dagokio, era berean, kontratazio-organoari igortzea kontratua preziorik baxuena eskaintzen duenari esleitzeko proposamena.

Esleipen proposamenak ez dio inolako eskubiderik ematen proposatutako enpresariari administrazioarekiko, kontratazio-organoak kontratua esleitu ez dion bitartean.

**81. artikulua.** Esleipena eta ausarkeriazko beherapenak.

1. Enkanteetan, esleipena egin beharko da jasotako eskaintzak jendaurrean ireki eta bihar-munetik hasita hogeit eguneko gehieneko epearen barruan.

Esleipen egintza aurreko lerroaldean adierazitako epearen barruan egiten ez bada, enpresariak eskubidea izanen du bere proposamena kendu eta utzitako bermea berreskuratu edo bertan behera uzteko.

2. Kontratazio-organoaren egintza proposamenera egokituko da, salbu eta kasu hauetan:

a) Kontratazio Mahaiak proposamena ordenamendu juridikoa hautsiz egin duenean, kasu horretan deialdia baliorik gabe geldituko baita. Salbuespentzat hartzen da honako kasu hau: arau-hausteak ukitzea soilik proposamena aldekoa duen lizitatuak. Kasu horretan esleipena egiten da arau-hausteak ikutzen ez duen hurrengo eskaintza-egilearen alde.

Ebatzi aurretik aginduzkoa izanen da kontratazioa egiten duen Departamentu, Entitate edo erakundearen txosten juridikoa.

b) kontratazio-organoak pentsatzen baldin badu, horretarako arrazoiak oinarriturik, proposamena ez dela bete ahal, neurrigabekoak edo ausarkeriazkoak diren beherapenak direla eta.

Kasu horietan Administrazio Kontrataziorako Batzorde Aholkulariaren txostena eskatuko da, gertatzen diren inguruabarrak direla-eta hori komenigarria denean.

Kontratazio-organoak horren berri emanen die interesatuei eta artikuluan honen 1. idazatiaren lehenbiziko lerroaldean aipatzen den epea berrogei eguneko izanen da.

3. Beherapenen izaera neurrigabea edo ausarkeriazkoa den ala ez erregelamendu bidez ezarriko diren irizpide objektiboaren arabera zehaztuko da, eta horren deklarazioa egin aurretik entzutea eman beharko zaie ustez sartuta dauden lizitatuak guztiei, eta beharrezkoa izanen da dagokion zerbitzuaren aholkularitza teknikoa.

4. Kontratazio-organoak, aipatutako txostenak ikusirik, esleipena erabakiko du preziorik baxuena duen eta administrazioaren nahiaren arabera bete ahal den proposamenaren alde, edo, horren ezean, ausarkerian sartuta ez dagoen eskaintza-egilerik onenaren alde.

Lizitazio iragarkia "Europako Komunitateen Aldizkari Ofizialean" argitaratu baldin bada, erabakiaren arrazoiak azalduko zaizkio Europako Komunitatearen Batzordearen Kontratu Publikoetarako Batzorde Aholkulariari.

**82. artikulua.** Esleipena amaiarazpen kasuetan.

1. Kontratua amaiaraztea erabakitzen denean esleipen hartzaileak hura formalizatzeko behar diren baldintzak betetzen ez dituelako, Administrazioak kontratua esleitu ahal dio hurrengo lizitatuak, eskaintzen balorazioaren ordenaren arabera, handienetik txikienera, beti ere, ahal baldin bada, beste deialdi bat egin aurretik, eta esleipen hartzaile berriaren adostasunarekin.

2. Administrazioak prozedura bera erabili ahal du esleipenaren helburua hasitako kontratu bat, amaiarazirik dagoela deklaratu dena, exekutuari berrekitea denean.

## 2. Sekzioa Lehiaketa

**83. artikulua.** Aplikazio kasuak.

1. Lehiaketan, esleipena emanen zaio proposamenik onena, orokorrean hartuta, egiten duen lizitatuak, kontuan hartuta pleguan ezarritako irizpideak, eta ez bakarrik balio ekonomikoa; hau guztia, Administrazioak kontratua esleitu gabe uzteko duen eskubidearen kalterik gabe, ebazpen hori, edozein kasutan, arrazoitu beharko delarik.

Bereziki, kasu hauetan aplikatuko da:

a) Administrazioak alde aurretik ezartzerik izan ez dituen proiektuak edo aurrekontuak dituzten kontratuak, lizitatuak aurkeztu beharrekoak.

b) kontratazio-organoaren iritziz Administrazioak onartutako prestazioaren definizioa beste irtenbide tekniko batzuek edo exekuzio epearen murrizketek, lizitatuak proposatu beharrekoak, hobetu ahal dutenean.

c) Kontratuaren exekuziorako Administrazioak material edo bitarteko lagungarriak uzten dituenan, eta kontratisten aldetik berme bereziak eskatzen direnean horien erabilera egokia izan dadin ziurtatzeko.

d) Teknologia bereziki aurreratua eskatzen dutenak edo exekuzioa bereziki zaila den kasuetan.

2. Enkantea egiteari dagozkion arauak lehiaketarako ere balioko dute, salbu eta esleipen mota hari eta ez besteri aplikatu dakiokenean.

**84. artikulua.** Lehiaketa esleitzeko irizpideak.

1. Lehiaketaren administrazio klausula partikularren pleguan ezarriko dira, behar bezala neurtuak eta handienetik txikienera ordenaturik, esleipenerako oinarritzat hartuko diren irizpide objektiboak, hala nola, prezioa, berrikusteko formula, horrelakorik dagoenean, exekuziorako edo emateko epea, erabileraren kostua, kalitatea edo honen kontrola, errentagarritasuna, balio teknikoak, ezaugarri estetikoak zein funtzionalak, ordezko piezak lortzeko aukera, mantenimendua, laguntza teknikoak, salmentaren ondoko zerbitzua edo antzekoak, kontratazio-organoak erabakia hartzeko kontuan hartuko dituenak.

2. (KENDUTA)

**84 bis artikulua.** Kontratazio Mahaiaren jardura.

Kontratazio Mahaia eratu ondoren, gutunazalak honako ordena honetan irekiko dira:

1. Dokumentuak kalifikatzea, lehiaketan onartua izateko baldintzak betetzen diren egiaztatzea.

2. Proiektu teknikoak irekitzea, esleipen irizpideetako puntuak esleitzeko.

3. Proposamen ekonomikoak irekitzea; horrela, aurreko fasean emandako baremoa ezaguna izanik, esleipen-hartzailea nor den zehaztu ahal izanen da.

**85. artikulua.** Aldaeren onarpena.

1. Kontratazio-organoak kontuan hartu ahalko ditu lizitatzailerik eskainitako aldaerak edo alternatibak, baldin eta administrazio klausula partikularren pleguan aurkezpeneko adierazitako baldintzei eta motei erantzuten badiete.

2. Kontratazio-organoak aldaera edo alternatibetarako baimenik ematen ez duenean, hala agertaraziko da pleguan eta iragarkian.

**86. artikulua.** Esleipenerako proposamena.

Kontratazio Mahaiak egindako esleipen proposamenak adieraziko ditu, edozein kasutan, proposamen bakoitzari buruz egiten diren estimazioak, administrazio klausula partikularren pleguan ezarritako irizpide objektibo ponderatuak aplikatuz.

**87. artikulua.** Esleipen epea.

1. Kontratazio-organoak, behar diren txosten teknikoak emanik, kontratua esleitu du hiru hilabeteko gehieneko epean, proposamenak irekitzen direnetik, administrazio klausula partikularren pleguan beste eperik ezartzen ez bada.

2. Esleipenaren erabakia epearen barruan ematen ez bada, lehiaketan onartutako enpresari eskubidea izanen dute beren proposamena kendu eta utzitako bermea berreskuratu edo bertan behera uzteko.

**88. artikulua.** Proiektu lehiaketak epaimahaia-  
ren eskuhartzearekin.

1. Proiektu lehiaketatzat jotzen dira honako ezaugarri hauek dituzten prozedurak: partehartzaileekin bat ere harremanik ez duten pertsona fisikoek soilik osatutako epaimahai batek esku hartzen duenean, eta, sariak izanik ala ez, lizitazio baten bidez, planak edo proiektuak prestatzeko helburua dutenak, batez ere lurraldearen antolamenduaren esparruan, hirigintzan, arkitekturan, ingeniartzean eta datu prozesamenduan.

Epaimahaiak erabakiak edo irizpenak erabateko independentziaz hartuko ditu, modu anonimoz aurkeztutako proiektuetan oinarrituta eta lehiaketaren iragarkian adierazitako irizpideen arabera soilik.

2. Lehiaketaren zenbatekoa, partehartzaileendako sarien eta ordainketen zenbateko guztirako akzehaztua, 200.000 Ecu-koa edo gehiagokoa denean, Balio Erantsiaren gaineko Zerga kenduta, kontratazio-organoak argitara emanen du lehiaketari buruzko iragarki bat Europako Komunitateetako Aldizkari Ofizialean.

3. Partehartzaileen kopurua mugatua baldin bada, irizpide objektibo, argi eta ez-baztertzailerik bidez hautatuko dira.

4. Proiektu lehiaketa baten irabazleari kontratuak esleitzeko, lehiaketaren jarraipena baldin badira eta baldintzetan aurreikusirik badago, iragarpenik gabeko prozedura negoziatua erabili ahalko da. Irabazle bat baino gehiago egonez gero guztiei egin beharko zaie negoziazioan parte hartzeko gonbitea.

5. Proiektuaren lehiaketa egiten dela Europako Komunitateen Aldizkari Ofizialean iragarri baldin bada, Aldizkari horretan emaitza ere argitaratu beharko da, ebatzi eta berrogeita zortzi egunetako epean.

**89. artikulua.** Informazioaren tratamendurako ekipoak edo sistemak erosteko lehiaketak.

1. Informazioaren tratamendurako ekipoak edo sistemak kontratatzean, lehiaketaren administrazio klausula partikularren pleguan aurreikusten denean, lehiaketa bi fasetan ebatzi ahalko da:

a) Lehenbizikoan, kontratazio Mahaiaren iritziz administrazioarentzat onenak diren eskaintzak hautatuko dira.

b) Bigarrenaren xedea izanen da aurrekoen artean hautatzea esleipenerako proposatuko den eskaintza, behin ziurtaturik eskaintza klausulen pleguan oinarritzat hartu diren lanei egokitzen zaiela.

2. Bigarren faserako hautatutako eskaintzak, prestakuntza lanak eta aginduko diren probak garatzen dituztenak, aurkeztu eta lehiaketaren esleipena jasotzen ez dutenei, plegu partikularrean aurreikusitako diru ordaina emanen zaie.

#### IV. KAPITULUA

##### Perfekzionatu, formalizatu eta jakinaraztea

###### 90. artikulua. Kontratuak perfekzionatzea.

Kontratuak eskumena duen kontratazio-organismoak egindako esleipenaren bidez perfekzionatzen dira, edozein izanik prozedura edo esleipen mota.

**91. artikulua.** Esleipenak jakinaraztea eta iragartzea.

1. Kontratuaren esleipena, behin kontratazio-organismoak erabakia eta edozein izanik erabilitako prozedura eta esleipen mota, lizitazioan parte hartu dutenei jakinaraziko zaie eta, formalizatu ondoren, Kontratuen Erregistro Publikoari emanen zaio horren berri. Azken jakinarazpen hau erregelamendu bidez zehaztuko diren moduan eta kasuetan eginen da.

Esleipenean adierazi beharko da ea mahaia- ren edo kontratazio batzordearen proposamena- rekin bat datorren, eta erabakitzerakoan kontuan izandako zirkunstantzien laburpen arrazoitua eskaini beharko da.

2. Partaideen kopurua oso handia denean, esleipena lizitazioan parte hartzen duten guztiei, banaka jakinarazi ordez, Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta kontratazio-organismoaren iragarki oholean argitaratu ahalko da, esleipen hartzaileari dagokionean izan ezik. Erregelamendu bidez ezarriko dira ordezko iragarpen mota honi aplikatu ahal zaizkion baldintzak.

3. Esleipenaren zenbatekoa 5.000.000 pezeta- tik gorakoa baldin bada, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da egindako esleipena adie-

razten duen iragarki bat, kontratua esleitzen dene- tik 48 eguneko epean, gehienez ere.

75.2.f) artikulua kasuan, Nafarroako Aldiz- kari Ofizialean iragarpena eginen da, baita ere, aurreko lerroaldean aipaturiko zifra baino zenba- teko txikiagoa duten kontratu osagarrien batura aipaturiko muga baino handiagoa denean.

Horrez gain, Europako Komunitateetako Aldiz- kari Ofizialean derrigorrez iragarri behar diren kontratueta eta 200.000 Ecu-koak edo gehiagio- koak diren laguntza-kontratueta, Balio Erantsia- ren gaineko Zerga kenduta, 67. artikuluan adiera- zitako kategorietatik 17.etik 27.era bitartekoetan sartutakoetan, aipatu Aldizkarira eta Estatuko Aldizkari Ofizialera igorri beharko da, arestian aipatutako epe berean, lizitazioaren emaitza ager- tzen duen iragarki bat.

4. Zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratueta- rako, esleipenak Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea derrigorrezkoa izanen da lehenbiziko aldiz jartzeko gastuen aurrekontua 5.000.000 pezetakoa edo gehiagokoa eta iraupena 5 urtetik gorakoa direnean.

5. Salbuespen gisa, esleipena ez da iragarri beharko kontratua egiteari buruzko informazioa zabaltzea legeen aplikaziorako oztopoa denean, interes publikoaren kontra doanean, enpresen merkataritzako bidezko interesetarako kaltegarria denean edo haien arteko lehia garbirako kalteak ekarri ahal dituztenean eta iragarpenik gabeko pro- zedura negoziatua erabili den kasuetan kontratua- ren izaera isilpekoa edo erreserbatua izateagatik, edo haren exekuzioak segurtasun neurri bereziak eskatzen dituelako. Eta espedientearen behar beza- la agertarazi beharko dira ingurabar guztiak.

6. Aurreko idaztietan xedatutakoaren kaltetan joan gabe, kontratazio-organismoak onartu ez diren izangai edo lizitatzaille guztiei, hala eskatzen badute, idatziz jakinaraziko dizkie, eskabidea jaso eta ondoko hamabost eguneko epean, eskaintza edo proposamena atzera botatzeko arrazoiak eta esleipen hartzailearen proposamenean zein ezau- garri izan diren erabakiorrak esleipena bere alde emateko garaian, eta jakinarazteari dagokionez aurreko idaztietan xedatutakoa beteko da.

**IDAZATI BERRIA.** Modu berean jokatu da eskainitako kontratu bati uko egin edo prozedurari berriz hasiera ematea erabaki denean. Erabaki honen berri Europako Komunitateetako Argitalpen Ofizialen Bulegoari ere emanen zaio, kontratua Europako Komunitateetako Aldizkari Ofizialean iragarri baldin bada.

**92. artikulua.** Kontratuak formalizatzea.

1. Kontratuak agiri administratiboan formalizatu dira esleipena jakinarazi eta biharamunetik hasita hamabost eguneko epean, eta agiri hori izanen da edozein erregistro publikotara sartzeko nahiko titulu. Halere, eskritura publiko bihurtu ahalko da kontratistak hala eskatzen duenean, eta hortik eratorritako gastuak horrek ordainduko ditu.

Aurreko lerroaldean xedatutakotik kanpo geldituko dira izapidatze laburtua duen iragarpenik gabeko prozedura negoziatu bidez esleitutako kontratuak, 76. artikulua 2, 3 eta 4. idazatietan aurreikusitakoari jarraikiz.

2. Foru Lege honetan ezarritako salbuespenak izan ezik, formalizatzeko ezinbesteko baldintza izanen da enpresariak aurretik ematea interes publikoak zaintzeko aurreikusi diren bermeak.

3. Kontratu-egileari egotzi ahal zaizkion arrazoiak direla-eta kontratua ezin bada formalizatu aipatutako epearen barruan, Administrazioak erabaki ahalko du hura amaiaraztea, eta beharrezko izapidea izanen da interesatuari entzutea ematea. Kasu horretan behin-behineko bermearen inkautzioa egin eta kalteak ordaindu eginen dira.

4. Ez formalizatzearen arrazoiak Administrazioari egotzi ahal zaizkionean, kontratistari kalte-ordaina emanen zaio berandutzeak ekarri ahal dizkion kalte eta galerengatik, eta kontratua amaitaraztea eska dezakeela kontuan hartu gabe.

5. Kontratuaren exekuzioari ezin izanen zaio hasiera eman aurretik formalizatu gabe, Foru Lege honen 56 eta 57. artikuluetan aurreikusitako kasuetan salbu.

**93. artikulua.** Ahozko kontratazioa.

Administrazioak ez du ahozko kontrataziorik egiterik izanen, salbu eta kontratua larrialdikoa bada.

**VI. TITULUA****Kontratuaren exekuzioa, aldaketa eta etetea****I. KAPITULUA****Kontratuaren exekuzioa****1. Sekzioa****Xedapen orokorrak****94. artikulua.** Kontratuaren ondorioak.

Administrazio kontratuaren ondorioak Foru Lege honek, hau garatzeko xedapenek eta kontratuaren pleguek edo baldintza administratibo eta teknikoek arautuko dituzte.

**95. artikulua.** Exekuzioaren berandutza.

1. Kontratista beharturik dago kontratua betetzera hura egiteko finkatutako epe osoaren barruan, bai eta exekuzioa aurrera eramateko adierazitako epe partzialetan ere.

2. Kontratista berandutzan sartzeko ez da beharrezkoa izanen Administrazioak hari aldeztu aurretik intimizazioa egitea.

3. Kontratista, berari leporatu ahal zaizkion arrazoiengatik, berandutu baldin bada epe osoa betetzeari dagokionez, Administrazioak bi aukera izanen ditu, kontratua amaiarazi edo hurrengo eskala honetan zehazten diren zigorrak ezarri.

– 500.000 pezeta bitarteko prezioa duten kontratuak, 500 pezeta eguneko.

– 500.001 pezetatik 1.000.000 pezetara bitarteko prezioa duten kontratuak, 1.000 pezeta eguneko.

– 1.000.001 pezetatik 5.000.000 pezetara bitarteko prezioa duten kontratuak, 2.000 pezeta eguneko.

– 5.000.001 pezetatik 10.000.000 pezetara bitarteko prezioa duten kontratuak, 3.000 pezeta eguneko.

– 10.000.001 pezetatik 25.000.000 pezetara bitarteko prezioa duten kontratuak, 5.000 pezeta eguneko.

– 25.000.001 pezetatik 100.000.000 pezetara bitarteko prezioa duten kontratuak, 10.000 pezeta eguneko.

– 100.000.001 pezetatik 250.000.000 pezetara bitarteko prezioa duten kontratuak, 25.000 pezeta eguneko.

– 250.000.001 pezetatik 750.000.000 pezetara bitarteko prezioa duten kontratuak, 75.000 pezeta eguneko.

– 750.000.001 pezetatik 1.000.000.000 pezetara bitarteko prezioa duten kontratuak, 100.000 pezeta eguneko.

– 1.000.000.001 pezetatik aurrera, egunean 10.000 pezeta bakoitzeko 1.

4. Berandutzagatik zigorrak kontratuaren zenbatekoaren 100eko 20koak izatera iristen direnean, kontratazio-organoak ahalmena izanen du hura amaiarazi edo exekuzioaren jarraipena erabakitzeke, zigor gehiago ezarrita.

Halaber, ahalmen hau bera izanen du Administrazioak ere kontratistak epe partzialak betetzen ez baditu, administrazio klausula partikula-



rren pleguan aurreikusita baldin badago, edo epeak betetzen berandutzeak arrazoiz pentsarazten duenean epe osoa betetzerik ez dela izanen.

**96. artikulua.** Berandutzagatiko amaiaztea eta kontratuen luzapena.

1. Aurreko artikulua aipatzen duen kasuan, Administrazioak amaiaztea aukeratzen badu, kontratazio-organoak horretarako erabakia hartu beharko du, eta aginduzko izapide bakarra izanen da kontratistari entzutea ematea eta, hau kontra agertzen bada, Estatu Kontseiluaren irizpena.

2. Berandutzea kontratistari leporatu ezin dakizkiokeen arrazoiengatik gertatzen bada, eta honek esaten badu konpromisoak beteko dituela ezarriko zuen denbora epearen luzapena eman gero, Administrazioak epe bat emanen dio, gutxienez, galdutako denbora berekoa izanen dena, kontratistak laburragoa eskatzen ez badu.

**97. artikulua.** Kalte eta galeren ordainak.

1. Kontratistaren betebeharra izanen da hirugarrenei, kontratuaren exekuzioak eskatzen dituen operazioen ondorioz, egindako kalte eta galera guztien ordaina ematea.

2. Kalte eta galera horiek Administrazioaren agindu baten ondorio berehalako eta zuzena direnean, erantzulea Administrazioa izanen da legeek ezarritako mugen barruan. Administrazioa ere erantzulea izanen da berak prestatutako proiektuak, obra-kontratuan edo hornidura-fabrikazio kontratuan, dituen akatsen ondorioz hirugarrenei egindako kalteen kasuan.

3. Hirugarrenek eskaera egin ahalko diote aurretik kontratazio-organoari, gertaera izan eta urtebeteko epean, kalteen erantzukizuna kontratuaren zein alderdiri dagokion ebatz dezan kontratistari entzutea eman ondoren.

Ahalmen hau baliatzeak akzio zibilaren preskripzio epea eteten du.

**98. artikulua.** Arriskua eta zoria.

Kontratuaren exekuzioa eginen da kontratistaren arriskuz eta zortez, obra-kontratuetan ezinbesteko kasuetarako ezarritakoaren kalterik gabe.

**99. artikulua.** Prezioaren ordainketa eta kobrantza eskubideen transmisioa.

1. Kontratistak eskubidea izanen du egindako prestazioa ordain diezaitoten, Foru Lege honetan eta kontratuan ezarritako moduan eta hitzartutako prezioaren arabera.

2. Prezioaren ordainketa egin ahalko da osorik edo zatika, kontuaren onaren gaineko ordainketen bidez.

3. Kontratistak eskubidea izanen du kontuaren gaineko ordainketak jasotzeko, kontratuaren exekuzioa prestatzeko eragiketen zenbatekoarekin eta kontratuaren helburuan sartuta baldin badaude, dagozkion pleguetan zehaztutako baldintzetan, eta ordainketa horiek ziurtatu beharko dira bermea emanez.

4. Administrazioa behartuta egonen da prezioa ordaintzera obren egiaztagiriak edo kontratua osorik edo hein batean egin dela frogatzen duten agiriak luzatu eta ondoko bi hilabetetan, 127. artikuluan ezarriko epe bereziaren kalterik gabe, eta berandutzen bada, kontratistari ordaindu beharko dio, bi hilabeteko epe hori betetzen denetik aurrera, diruaren legezko korritua gehi 1,5 puntu, zor denarena.

5. Ordainketaren berandutza lau hilabetetik gorakoa bada, kontratistak kontratua betetzea eten ahalko du, eta Administrazioari eman beharko dio horren berri hilabete lehenagotik, eten horren ondorioz sor daitezkeen eskubideak aitorztearen ondorioetarako, Foru Lege honetan ezarritako moduan.

6. Administrazioaren berandutza zortzi hilabetetik gorakoa bada, kontratistak eskubidea izanen du, halaber, kontratua amaiaztea eta horren ondorioz sortutako kalteen ordaina jasotzeko.

7. Arestiko idazatiei jarraikiz, Administrazioetik kobratzeko eskubidea duten kontratistek eskubide hori laga ahalko dute, zuzenbideari jarraikiz.

Kobratzeko eskubidearen lagapenak erabateko ondorioak izateko Administrazioaren aurrean, ezinbesteko baldintza izanen da horri lagapen erabakiaren jakinarazpen fede-emailea egitea. Behin Administrazioak lagapen erabakiaren berri izanik, pagamenduaren agindua lagapen hartzailearen alde luzatu beharko da. Administrazioari

lagapenaren berri eman aurretik, kontratistaren aldeko pagamendu aginduek askatzeko ondorioak izanen dituzte.

## **2. Sekzioa** **obra-kontratuaren exekuzioa**

**100. artikulua.** Zuinketaren egiaztapena.

obra-kontratuaren exekuzioa zuinketaren egiaztapen aktarekin hasiko da. Horretarako, administrazio klausula partikularren pleguan ezarriko den eta, justifikatutako kasuetan salbu, kontratua formalizatzen den egunetik hilabete baino

gehiagokoa izanen ez den epearen barruan, obra horien ardura duen Administrazioaren zerbitzuak kontratistaren aurrean egiten du lizitazioaren aurretik egindako zuinketaren egiaztapena, eta emaitzaren akta egiten da, eta interesa duten bi alderdiek sinatuko dute.

**101. artikulua.** Obren exekuzioa eta kontratistaren erantzukizuna.

1. Obrak administrazio klausula partikularren pleguan araututa dagoenari eta kontratuaren oinarria den proiektuari estuki lotuta egiten dira, eta kontratuaren interpretazio teknikoa eginez obretako zuzendari fakultatiboak kontratistari emanen dizkion jarraibideei segituz. Jarraibide horiek ahozkoak direnean, idatziz berretsi beharko dira eperik laburrenean, alderdiendako lotesleak izan daitezten.

2. Obrak egin bitartean eta bermearen epea amaitu arte, kontratista izanen da eraikinean antzeman daitezkeen akatsen erantzulea.

**102. artikulua.** Ziurtagiriak eta konturako ordainketak.

1. Ordainketaren ondorioetarako, Administrazioak egiaztagiriak luzatuko ditu hileroko, denbora epe horretan egindako obrari buruzkoak, administrazio klausula partikularren pleguan kontrako aurreikuspena egin ez bada. Epe horien ordainketek kontu onerako ordainketaren izaera dute, azken neurketan egiten diren zuzenketa eta aldatketen menpekoak, eta ez dute inolaz ere esan nahi biltzen dituzten obrak onetsi eta onartzen direnik.

2. Kontratistak eskubidea izanen du konturako ordainketak jasotzeko, egindako prestakuntza operazioen zenbatekoaren gainekoak, instalazioak eta obrari atxikitako materialak edo makineria astuneko ekipoak metatzea, kasu, beti ere aukera hori administrazio klausula partikularren pleguan aurreikusirik baldin badago, erregelamendu bidez zehaztuko diren baldintzetan eta mugekin, eta ordainketa horiek ziurtatu beharko dira bermea emanez.

**103. artikulua.** Ezinbesteko kasuak.

1. Ezinbesteko kasuetan eta kontratistaren aldetik axolagabekeriarik ez badago, horrek eskubidea izanen du sortutako kalte eta galeren ordaina jasotzeko.

2. Ezinbesteko kasutzat honakoak hartuko dira:

a) Elektrizitate atmosferikoak eragindako suteak.

b) Hondamendiak ekartzen dituzten naturaren fenomenoak, lurrikarak, lurrraren mugimenduak, uholdeak eta antzekoak, kasu.

c) Gerra garaiaren, jendetzak eginiko lapurketen edo ordena publikoaren alterazio larrien ondorioz bortxakeriaz eragindako suntsiketak.

### 3. Sekzioa

#### Zerbitzu publikoen kudeaketarako kontratuaren exekuzioa

**104. artikulua.** Kontratistaren betebeharrak.

1. Kontratista beharturik dago behar diren obrak egitera eta zerbitzua antolatuzera kontratuan ezarritako ezaugarriei hertsiki lotuz eta bertan aipatutako epeen barrenean.

2. Orohar, honako betebeharrak hauek bete beharko ditu:

a) Zerbitzua ematea hitzartutako jarraipenaz eta partikularrei ziurtatzea ezarritako baldintzetan erabiltzeko eskubidea, onartutako tarifetan dagoen prezioa ordainduta, halakorik dagoenean.

b) Zerbitzuaren antolamendua egokia dela zaintzea, eta horretarako jarraibideak eman ahalko dira, Administrazioak kasuan kasuko zerbitzuaren jardun egokia ziurtatzeko beti ere gordeko dituen zaintza ahalmenak galarazi gabe.

c) Zerbitzua aurrera eramateak eskatzen dituen eragiketen ondorioz hirugarrenei sortutako kalteen ordaina ematea, kalteak Administrazioari leporatu ahal zaizkion arrazoiengatik gertatzen direnean salbu.

d) Nazionalitateagatik ez baztertzeko printzipioa errespetatzea, Europako Komunitateko kide diren edo Merkataritzarako Munduko Erakundearen Kontratazio Publikoari buruzko Akordioa izenpetu duten Estatuetakoen enpresei dagokienez, zerbitzu publikoen kudeaketa kontratuen ondorio diren hornidura-kontratuak.

**105. artikulua.** Prestazio ekonomikoak eta baliabide lagungarriak.

1. Kontratistak eskubidea du kontratuan aurreikusitako prestazio ekonomikoak jaso eta horien berrikuspena egin dadin, egoki denean, kontratuak berak ezarritako moduan.

2. Administrazioak kontratistari prestazio ekonomikoak ematen ez badizkio edo kontratuaren arabera baliabide lagungarriak entregatzeko konpromisoa betetzen ez badu hor aurreikusitako epeen barruan, eta kontratua amaiaraztea bidezkoa ez denean, edo kontratistak amaiarazpena eskatzen ez badu, horrek eskubidea izanen du

zenbateko edo balore ekonomiko horien legeko korritua jasotzeko, 99. artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

**106. artikulua.** Kontratatik ez betetzea.

Kontratatik ezarritakoa ez betetzeak beste modu batean konpontzerik ez duen asaldura larria ekartzen badu zerbitzu publikorako, eta Administrazioak ez badu kontratua amaiazte erabakitzen, arazoa desagertu arte eskuhartzea erabaki ahalko du. Nolanahi ere, kontratatik ordaindu beharko dizkio Administrazioari eragin dizkion kalte eta galerak.

**4. Sekzioa**

**hornidura-kontratuaren exekuzioa**

**107. artikulua.** Hornigaiak entregatu eta jasotzea.

1. Kontratista beharturik dago horniduraren xede diren ondasunak entregatzera kontratuan finkatutako denboran eta tokian, agindu teknikoari eta administrazio klausulei jarraikiz. Kontratatik berandutza gerta dadin ez da behar izan aurretik Administrazioak hari intimizazioa egitea.

2. Hornidura mota edozein delarik ere, esleipen hartzaileak ez du eskubiderik izan kalteordainik jasotzeko Administrazioari entregatu aurretik ondasunetan izandako galera, matxura edo kalteengatik, jasotzean, Administrazioa berandutzan sartu ez bada behintzat.

3. Ondasunak jasotzeko egintza formala, pleguaren baldintzei jarraikiz, horiek entregatu ondoren egiten denean, Administrazioa izan da horien zaintzeaz arduratuko dena bi egintza horien arteko denboran.

**108. artikulua.** Prezioaren ordainketa eta ondasunetan ordaintzea.

1. Esleipen hartzaileak eskubidea izan du egiaz eman eta Administrazioak formalki jasotako horniduren prezioaren ordainketa jasotzeko, kontratuan ezarritako baldintzetan.

2. Espedientean behar bezala justifikatutako arrazoi teknikoak edo ekonomikoak direla eta, administrazio klausula partikularren pleguan ezarri ahalko da eman beharreko ondasunen prezio guztirakoaren ordainketa izatea zati bat dirutan eta bestea mota bereko beste ondasun batzuk emanez, azken hauen zenbatekoa inolaz ere izan gabe prezio guztirakoaren 100eko 50etik gorakoa. Horretarako, dagokion gastu konpromisoa kontratatikari ondasunak emanez ordainduko ez zaion kontratuaren prezio guztirakoaren zenbatekoa baino ez da izan, eta ondorio hauetarako ez da

aplikagarria izan Ogasun Publikoari buruzko Foru Legearen 38. artikuluan eta Foru Lege honen menpean dauden beste administrazio batzuen arau baliokideetan xedatutakoa.

3. Aurreko kasuan, Administrazioak ondasunak entregatzeko erabakia kontratazio-organoak hartuko du, hornidura-kontratu esleitzeko erabiliko den prozedura berarekin, eta erabaki horrek, berez, inbentarioko baja ekarriko du eta, hala behar denean, dagozkion ondasunak desafektatzea.

**IDAZATI BERRIA.** Ondasunen bidez ordaintzen diren horniduretan, horniduraren prezio guztirakotik Administrazioak emandako ondasunei dagokien zenbatekoa kontratuaren esleipenerako baloratu beharreko elementu ekonomikoa izan da, eta enpresariak espreski agertarazi beharko dute beren eskaintzetan.

**109. artikulua.** Administrazioaren ahalmenak fabrikazio prozesuan.

Administrazioak ahalmena du kontratuaren ondorioz eman beharreko produktua fabrikatu edo egiteko prozesua ikuskatu eta horri buruzko informazioa jasotzeko, eta erabiliko diren materialen analisiak, entseiuak eta probak egiteko agindu edo berak egin ahalko ditu, bai eta kalitate kontrolaren sistemak ezarri eta hitzartutakoa estuki betetzeko egokitzat jotzen dituen xedapen guztiak eman ere.

**5. Sekzioa**

**laguntza-kontratuaren exekuzioa**

**1. azpisekzioa**

**Kontratu hauen exekuzioari buruz**

**110. artikulua.** Exekuzioa eta kontratatikari erantzukizuna.

1. Kontratuaren exekuzioa egiten da haren klausulei lotuz eta Administrazioak horiek interpretatzeko kontratatikari emanen dizkion jarraibideei segituz.

2. Kontratista izan da egindako lanen kalitate teknikoaren eta egindako prestazioen eta zerbitzuen erantzulea, bai eta kontratuaren exekuzioan izandako ez-egiteak, hutsegiteak, metodo desegokiak edo zuzenak ez diren ondorioak direla-eta Administrazioari edo hirugarrenei eragindako ondorioena ere.

## 2. azpisekzioa Obra proiektuak egiteko kontratuaren espezialitateei buruz

### 111. artikulua. Kalteordainak.

1. Proiektuan aurreikusitako obraren exekuziorako aurrekontuan kostu errealararen 100eko 20 baino gehiagoko aldea, bai goitik zein behetik, gertatzen bada kontratistari leporatu ahal zaizkion akats edo ez-egiteen ondorioz, Administrazioak kalteordain sistema bat ezarri ahalko du administrazio klausula partikularren pleguan, izan daitekeena, aukeran, proiektua egiteko kontratuaren prezioa jaistea, edo hura erredaktatu duen kontratistak dagokion zenbatekoa -gehienez ere, haren erdia- ordaintzea, aldearen portzentaiaren arabera.

2. Kalteordainen baremoa honakoa izanen da:

a) Aldea 100eko 20tik gorakoa baldin bada, 100eko 30 gainditu gabe, dagokion kalteordaina izanen da kontratuaren prezioaren 100eko 30.

b) Aldea 100eko 30etik gorakoa baldin bada, 100eko 40 gainditu gabe, dagokion kalteordaina izanen da kontratuaren prezioaren 100eko 40.

c) Aldea 100eko 40tik gorakoa baldin bada, dagokion kalteordaina izanen da kontratuaren prezioaren 100eko 50.

Kontratistak kalteordainaren zenbatekoa ebazpena jakinarazten denetik hilabeteko epean ordaindu beharko du. Espedientea izapidatu ondotik interesatuari entzutea hartuta emanen da ebazpena.

### 112. artikulua. (KENDUTA)

## 6. Sekzioa

### Administrazioak berak egindako obrak, hornidurak eta laguntzak

### 113. artikulua. Kasuak eta baimena.

1. Administrazioak obrak egin eta ondasun higigarriak fabrikatu ahalko ditu, eskumena duen kontratazio-organoak baimena eman ondotik, Administrazioaren beraren zerbitzuen bitartez, beren baliabide pertsonalak edo errealak erabiliz, edo enpresari partikularren laguntzarekin, beti ere azken kasu horretan zenbatekoa, Balio Erantsiaren gaineko Zerga kenduta, 5.000.000 Ecu-tik beherakoa bada, obren kasuan, eta 200.000 Ecu-tik beherakoa, hondasun higigarrien fabrikazioari dagokionean, tartean inguruabar hauetakoren bat beharko delarik:

a) Administrazioak lantegiak, tailerrak edo zerbitzu tekniko edo industrialak, obra edo hornidura

egiteko adinako gaitasuna dutenak, edukitzea, eta kasu honetan exekuzio sistema hau erabili beharko da, normalki.

b) Administrazioak obra edo horniduran erabilgarriak diren elementu pertsonalak eta materialak eskura edukitzea, eta horiek erabiltzeak obraren aurrekontuaren 100eko 5 edo horniduraren aurrekontuaren 100eko 20 baino gehiagoko aurrezpena badakar, edo exekuzioa azkarragoa izatea badakar, eta azken kasu horretan, hortik lortuko diren abantailak azaldu egingen dira, justifikatuz.

c) Obra, edo hornidurarako aurretik deitutako lizitazioan enpresariaren eskaintzarik egon ez izana.

d) Foru Lege honetan aurreikusitakoaren arabera larrialdikotzat hartzen diren obra edo hornidurak direnean.

e) Xede diren obra edo horniduren izaera dela eta, prezio jakin bat edo lan unitate bakunen arabera aurrekontua aurretiaz finkatzea ezinezkoa den kasuetan.

f) Kontratistari obra- edo hornidura- unitate batzuk egiteko ardura kendu behar zaionean, dagozkion prezio kontrajarrietan adostasunera ez ailegatzeagatik.

g) 133. artikuluan d) eta e) letren kasuetan.

2. Aurreko idazatian xedatutakoa ondoko inguruabar hauetakoren bat gertatzen den obretan ere aplikatuko da:

a) Kontserbazio eta mantenimendu hutseko lanak, haien ezaugarriak direla-eta proiektu baten xede ezin izan daitezkeenean.

b) Salbuespen gisa, aurreproiektu batez baliatuta definitutako obren exekuzioa, 83.1.a) artikulua aplikatzen ez denean.

3. Aurreko idazatian eta artikuluen honen 1. idazatiaren d) letran agertzen diren kasuetan izan ezik, obretan ezinbestekoa izanen da egoki den proiektua idaztea. Proiektu mota horren edukia erregelamendu bidez finkatuko da.

4. Obraren exekuzioa edo ondasun higigarriaren fabrikazioa enpresari partikularrekin izenpetutako lankidetzaren bidez egiten direnean, kontratu horiek administratiboak izanen dira, baina ez obra edo hornidura-kontratuak, exekuzioa edo fabrikazioa Administrazioaren kudeaketa organoaren esku egonen baitira.

5. Artikulu honen 1. idazatiaren a) eta b) letretako kasuetan, lankideekin egindako kontratazioan ezin izanen da gainditu aurrekontuaren zenbatekoaren 100eko 50, espedientean justifikatuko diren salbuespeneko kasuetan izan ezik.

**113 bis artikulua.** Laguntza.

laguntza-kontratuaren xede diren prestazioak Administrazioak berak burutu ahalko ditu enprekin lankidetzan jardunez eta, kasu horretan, egoki den guztian, aurreko artikulua aplikatuko da.

## II KAPITULUA

### Kontratuak aldatzea eta etetea

#### 1. Sekzioa

##### Kontratuak aldatzea

**114. artikulua.** Guztiondako xedapenak.

1. Behin kontratua perfektionatuz gero, kontratazio-organoak aldaketak sartu ahalko ditu kontratua osatzen duten elementuetan interes publikoari dagozkion zioengatik bakarrik, beti ere behar berriek edo ustekabeko arazoiek sortuak direnean, espedientearen behar den moduan azalduz.

2. (114 bis artikulura pasatzen da)

3. Kontratuaren aldaketak 92. artikuluan xedatutakoaren arabera formalizatu beharko dira.

#### 2. Sekzioa

##### Obra-, hornidura- eta laguntza-kontratuak aldatzea

**114 bis artikulua.** Kontratuan sartutako unitateak aldatzea.

Kontratastarendako obligaziozkoak izanen dira kontratuaren aldaketak, baldin eta erakartzen badute kontraturiko obra-, ondasun- edo laguntza-unitateak kendu, ordeztu, gehitu edo gutxitzea, beti ere ordezpena kontratuan sartutako unitateen artean egiten denean.

Gutxitu edo kendu egiten badira, kontratistak ez du inolako kalteordainik erreklamatzeko eskubiderik izanen, 133.i) artikuluan ezartzen dena galarazi gabe.

**115. artikulua.** Unitate berriak sartzeagatik eginiko aldaketak.

1. Aldaketen ondorioz proiektuan ez dauden obra unitateak edo ezaugarrietan funtsezko diferentziak dituztenak sartu behar direnean, haien aplikazio prezioak Administrazioak finkatuko ditu, obren zuzendaria fakultatiboaren proposamena eta kontratistak proposamen honi audientzia izapidean eginiko oharpenak ikusita, gutxienez ere hiru eguneko epean. Finkatutako prezioak horrek onartzen ez baditu, obra unitateak egiten jarraitu beharko du eta horien prezioak arbitraje batzordeak erabakiko ditu, prozedura sumarioan. Horrek ez du galaraziko Administrazioak, edozein kasu-

tan, finkatu dituen prezioetan beste enpresari batekin kontratatu edo zuzenean exekutatu ahal izatea.

Aipatu arbitraia batzordea Administrazio Kontratazioarako Batzorde Aholkulariaren menpe egonen da. Batzordearen osaera eta prezioak ezartzeko prozedura sumarioa erregelamendu bidez arautuko dira.

2. Aldaketa hasieran kontratatu ez ziren zenbait ondasun- edo laguntza-unitate ematean datzanean, prezioak Administrazioak finkatuko ditu kontratistari entzunda, gutxienez ere hiru eguneko epean. Horrek Administrazioak ipinitako prezioak onartu ez baditu, ez ditu unitate berriak egin beharko.

**116. artikulua.** Aldaketa espedientearen izapidatzea

1. Kontratuen aldaketa espediente kontrajarriaren bidez izapidatuko da. Espedienteak honako jarduketa hauek edukiko ditu:

a) Kontratuaren exekuzioaren jarraipenaz eta kontrolaz arduratzen den administrazio unitateak edo Administrazio kontratugileak jarritako zuzendaria fakultatiboak proposamena prestatzea. Honi egin nahi den aldaketa zehazteko eta baloratzeko behar diren agiriak gehituko zaizkio.

Proposamena Administrazioetik sortu ez bada, honen zerbitzu teknikoek hari buruzko txostena egin beharko dute.

b) Kontratistari entzutea ematea, gutxienez ere hiru eguneko epean.

c) kontratazio-organoaren zerbitzu juridikoen txostena.

d) Kontuhartzaitzak gastua fiskalizatzea.

e) kontratazio-organoak aldaketa eta dagokion gastua onestea.

2. Obra-kontratuan, aldatu baten izapidatzeak obren exekuzioa aldi baterako etendura osoa eskatzen duenean, eta horrek interes publikoari kalte larriak eragiten badizkio, kontratazio-organoak erabaki ahalko du obrak behin-behineko jarraitzea, zuzendaritza fakultatiboak egin beharko duen proposamen teknikoan aurreikusitako gehieneko zenbatekoak esleipen prezioaren 100eko 20 gaitzen ez duenean eta hura finantzatzeko kreditu aski eta egokia baldin badago.

Horretarako izapidatuko den espedienteak honako jarduketa hauek bakarrik burutzea eskatuko du:



a) Obraren zuzendari fakultatiboaren proposamen tekniko arrazoitua, aldaketaren zenbateko hurbildua eta egin beharreko obren oinarritzko deskribapena edukiko dituen

b) Kontratistari entzutea.

c) Administrazio unitate eskudunak luzatutako deklarazioa, kreditua egoteari buruzkoa.

d) kontratazio-organoaren onespena.

Proiektua lau hilabeteko epean onetsi beharko da, eta aldaketa espedientea sei hilabetekoan. Epe horiek iraganez gero aldatuari dagozkion obren exekuzioak ezin izanen du aurrera jarraitu.

3. Obra-kontratu batean larrialdi bat gertatzen denean zuzendari fakultatiboak agindu ahalko du jadanik egina dagoen obraren irautea bermatzeko edo hirugarrenei berehalako kalteak ekiditeko ezinbestekoak diren obra unitateak egin daitezten. Larrialdia sortarazi duen arrazoia desagertuz gero, zuzendariak berri emanen dio berehala Administrazio kontratugileari, dagokion aldaketa espedientea izapidatzeko.

4. Kontratuaren likidazioan sartu ahalko dira, nahiz eta aldaketa espedientea alde aurretik izapidaturik ez egon, hasieran kontratuan sartu ziren obra-, ondasun- edo laguntza-unitateetan benetan egindako aldakuntzak, beti ere esleipen-prezioaren 100eko 10 baino handiagoa den gastu-gehikuntzarik eragin ez badute. Hau horrela izanda ere, aldakuntza hauek sortu eta gero aldaketa espedientea izapidatu behar bada, bertan aipatu aldakuntzak jaso beharko dira, kontratuaren likidaziora iritsi behar izan gabe.

Aukera honetan ez dira sartzen unitate berriak sartzean dautzan aldakuntzak.

IDAZATI BERRIA. 50.4 artikulua aipatzen duen kasuan, hornikuntza bereziaren ondoriozko aldaketek eta aurreko idazatiaren ondoriozko ezin izanen dute eragin, batera, esleipen-prezioaren 100eko 15 baino gastu-gehikuntza handiagorik. Beti ere, aipaturiko aldakuntzetako bakoitzari aplikatzekoak diren berariazko portzentaia mugatzaileak errespetatu beharko dira.

### 3. Sekzioa

#### Zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratuaren aldaketa

**117. artikulua.** Aldaketa eta bere ondorioak.

1. Interes publikoaren zioengatik Administrazioak aldatu ahalko ditu kontratatutako zerbitzuaren ezaugarriak eta erabiltzaileek ordaindu beharreko tarifak.

2. Aldaketek kontratuaren finantza araubidea ukitzen dutenean, Administrazioak kontratatari kontentsazioa eman beharko dio, kontratua esleitzerakoan oinarritzotzat hartu ziren baldintza ekonomikoen oreka mantentzeko moduan.

3. Administrazioak zerbitzuaren bilakaerari buruz ematen dituen erabakiek eragin ekonomikorik ez dutenean, kontratistak ez du horiengatik kalteordainik jasotzeko eskubiderik izanen.

IDAZATI BERRIA. Aldakuntza-prozedurak 116.1 artikuluan aurreikusitako betekizunak errespetatuko ditu.

### 4. Sekzioa

#### Kontratuaren etendura

**118. artikulua.** Xedapen komunak.

1. Administrazioak kontratuaren etendura erabakitzen bada, edo hori gertatzen bada 99. artikuluan xedatutakoa aplikatuz, akta jasoko da, bertan ipiniz etendura eragin duten inguruabarrak eta haren exekuzioan egitatez dagoen egoera.

2. Etendura erabakita, Administrazioak kontratatari benetan jasan dituen kalteak eta galerak ordainduko dizkio.

### VII. TITULUA

#### Prezioak berrikustea

#### KAPITULU BAKARRA

#### Xedapen orokorrak

**119. artikulua.** Prezioak berrikustea bidezko den kontratuak.

1. Foru Lege honetan araututako kontratuetan prezioen berrikuspena Titulu honetan ezarritakoaren arabera egingen da haren zenbatekoaren 100eko 20 exekutatu bada eta esleitu zenetik sei hilabete iragan badira.

2. Administrazio klausula partikularren pleguak zehaztu beharko du aplikatu beharreko berrikuspene sistema edo formula eta, ebazpen arrazoituan, hori bidezko ez dela ezarri ahalko da, eta hau ere aipatu pleguan jaso beharko da.

**120. artikulua.** Berrikuspene formulak.

1. Prezioen berrikuspene egingen da kontratazio-organoak administrazio klausula partikularren pleguan erabakiko dituen izaera ofizialeko formula edo indizeen bidez.

Hala ere, obra eta hornidura-fabrikazio kontratuetan Estatuko Administrazio Orokorrak onetsitako formula tipoak aplikatuko dira. Formula tipoen artean kontratazio-organoak, administrazio klau-

sula partikularren pleguan, dagokion kontratuarendako egokien ikusten dituenak ezarriko ditu, honakoa galarazi gabe: haietako bakar bat ere ez badator bat kontratuaren ezaugarriekin, arloan eskudun den Estatuko Administrazio Orokorraren organoari formula bereziak onetsi ditzan proposatzea.

## 2. (KENDUTA)

3. Kontratuari aplikatzen zaizkion formulak aldaezinak izanen dira hark indarra duen bitartean.

### 121. artikulua. Berrikuspen prozedura.

1. Berrikuspen formulak erabiliko dira kalkulatzeko, prezioen indizeak aplikatuz, berrikuspen koefizienteak data bakoitzean, eskaintzak aurkezteko epearen azken datarekiko, enkante eta lehia-keretan, eta esleipenaren datarekiko, prozedura negoziatuan, haien emaitzak egindako prestazioen zenbateko likidoei aplikatuz.

2. Obra eta hornidura-fabrikazio kontratuaren prezioen berrikuspen formulak erabiltzen direnean, berrikuspena egiteko, formula horien bidez lorturiko koefizientea egindako prestazioan likidatutako prezioaren gainean aplikatuko da.

**122. artikulua.** Berrikuspena, berandutza kasuetan.

Berrikuspen klausula kontratista berandutzan erori den denboraldietan aplikatzen denean, eta bidezko izan daitezkeen zigorrak galarazi gabe, kontuan hartuko diren prezioen indizeak izanen dira prestazioa epearen barruan egiteko kontratuan ezarri diren datei dagozkienak, salbu exekuziorako benetako denboraldiari dagozkienek koefiziente txikiagoa sortzen dutenean, orduan azken horiek ezarriko baitira.

**123. artikulua.** Berrikuspenaren zenbatekoaren ordainketa.

Bidezko diren berrikuspenen zenbatekoa ordainduko da dagokion abonamendua edo deskontua ziurtapenetan edo ordainketa partzialetan eginez, edo, salbuespenez, kontratuaren likidazioan, aipatu ziurtapenetan edo ordainketa partzialetan sartu ezin izan direnean.

## VIII. TITULUA Kontratuen iraungipena

### I. KAPITULUA Xedapen orokorrak

**124. artikulua.** Kontratuen iraungipenaren kausak.

Kontratuak iraungiko dira betetzea, amaiarazpen eta baliogabetasun deklarazioa direla medio.

## II. KAPITULUA Kontratuak betetzeaz

### 1. Sekzioa Arau amankomunak

**125. artikulua.** Kontratuak betetzea eta harrera.

1. Kontratuaren kontratistak bete duela ulertuko da horrek, kontratuaren terminoetan eta Administrazioaren adostasunez, haren xedea osorik burutu duenean.

2. Edonola ere, hura egiaztatzeko beharrezkoa izanen da, Administrazioaren aldetik, harrera edo adostasun egintza formal eta positiboa, kontratuaren xedea eman edo egin eta hurrengo hilabetearen barruan. Administrazioaren Kontuhartzaitzari egintza jakinaraziko zaio, jakinarazpen hori derri-gorrezkoa denean, nahi badu bertan ager dadin, inbertsioa egiaztatzeko dituen funtzioetan.

3. Kontratuaren berme-epe bat finkatuko da, harrera edo adostasun datatik kontatuzkoa, eta hori Administrazioaren eragozpenik gabe iragan denean, kontratistaren erantzukizuna iraungirik geldituko da, salbu Foru Lege honetan edo beste arauetan beste epe bat ezartzen den kasuetan.

Berme-epetik at geldituko dira beren izaera edo ezaugarriengatik hori beharrezkoa ez duten kontratuak; kontratazio espedientearen behar bezala justifikatuko da, pleguan espreski adieraziz.

### 2. Sekzioa obra-kontratuak betetzeaz

**126. artikulua.** Harrera eta berme-epea.

1. Obrak bukatzean haien harrerari ekingo zaio. Bertan agertuko dira Administrazioak bere ordezkari gisa ipinitako fakultatiboa, obren zuzendaritzaz arduratzen den fakultatiboa eta kontratista, bere fakultatiboak lagunduta, egoki ikusten badu.

2. Obrak egoera onean eta aurreikusitako aginduen arabera badaude, Administrazioak bere ordezkari gisa ipinitako funtzionario teknikoak hartuz emanen ditu, dagokion akta eginen da eta une horretan hasiko da berme-epea.

Obrak hartuak izateko egoeran ez daudenean, horrela jasoko da aktan eta obren zuzendariak ikusi diren akatsak ohartaraziko ditu eta behar diren argibideak zehaztuko ditu, akatsak zuzentzeko epea finkatuz. Aipatu epea iraganda kontra-

tistak egiten ez badu, beste epe bat, luzaezina, eman ahalko zaio edo kontratua amaiarazitzat deklaratu.

3. Berme-epea administrazio klausula partikularren pleguan ezarriko da, obraren izaera eta konplexutasuna kontuan hartuz, eta ezin izanen da urte bat baino laburragoa izan, kasu bereziak salbu.

4. Hala ere, obren iraupenak helburu praktikorik ez duenean, adibidez, emaitzarik gabeko zundaketa eta prospekzioetan, edo obren izaerak kontserbazio hutsaren kontzeptua gainditzen duten lanak eskatzen dituenentz, adibidez, dragaketan, ez da berme-eperik eskatuko.

5. Harrera partziala egin ahalko da erabilpen publikorako ematen ahal diren faseetan egin daitezkeen obra zatietan, kontratuan ezarritakoaren arabera.

#### **127. artikulua.** Likidazioa.

1. Harrera aktaren datatik kontaktzen den sei hilabeteko epearen barruan, dagokion likidazioa erabaki beharko da eta kontratistari jakinarazi, eta horri ordaindu ateratzen den saldoa, hala bada.

2. Likidazio saldoaren ordainketa berandutzen bada, kontratistak horren legezko korritua eskuratzeko eskubidea izanen du, 1,5 puntu handitua, harreraren ondoko sei hilabeteak iragaten diren etik aurrera.

**128. artikulua.** Ezkutuko akatsengatik erantzukizuna

Bermealdia amaitu eta gero obra hondatzen bada eraikuntzako ezkutuko akatsengatik, kontratistak kontratua ez betetzeagatik sortuak, honek kalte eta galerengatik erantzungo du hamabost urteko epean zehar, harreratik kontaturik.

Epe hori inolako kalte edo galerarik agertu gabe iraganez gero, kontratistaren erantzukizuna erabat iraungita geldituko da.

### **3. Sekzioa** **Zerbitzu publikoak kudeatzeko** **kontratua betetzeaz**

#### **129. artikulua.** Itzultzea.

1. Kontratuko epea bukatzen denean zerbitzua Administrazioari itzuliko zaio. Kontratistak obrak eta instalazioak entregatuko ditu, alegia, kontratuaren arabera entregatu behar dituenak, mantentimendu eta funtzionamendu egoera egokian.

2. Itzultzea baino lehen, pleguan finkatu behar den zentzuzko epean, Administrazioaren orga-

no eskudunak xedapenak emanen ditu, ondasunak hitzartutako baldintzetan entrega daitezzen.

### **4. Sekzioa** **hornidura-kontratua betetzeaz**

#### **130. artikulua.** Entrega eta harrera gastuak.

1. Kontrako ituna salbu, horniduraren xedea diren ondasunak hitzarturiko lekura garraiatzeko eta entregatzeko gastuak kontratistaren kontura izanen dira.

2. Ondasunak hartuak izateko egoeran ez badaude, honela jasoko da harrera aktan eta kontratistari agindu zehatzak emanen zaizkio ikusitako akatsak zuzentzeko edo beste hornidura bat egiteko, itunduaren arabera.

**131. artikulua.** Akatsak edo hutsak bermealdian.

1. Bermealdian frogatzen bada hornidurako ondasunetan akatsak edo hutsak daudela, Administrazioak eskubidea izanen du kontratistari desegokiak direnak ordeztu ditzan edo, aski bada, horiek konpon ditzan eskatzeko.

2. Bermealdian zehar kontratistak eskubidea izanen du hornidurako ondasunen aplikazioa eza-gutzeko eta honetaz entzuna izateko.

3. Bermealdian zehar kontratazio-organoak pentsatzen badu hornidurako ondasunak nahi den helbururako gai ez direla, haietan ikusitako akats edo hutsengatik, kontratistari egozgarriak, eta helburu hura lortzeko aipatu ondasunak ordeztea edo konpontzea aski izanen ez delako ustea badago, ondasunak hartzeari uko egin ahalko dio, aipatu epea amaitu baino lehen, kontratistaren kontura utzirik, eta ordaintzeko betebeharrak salbuetsita geldituko da, edo, dagokion kasuan, ordaindutako prezioa berreskuratzeko eskubidea edukiko du.

4. Bermealdia bukatzen bada Administrazioak artikuluko honen 1. eta 3. idazatietan agertzen diren eragozpenen bat edo salaketa formalizatu gabe, kontratista hornidurako ondasunen gaineko erantzukizunaz salbuetsita geldituko da.

### **5. Sekzioa** **Obra proiektu bat egitea den laguntza** **kontratua betetzeaz**

**132. Artikulua.** Okerrak zuzendu eta akatsak konpontzea.

1. laguntza-kontratua obra proiektu bat osorik egitea denean, kontratazio-organoak hauxe eskatuko dio kontratistari: berari egotzi beharreko aka-

tsak, gabezia teknikoak, oker materialak, ez-egiteak eta erregelamendu-hausteak edo lege-hausteak zuzen ditzan, horretarako dagokion epea eman ez, gehienez ere, bi hilabetekoa.

2. Epe hori iraganda akatsak ez badira zuzendu, Administrazioak aukeratu ahalko du, biltzen diren inguruabarrak kontuan edukiz, kontratua amaiazte edo kontratistari beste epe bat ematea.

3. Lehenbiziko kasuan bermea inkautatuko da eta kontratistak Administrazioari kontratuaren prezioaren 100ko 25eko kalteordaina ordaindu beharko dio.

4. Bigarren kasuan, zuzendu ez diren akatsak zuzentzeko emandako epe berria hilabete batekoa izanen da, luzaezina, kontratistak kontratuaren prezioaren 100eko 25eko zenbatekoa duen zigorra jasoko du.

5. Berrito bete gabe geratzen bada, bidezko izanen da kontratua amaiaztea, kontratista Administrazioari hitzartutako prezioaren besteko kalteordaina ematera behartuta izanik, eta bermea galduz.

6. Kontratistak, azken epea eman aurretik edozein unetan, proiektua egiteari uko egiten badiu, Administrazioari kontratuaren prezioaren erdiaren pareko kalteordaina eman beharko dio, bermea galduz.

### III. KAPITULUA Kontratuak amaiaztea

#### 1. Sekzioa Guztiendako arauak

##### 133. artikulua. Amaiazteko kausak.

Kontratua amaiazteko kausak dira:

a) Kontratista indibidualaren heriotza edo uste-kabeko ezintasuna, edo sozietate kontratistaren nortasun juridikoaren iraungipena.

b) Porrotaren, ordainketen etenduraren, hartzekodunen konkurtsoaren edo kaudimengabe kobraezinaren deklarazioa edozein prozeduratan edo kita itxoiteko akordioa.

c) Administrazioaren eta kontratistaren arteko akordioa.

d) Kontratistak behin betiko bermea edo bereziak edo horren osagarriak ez ematea, epearen barrenean, Foru Lege honetan aurreikusitako kasuetan.

e) Kontratua epearen barrenean ez formalizatzea.

f) Kontratista epeak betetzean berandutzea eta 56.2.d) artikuluan adierazitako epea ez betetzea.

g) Administrazioak zortzi hilabeteko epean ez ordaintzea.

h) Kontratuko gainerako funtsezko betebeharrak ez betetzea.

i) Kontratuaren aldaketak, elkarren segidakoak izanda ere, bakanka edo batera hartuta, kontratuaren esleipenaren prezioaren aldaketak sortzen dituztenean, horien zenbatekoa, gainetik edo azpitik, prezioaren zenbatekoaren 100eko 20 baino handiagoa bada, edo hasierako proiektuaren edo prestazioaren funtsezko aldaketa direnean.

j) Kontratuan espreski ezartzen direnak.

k) Foru Lege honen artikuluetan kontratu kategoria bakoitzarendako bereziki adierazten direnak.

**134. artikulua.** Amaiaztearen kausak aplikatzea.

1. Kontratuaren amaiaztea kontratazio-organismoak erabakiko du, ofizios edo kontratistak eskatuta, dagokion kasuan, erregelamenduaren arabera erabakiko den prozeduraren bidez.

Espediente hauen aginduzko izapide eta txosten guztiak presakotzat hartuko dira eta lehentasuna emanen zaie dagozkien administrazio edo aholkularitza organoek erabaki ditzaten.

2. 39. artikuluan araututako bermea eratu ez izateak, 56.2.d) artikulua aipatzen duen epea bete ez izateak, eta era berean porrotaren, hartzekodunen konkurtsoaren edo kaudimengabe kobraezinaren deklarazioak, edozein prozeduratan, kontratuaren amaiaztea eragingo dute beti.

Aurreko artikuluen i letran aurreikusitako kontratuaren aldaketaren kasuan, amaiaztea erabakitzeko eskubidea aukerabidekoa izanen da bai Administrazioarendako bai kontratistarendako.

Kontratuaren amaiazteko gainerako kasuetan, hura erabakitzeko eskubidea amaiaztea sortarazi duen inguruabarra ez dagokion alderdiarendako izanen da aukerabidekoa.

3. Amaiaztearen arrazoia kontratista indibidualaren heriotza edo bat-batean jasandako gaitasun eza gertatu izana denean, Administrazioak erabaki ahalko du kontratua haren jaraunsle edo oinordekoekin jarraitzea.

4. Amaiaraztea elkarren arteko akordio bidez bakarrik egin ahalko da kontratistari egotz dakiokeen amaierarako beste kausarik ez denean, eta, beti ere, interes publikoko arrazoiek kontratuaren iraupena desegoki edo premiagabe bihurtzen dutenean.

5. Sozietate kontratistak parte hartzen duen enpresa bategitearen kasuan, kontratuak entitate zurgatzailearekin edo bategitetik sortzen denarekin jarraituko du, eta hori kontratutik datozen eskubide eta betebeharrak guztietan subrogatuta geldituko da.

6. Zatiketaren edo enpresa ekarpenaren kasuetan, kontratuak ondorioz sortzen den edo onuradun den entitatearekin jarraituko du, eta hori kontratutik datozen eskubide eta betebeharrak guztietan subrogatuta geldituko da, beti ere ondorioz sortzen den edo onuradun den entitateak esleipena erabaki zenean eskatutako kaudimena mantentzen badu.

7. Kita itxoinen eta ordainketen etenduran, Administrazioak aukeratu ahalko du kontratuaren jarraipena bere iritziz kontratistak kontratuaren exekuziorako aski diren bermeak ematen baditu.

8. Amaiaraztearen arrazoiak berme osagarriak eman ez izatea bada, amaiazteak kontratu osoa ukituko du.

9. Aurreko artikuluan f) letrak aipatzen duen berandutza kasuan, kontratistak epea betetzean egindako berandutzeak sortarazitako zigorrak kontratuaren prezioaren 100eko 20 baino handiagoak badira, 95.4 artikuluan xedatutakoari jarraikiko zaio.

10. Kontratutik datozen betebeharrak Administrazioak ez betetzeak, haren amaiaztea sortarazitako du Foru Lege honetan aurreikusitako kasuetan bakarrik.

#### **135. artikulua.** Amaiaraztearen ondorioak.

1. Kontratistari egotzi ahal zaizkion arrazoiengatik kontratua formalizatzen ez den kasuetan, 92.3 artikuluan xedatutakoari jarraikiko zaio.

2. Elkarren arteko akordioengatik denean, alderdien eskubideak Administrazioaren eta kontratistaren artean balio osoz erabakitakoari egokituko zaizkio.

3. Administrazioak kontratuaren betebeharrak ez betetzeak erakarriko du, haren aldetik, izaera orokorrekarekin, arrazoi horrengatik kontratistari egindako kalteak eta galerak ordaindu behar izatea.

4. Kontratua kontratistaren ez-betetze errudunagatik amaiaztearen denean, bermea inkautatuko zaio eta, gainera, Administrazioari egindako kalteak eta galerak ordaindu beharko dizkio, inkautatutako bermearen zenbatekoa gainditzen duten kopuruan.

5. Edozein kasutan, amaiaztearen akordioak berriazko adierazpena izanen du, eraturako bermea galtzea, itzultzea edo ezeztatzea bidezko den ala ez agertuz.

## **2. Sekzioa obra-kontratua amaiaztea**

### **136. artikulua.** Amaiazteko kausak.

obra-kontratua amaiazteko kausak dira, 133. artikuluan aurreikusitakoez gain, honako hauek:

a) Zuinketa egiaztatzean berandutzea.

b) Administrazioak obren hasiera etetea, sei hilabete baino luzeagoa den epean.

c) Obrei uztea edo Administrazioak sei hilabete baino luzeagoa den epean obrak etetea erabaki izatea.

d) Administrazioak egindako aurrekontuan edo proiektuan egon daitezkeen errakuntza materialak, gutxienez ere obraren aurrekontuaren 100eko 20 ukitzen dutenean.

**137. artikulua.** Obra funtsean aldatzea eta obraren hasiera etetea.

1. 133. artikuluan i) letran aurreikusitakoaren ondorioei begira, funtsezko aldatzeetat hartuko dira, besteak beste, hasierako proiektuaren oinarriko ezaugarriak eta helburuak aldatzea, bai eta unitateak ordeztzea ere, gutxienez ere aurrekontuaren 100eko 50 ukitzen dutenean.

2. Administrazioak obren hasiera eteten denean, horrek sei hilabete iragaten uzten duenean eteten denetik kontatuta, aipatu egoerari buruzko erabakirik eman gabe eta kontratistari jakinarazi gabe, horrek kontratua amaiazteko eskubidea izanen du.

### **138. artikulua.** Amaiaztearen ondorioak.

1. Kontratuaren amaiazteak erakarriko du proiektuaren arabera egindako obrak egiaztatu, neurtu eta likidatzea, dagozkion saldoak finkatuz, kontratistaren alde edo kontra. Hori deitzea beharrezkoa izanen da, kontratazio espedientean agertzen den helbidera, egiaztatze eta neurtzeko ekitaldira ager dadin.

2. Administrazioaren erru edo arduragabeke-riagatik zuinketaren egiaztapena berandutzen



bada, kontratuaren amaiaraztea erakarrit, kontratistak izanen du esleipenaren prezioaren 100eko 2aren baliokidea den kalteordaina jasotzeko eskubidea bakarrik.

3. Administrazioak obren hasiera sei hilabete baino luzeagoa den epean eteten baldin badu, kontratistak, kontzeptu guziengatik, esleipenaren prezioaren 100eko 3 den kalteordaina jasotzeko eskubidea izanen du.

4. Obrei uzten bazaie edo eten egiten badira sei hilabete baino epe luzeagoz, kontratistak, etekin industrialaren kontzeptuan, egin gabe utzi diren obren prezioaren 100eko 6 jasotzeko eskubidea izanen du.

### **3. Sekzioa** **Zerbitzu publikoak kudeatzeko** **kontratuaren amaiaraztea**

**139. artikulua.** Amaiarazteko kausak.

Zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratua amaiarazteko kausak dira, 133. artikuluan, f), g) eta i) letretan izan ezik, aipatzen direnez gain, honako hauek:

a) Administrazioa sei hilabete baino luzeagoa den epean berandutzea, kontratu bidez obligaziozko dituen kontraprestazioa edo baliabide lagungarriak kontratistari entregatzean.

b) Administrazioak zerbitzua luditzea.

c) Interes publikoaren arrazoiengatik zerbitzua kentzea.

d) Administrazioak kontratuaren ondoren hartutako erabakien ondorioz, zerbitzuaren ustiapena ezinezkoa izatea.

**140. artikulua.** Amaiarazteko kausak aplikatzea.

1. Amaiaraztearen kausa kontratistaren heriotza edo ustekabeko ezintasuna gertatu izana denean, Administrazioak erabaki ahalko du kontratua haren jaraunse edo oinordekoekin jarraitzea, salbu zerbitzuaren berariazko legedian kontrako xedapen espresua dagoenean.

2. Interes publikoko zioengatik Administrazioak zerbitzua luditzea erabaki ahalko du, zuzenean kudeatzeko.

**141. artikulua.** Amaiaraztearen ondorioak.

1. Amaiaraztearen kasuetan, Administrazioak ordainduko dio kontratistari, edozein kasutan, horrek egindako obren eta instalazioen prezioa, haren jabetzara pasatu behar dutenena, kontuan

hartuta haien egoera eta itzultzerako gelditzen den denbora.

2. 135. artikuluan xedatutakoaz aparte, Administrazioak edo kontratistak kontratuaren betebeharrak bete ez izateak, zerbitzuaren berariazko xedapenen arabera kontratu hauetan eragina izan dezaketen ondorioak sortuko ditu.

3. 139.a) artikulua kasuan, kontratistak zor zaizkion kopuruen legezko korrituak edo hitzartutako balore ekonomikoak ordain dakizkion eskubidea izanen du, entregarako aurreikusi den epea betetzen denetik, baita pairatutako kalteak eta galerak ere.

4. 139. artikulua b), c) eta d) letren kasuetan, artikulua honen 1. idazatian xedatutakoa galaz gabe, Administrazioak kontratistari egiten zaizkion kalteak eta galerak ordainduko dizkio, jaso gabe geldituko diren etekinak barne, begirata azken bosturtekoan ustiapenak izandako emaitzak eta, amortizazio maila kontuan hartuz, horri itzuliko ez zaizkion obrek eta instalazioek galdutako balioa.

### **4. Sekzioa** **hornidura-kontratua amaiaraztea**

**142. artikulua.** Amaiarazteko kausak.

hornidura-kontratua amaiarazteko kausak dira, 133. artikuluan aipatzen direnez gain, honako hauek:

a) Horniduraren hasiera etetea, Administrazioari egotzi ahal zaion arrazoiengatik, sei hilabete baino luzeagoa den epean, kontratuan entregarako ipini den datatik, salbu pleguan epe laburragoa ipintzen bada.

b) Hornidurari uztea edo Administrazioak urtebete baino luzeagoa den epean hornidura etetea erabakitzea, salbu pleguan epe laburragoa ipintzen bada.

**143. artikulua.** Amaiaraztearen ondorioak.

1. Kontratua amaiarazteak erakarriko du ondusunak eta egindako ordainketen zenbatekoak elkarri itzultzea eta hau Administrazioarendako posible edo komenigarri ez bada, honek ordaindu beharko du benetan entregatu eta adostasunez jasotako prezioa.

2. Horniduraren hasiera sei hilabete baino luzeagoa den epean eteten den kasuan, kontratistak izanen du esleipenaren prezioaren 100eko 3ko kalteordaina jasotzeko eskubidea bakarrik.

3. Administrazioaren aldetik hornidurari uko egin edo eteten bada, urtebete baino luzeagoa

den epean, kontratistak egin gabe utzitako entregen prezioaren 100eko 6 jasotzeko eskubidea izanen du, etekin industrialaren kontzeptuan.

### 5. Sekzioa laguntza-kontratua amaiaraztea

#### 144. artikulua. Amaiarazteko kausak.

1. laguntza-kontratua amaiarazteko kausak dira, 133. artikuluan aipatzen direnez gain, honako hauek:

a) Kontratuaren hasiera etetea, Administrazioari egotzi ahal zaion arrazoiagatik, sei hilabete baino luzeagoa den epean, kontratuan bere hasierarako ipinitako datatik, salbu pleguan epe laburragoa ipintzen bada.

b) Kontratuari uztea edo Administrazioak urtebete baino luzeagoa den epean etetea erabakitzea, salbu pleguan epe laburragoa ipintzen bada.

2. 21. 1 artikulua aipatzen dituen kontratu osagarriak bakarrik amaiaraziko dira, 133. artikuluen i) letran ikusten den kasuari dagokionean, kontratu nagusia amaiarazten denean.

#### 145. artikulua. Amaiaraztearen ondorioak.

1. Kontratua amaiarazteak eskubidea eman dio kontratistari, edozein kasutan, kontratuaren arabera benetan egin dituen eta Administrazioak hartu dituen zerbitzuen edo lanen prezioa jasotzeko.

2. Kontratuaren hasiera sei hilabete baino luzeagoa den epean eteten bada, kontratistak bakarrik izanen du haren prezioaren 100eko 3ko kalteordaina jasotzeko eskubidea.

3. Aurreko artikuluen b) letraren kasuan, kontratistak egiteko gelditzen diren lanen edo zerbitzuen prezioaren 100eko 6 jasotzeko eskubidea izanen du, lortu gabe gelditutako etekinaren kontzeptuagatik.

### IV KAPITULUA Kontratuen baliogabetasuna

#### 146. artikulua. Kontratuen baliogabetasuna.

Foru Lege honetan araututako kontratuak baliogabeak izanen dira haien prestaketarako egintzaren bat edo esleipen egintza baliogabea denean eta ondoko artikuluek aipatzen dituzten administrazio zuzenbideko edo zuzenbide zibileko arrazoietakoa bat gertatzen denean.

**147. artikulua.** Administrazio zuzenbideko deuseztasun kausak.

Administrazio zuzenbideko deuseztasun kausak dira, kontratua esleitzen den uneari dagozkionak, honako hauek:

a) Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Guztiendako Administrazio Prozedurari buruzko Legearen 62.1 artikuluan ipiniak.

b) Jarduteko gaitasuna faltan izatea edo kaudimen ekonomikoa, finantzarioa, teknikoa edo lanbidekoa faltan izatea, behar bezala frogatua, edo esleipen-hartzailea Foru Lege honen 29. artikuluan aipatzen diren debeku edo bateraezintasunetako batean sarturik egotea.

c) Krediturik ez izatea edo aski ez izatea, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko Foru Legearen 40. artikuluan eta Foru Lege honen pean dauden gainerako administrazioei buruzko izaera bereko beste arau juridikoetan ezarritakoaren arabera, larrialdiko obrei dagokienean izan ezik.

**148. artikulua.** Administrazio zuzenbideko deuseztagarritasun kausak.

Administrazio zuzenbideko deuseztagarritasun kausak dira ordenamendu juridikoaren gainerako arau-hausteak eta, bereziki, Foru Lege honetan dauden arauenak, Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Guztiendako Administrazio Prozedurari buruzko Legearen 63. artikuluekin bat.

#### 149. artikulua. Baliogabetasun deklarazioa.

1. Kontratuen baliogabetasun deklarazioa, aurretiko bi artikuluetan azaldutako arrazoiengatik, kontratazio-organoak erabaki ahalko du, ofizioz edo interesatuek eraginda, Estatuko Kontseiluak aldeko irizpena eman ondoren, Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Guztiendako Administrazio Prozedurari buruzko Legean ezarritako epeak eta betebeharrak betez.

2. Kontratazio-organoen egintzen exekuzioaren etendurari dagokionez, Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Guztiendako Administrazio Prozedurari buruzko Legean eta Jurisdikzio kontentzioso-administratiboari buruzko Legean xedatutakoak aginduko du.

**150. artikulua.** Baliogabetasun deklarazioaren ondorioak.

1. Kontratuaren edo esleipenaren prestaketarako egintzen baliogabetasun deklarazioak, irmoa denean, berarekin ekarriko du edozein kasutan kontratuarena berarena, eta hori likidazio fasean sartuko da; alderdiek elkarri itzuli beharko dizkiote haren indarrez hartuak dituzten gauzak, eta hori interes publikoarendako posible edo komenigarri

ez bada, haien balioa itzuliko da. Errudun suertatzen den alderdiak ordaindu beharko dizkio kontrakoari pairatutako kalteak eta galerak.

2. Prestaketarako ez diren egintzen baliogabetasunak beroriek eta beren ondorioak bakarrik ukituko ditu.

3. Kontratu baten baliogabetasun deklarazio administratiboak nahaste larria sortzen badio zerbitzu publikoari, erabaki berean xedatu ahalko da haren ondorioen jarraipena eta haren klausula beren pean, kaltea ekiditeko presako neurriak hartu arte.

**151. artikulua.** Zuzenbide zibileko baliogabetasun arrazoiak.

Kontratuen baliogabetasuna, zuzenbide zibilean onartutako arrazoiengatik, administrazio kontratazioari aplikatu ahal zaizkion neurrian, akzioak erabiltzeko ordenamendu zibilean ezarritako epeek eta betebeharrak aginduko dute, baina horretarako prozedura aurreko artikuluetan administrazio egintzen eta kontratuen baliogabetasunerako aurreikusitakoak arautuko du.

## IX. TITULUA

### Lagapena eta azpikontratazioa

#### KAPITULU BAKARRA

##### Xedapen Orokorrak

**152. artikulua.** Kontratuen lagapena.

1. Kontratutik datozen eskubideak eta betebeharrak hirugarren bati lagatu ahalko zaizkio, beti ere lagatzailearen kalitate teknikoak edo pertsonalak kontratua esleitzeko arrazoi erabakiorra izan ez badira.

2. Esleipen-hartzaileek beren eskubideak eta betebeharrak hirugarrenei lagatu ahal izateko honako betekizunak bete beharko dira:

a) kontratazio-organoak lagapena aldeztetik eta espreski baimentzea.

b) Lagatzaileak gutxienez ere kontratuaren prezioaren 100eko 20 exekutatu izatea, edo, zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratua bada, gutxienez ere horren iraupenaren bosten baten epean ustiapena egina izatea.

c) Lagapen-hartzaileak Administrazioarekin kontratatze gaitasuna izatea, 24.etik 29.era bitarteko artikuluen arabera, eta behar bezala sailkatu egotea, betekizun hori lagatzaileari eskatu bazaio.

d) Esleipen-hartzailearen eta lagapen-hartzailearen arteko lagapena eskritura publikoan formalizatzea.

LETRA BERRIA) Administrazio Klausula Partikularren Pleguan ezartzen den beste edozein.

3. Lagapen-hartzailea lagatzaileari dagozkion eskubide eta betebeharrak guzietan subrogatuta geldituko da.

4. Administrazioak ez du baimenduko sailkapenen etenduran sartuta edo kontratatze desgaituta dauden pertsonen aldeko kontratuaren lagapena.

5. Obra publikoaren kontzesioan, Administrazioak agindu ahalko dio kontzesio-hartzaileari hirugarren bati utz diezaion portzentaia bat, gutxienez ere obrak guztira duen balioaren 100eko 30 hartzen duena, eta aurreikusi beharko da lizatzaileek hura gehitu ahal izatea, honetarako zifra kontratuan jasoz. Bestela hauek gonbidatu ahalko dituzte, haien eskaintzetan hirugarrenei utziko dieten gutxienezko portzentaia ipin dezaten.

**153. artikulua.** Azpikontratazioa.

1. Salbu kontratuak kontrakoa xedatzen badu edo honen izaeragatik eta baldintzengatik esleipen-hartzaileak zuzenean egin behar duela ondo-ondotzatzen bada, horrek hirugarrenekin hitzartu ahalko du kontratuaren egite partziala.

2. Azpikontratuak egiteko honako betekizun hauek bete beharko dira:

a) Administrazioari idatziz jakinaraztea egin gogo den azpikontratu, azpikontratatzailearen eginen dituen kontratuaren zatiak azalduz.

Hala ere, izaera sekretu edo erreserbatua duten kontratuendako, edo horien exekuzioak segurtasun neurri bereziek lagunduta izan behar duenean, lege edo erregelamenduen arabera, azpikontratazioak beti beharko du kontratazio-organoaren baimen espresua.

b) Esleipen-hartzaileak hirugarrenekin azpikontratatzen dituen prestazio partzialak ez izatea administrazio klausula partikularren pleguan finkatzen den portzentaia, kontratuaren aurrekontuaren 100eko 50etik gorakoa, baino handiagoak. Aurreikuspen hori pleguan agertzen ez den kasuan, kontratatzaileak aipatu 100eko 50eko portzentaia baino handiagoa ez den bateraino azpikontratu ahalko du.

c) Kontratatzaile bere gain hartzea azpikontratatzaile eta hornitzaileei batzuekin eta besteekin itundutako prezioa ordaintzeko obligazioa, 99.4 artikuluan Administrazioaren eta kontratatzailearen arteko

harremanetarako ezarritakoak baino kaltegarriagoak ez diren epeetan eta baldintzetan.

3. Azpikontratatistak kontratista nagusiaren aurrean bakarrik geldituko dira obligatuta. Beraz, horrek kontratuaren exekuzioaren erantzukizun osoa hartuko du Administrazioaren aurrean, administrazio klasula partikularren pleguak eta kontratuaren terminoak hertsiki jarraituz.

4. Kontratistak ezin izanen du inongo kasutan ere sailkapenen etenduran sartuta edo kontratatzekeo desgaituta dauden pertsonekin kontratuaren exekuzio partziala hitzartu.

5. Zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratuan azpikontratazioa prestazio akzesorioetan bakarrik egin ahalko da.

## X. TITULUA

### Kontuen Ganbara, Administrazio Kontrataziorako Batzordea, Kontratuen Erregistro Publikoa eta Kontratisten Erregistro Ofiziala

#### KAPITULU BAKARRA Xedapen Orokorrak

##### 154. artikulua. Kontuen Ganbara.

Administrazio kontratugileak igorriko dio Kontuen Ganbarari, honek, bere jarduketa programaren arabera, duen funtzio fiskalizatzailea bete dezan, haren kontratu kudeaketari dagozkion agiriak, erregelamendu bidez zehaztuko direnak. Era berean, Kontuen Ganbarak administrazioei eskatu ahalko die egoki ikusten duen datu, agiri eta aurrekari oro, edozein zenbateko eta izaeratako kontratuei buruzkoak.

**155. artikulua.** Administrazio Kontrataziorako Batzordea.

1. Administrazio Kontrataziorako Batzorde Aholkuemailea, Ekonomi eta Ogasun Departamentuari atxikia, organo aholkularia eta kontsultarakoa da, Foru Lege honen 1. artikulua 2. eta 3. idazatietan aipaturiko entitateen administrazio kontratazioari dagokionean.

2. Haren osaketa, eginkizunak eta antolaketa, erregelamendu bidez zehaztuko dira. Aipatu eginkizunen artean, Foru Lege honen artikuluetan espreski aurreikusitakoez gain, honako hauek egonen dira:

a) Txostenak egin, eta, bere kasuan, kontratazio sistemaren alderdi administratiboak, teknikoak edo ekonomikoak ukitzen dituzten arauak, neurriak edo jarraibideak proposatu.

b) Esleipenerako irizpideak eta baremoak egin, kontratazio-organoendako erreferentzia izan daitezkeenak.

c) Aurreko idazatian aipatu entitate publikoentzat eta kontratazio administratiboak ukitutako sektoreetako erakunde enpresarialentzat eta profesionalentzat arlo horretan sartzen diren gaiei buruzko txostenak egin, bere eskuhartzea eskatzen zaionean.

d) Nafarroako Gobernuari proposatu eredu normalduak, kontratuen aldaketa, esleipen eta prestaketari buruzko agiriak, onar ditzan.

LETRA BERRIA) Iragarkirik ez egiteko bidez-kotasunari buruzko txostena ematea, Lege honetako 91.5 artikulua aurreikusitako kasuan.

LETRA BERRIA) kontratazio-organoek Ekonomi eta Ogasun Ministerioko Administrazio Kontrataziorako Batzorde Aholkuemaileari erregelamenduz ezarritako kontratuen gainean eman behar dioten informazio estatistikoa zentralizatzea, nazioarteko arauak betetzeko.

**156. artikulua.** Kontratuen Erregistro Publikoa eta Kontratisten Erregistro Ofiziala.

1. Administrazio Kontrataziorako Batzordearen menpean Kontratuen Erregistro Publikoa izanen da, Administrazioak egin dituenak ezagutzeko bide emanen duena, bai eta haiak betetzeak sortutako gorabeherak ere.

2. Administrazio Kontrataziorako Batzordean Kontratisten Erregistro Ofiziala eratuko da, izaera publikokoa; bertan, Ekonomi eta Ogasun Kontseilariak emandako sailkapena alde aurretik lortu duten enpresari guzietan izena emanen dute. Era berean, aipatu Erregistroa kontrataziorako tresna laguntzailea izanen da, lehia sustatzeko eta administrazio kontratazio prozedurak arintzeko.

3. Aurreko idazatietan aipatu erregistroak erregelamendu bidez arautuko dira.

#### Xedapen gehigarriak

##### Lehenbizikoa. Garapenerako arauak

Nafarroako Gobernuak Foru Lege hau garatu eta betetzeko beharrezko ikusten dituen erregelamenduzko xedapenak emanen ditu.

##### Bigarrena. Zifrak eta epeak aldatzea.

Nafarroako Gobernuari baimena ematen zaio Foru Lege honen artikuluetan jarritako epeak eta zenbatekoak Europako Komunitateak haien iraupenari eta zenbatekoari buruz ezarritakoari egokitzeko, eta haren testuan Komunitatearen Zuzentzarauen Eranskinetatik eratorritako bidezko

aldaketak sartzeko. Nafarroako Gobernuak behar den erabakia hartzen ez duen bitartean, Estatuko legedian helburu berarekin eginiko egokitzapenak aplikatuko dira.

Foru Legearen testuan agertzen diren europar kontu unitateetan (Ecu-tan) adierazten diren atalaseen kontrabalia pezetatan Europako Batasuneko Batzordeak finkatzen duena eta Ekonomia eta Ogasun Ministerioaren Agindu bidez argitaratzen dena izanen da.

**Hirugarrena.** Atzerrian egindako kontratuak.

Atzerrian egiten eta exekutatzen diren kontratuak Administrazio Publikoen Kontratuak buruzko Legean horri buruz dauden arauak eraenduko dituzte.

**Laugarrena.** Kontratista Informatzeko eta Erreklamazioetarako bulegoa.

Nafarroako Gobernuak sortu ahalko du Kontratista Informatzeko eta Erreklamazioetarako bulego bat, Administrazio Kontrataziorako Batzorde Aholkulariari atxikiko zaiona eta horren Idazkaritzak kudeatuko duena.

**Bosgarrena.** Prozeduren bukaera konbentzionala.

Lege honetan xedatutakoari jarraituz eginen dira Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Guztiendako Administrazio Prozedurari buruzko Legearen 88. artikuluan ezarritakoaren babesean formalizatzen diren kontratuak, hauen xedea Lege honetan araututako gaiak direnean.

**Seigarrena.** Agintarien eta Administrazioaren zerbitzupeko langileen erantzukizunak.

1. Agintarien eta Administrazioaren zerbitzupeko langileen ondareko erantzukizuna, administrazio kontratazioko gaitan izan dituzten jardueretik eratorria, hala partikularrei nola Administrazioari berari sortarazitako kalteengatik, Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Guztiendako Prozedura Administrazioari buruzko Legearen X. Tituluan eta martxoaren 26ko 429/1993 Errege Dekretuan, ondareko erantzukizuneko gaitan Administrazio Publikoen prozeduren erregelamendua onesten duen hartan, xedatutakoaren arabera galdutako da.

2. Administrazioaren zerbitzupeko langileek Foru Lege honetan dauden manuak haustea edo behar bezala ez aplikatzea, tartean gutxienez arduragabekeria larria denean, falta oso larria izanen da, eta honen disziplinako erantzukizuna gaiaren berariazko araudiaren arabera galdutako da.

**Zazpigarrena.** Prozedura arauak.

Administrazio kontratazioaren arloko prozedurak Foru Lege honetan eta hori garatzen duten arauetan dauden manuek eraenduko dituzte, eta haien ordezkari aplikatuko dira Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Guztiendako Prozedura Administrazioari buruzko Legearenak.

**Zortzigarrena.** Administrazioarekiko erreferentziak.

Foru Lege honek Administrazioa aipatzen duenean, erreferentzia ulertuko da 1. artikuluan 2. idazatian sartutako administrazio publiko, erakunde eta entitate guzietarako eginda.

**Bederatzigarrena.** Kontratazioa plantilan minusbaliatuak dituzten enpresek.

Kontratazio-organismoek administrazio klausula partikularren pleguetan lehentasuna ipiniko dute kontratuak esleitzerakoan proposamen jakin batzuetarako, alegia, beren kaudimen teknika frogatzeko unean plantilan 100eko 2 baino txikiagoa ez den langile minusbaliatuen kopurua duten enpresa publikoek edo pribatuek aurkezten dituztenenak. Beti ere proposamen horiek, esleipenaren oinarri diren irizpide objektiboen ikuspuntutik onenak direnekin parekatzen ahal direnean.

**Hamargarrena.** Nafarroako toki entitateek egindako kontratazioa.

Foru Lege honek indarra hartzen duenetik hiru hilabeteko epean Nafarroako Gobernuak Parlamentura eramango du Toki Administrazioaren Foru Legea egokitzeko Foru Legearen Proiektua, honetan jasoko direlarik Nafarroako toki entitateek beren kontratuko jardueran dituzten berezitasunak.

**Hamargarrena bis.** Obra-kontrata, prezioa osorik ordaintzeko denekoa.

Prezioa osorik ordaintzen deneko obra-kontraturik ezin izanen da izenpetu, Foru Lege batek espreski horretarako baimena ematen duenean izan ezik. Foru Lege horren proiektua, gutxienez, kontratazio espediente osatzen duten dokumentuekin batera aurkeztuko da, hori onetsi aurretik.

**Hamargarrena ter.** Nafarroako Gobernuak, Foru Lege hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta sei hilabeteko epean, Foru Lege honetako 11. artikuluko 1. idazatik d) letran aurreikusitako erregelamendu bidezko garapena onetsiko du.

**Hamargarrena quater.** Nafarroako Gobernuak, Foru Lege hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta sei hilabeteko epean, Foru



Lege honetako 155. artikulua 2. idazatikoa lehen lehen aldean aurreikusitako erregelamendu bidezko garapena onetsiko du.

**Hamargarrena bosgarrena.** Zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratuen esleipenari dagokionean, esleipendun enpresek 25 langile baino gehiago badute, enpresetako plantilako langileen % 3k, gutxienez, akats fisiko larria, gortasun larri eta sakoan akats psikikoa edo adimen gaisotasun larria beharko du izan

### **Xedapen iragankorrek**

**Lehen.** Foru Legearen aplikazioa.

Foru Lege honetan xedatutakoa aplikatuko zaie Legeak indarra hartzen duen datan administrazio klausula partikularren pleguak onartuta ez dituzten kontratuei.

**Bigarrena.** Europar Esparru Ekonomikoa.

17.3. artikuluko bigarren lehen aldean, 24.3, 29.i), 30.6, 33.1, 34.2, 35.2, 36.3 eta 104.2.d) artikuluetan, dauden Europako Komunitateko kide diren estatuei buruzko erreferentziak, Europar Esparru Ekonomikoaren Akordioa sinatu duten estatuetara hedatuko dira.

**Hirugarrena.** Administrazioaren ordainketa ezaren ondorioak.

99. artikulua 4., 5. eta 6. idazatietan xedatutakoa aplikatuko zaie Foru Lege honek indarra hartzen duenetik esleitutako kontratuei. Aldez aurretik esleitutakoei aplikatuko zaizkie esleipena egin zen unean indarrean zeuden kontratuei buruzko legediaren manuak.

**Laugarrena.** Estatu Kontseiluari buruzko aipuak.

Foru Lege honetan Estatu Kontseiluari egotzi zaizkion eskumenak Foru Komunitatean, bere kasuan, eratuko den kontsultarako organoak hartuko ditu.

### **Xedapen indargabetzaileak**

**Bakarra.** Indargabetzen diren xedapenak.

Foru Lege honetan xedatzen denaren kontra dauden xedapen guztiak, lerrun bera edo txikiagoa dutenak, indarrak gabe gelditzen dira, eta bereziki honako hauek:

Azaroaren 14ko 13/1986 Foru Legea, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren kontratuei buruzkoa.

Urriaren 25eko 20/1985 Foru Legea, Gizarte Zerbitzuen arloko hitzarmenei buruzkoa, Foru Lege honen kontra dagoen guztian.

1973ko abenduaren 7ko Erabakia, probintzi obrak kontratatzeke Arau Orokorren 7.artikulu aldaketan duena, eta 1975eko martxoaren 26ko Erabakia, Foru Diputazioaren obra-kontratuetan prezioak berrikusteko arauak ematen dituenak.

Irailaren 19ko 204/1984 Foru Dekretua, Foru Komunitateko Administrazioaren argitalpenak argitaratzeko prozedura arautzen duena.

Maiatzaren 4ko 132/1988 Foru Dekretua, Administrazio Kontrataziorako Batzorde Aholkularia sortzen duena, Foru Lege honen kontra dagoen guztian.

Apirilaren 25eko 161/1991 Foru Dekretua, Foru Komunitateko Administrazioak eta haren erakunde autonomoek izenpetutako laguntza teknikorako kontratuak arautzen dituenak.

Martxoaren 23ko 120/1992 Foru Dekretua, urriaren 25eko 20/1985 Foru Legea, Gizarte Zerbitzuen alorreko Hitzarmenei buruzkoa, garatzen duena.

1994ko maiatzaren 16ko Erabakia, Nafarroako Gobernuarena, kontratu publikoak esleitzeko arauak ezartzen dituenak.

### **Azken xedapenak**

**Bakarra.** Foru Legeak indarra hartzea.

Foru Lege honek indarra hartuko du Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik ogei egun igarotakoan.



NAFARROAKO PARLAMENTUKO  
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA  
ORRIA

*Izen-deiturak* .....

*Helbidea* .....

*Telefonoa* ..... *Hiria* .....

*P. K.* ..... *Probintzia* .....

Ordaintzeko:

Nafarroako Aurrezki Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko sartu-ateratzeko kontura igorri edo bertan sartu

<b>HARPIDETZAREN PREZIOA</b> <b>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</b> Urte bat ..... 5.900 pta. Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa ..... 135 » . Bilkura Egunkariaren aleko prezioa ..... 170 » .	<b>IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</b> <b>NAFARROAKO PARLAMENTUA</b> «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta, 12, 3 31002 IRUÑEA
---	--